Deusto
Facultad de Ciencias Sociales y Humanas
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea

Zuzenbidea eta Komunikazioko Gradua

Estatu Terrorismoa hedabideetan: *El País, El Mundo, Egin, El Diario Vasco* eta *Deia*

Gradu Amaierako Lana

Pablo Aizpiri Villanueva

Tutorea:
Eider Landaberea Abad

Donostian, 2026ko uztailaren 18an

Amari,

ondokoak maitatzen eta zaintzen erakusteagatik.

Koadrilako lagunei,

azken urteetan bizi izandako une zailetan ondoan egoteagatik.

Karrerako lagunei,

ni entzuteagatik eta oparitu dizkidazuen bizipenengatik.

Eider Landaberea tutoreari,

lanari emandako babes guztiagatik

Pili Zabalari,

erakutsitako interesagatik eta etxeko ateak ireki izanagatik

Eta, azkenik, Aitari,

zure semea karrera hasten ikusteko aukera izan ez zenuen arren,

haren inspirazio eta motibazio iturri izaten jarraitu duzulako

1. Sarrera..... 5
2. Gaiaren garrantzia eta gaurkotasuna: zergatik Estatu Terrorismoa?..... 6
2.1. Zer irakaspen jaso dezakegu azken denbora honetan?..... 6
2.2. Zergatik Hedabideak?..... 12
2.2.1. Hedabideak eta justizia. Hedabideak biktimen bozgorailu..... 13
2.2.2. Hedabideak diskurtsoen sortzaile..... 15
2.3. Zer bilatzen du Gradu Amaierako Lanak?..... 17
3. Azterketarako aukeratutako datak eta horien justifikazioa..... 19
4. Iturriak eta Metodologia..... 21
4.1. Iturriak..... 21
4.1.1. El País..... 21
4.1.2. El Mundo..... 22
4.1.3. Egin..... 23
4.1.4. El Diario Vasco..... 24
4.1.5. Deia: gure Lurraren Deia..... 25
4.2. Metodologia: nola egin dugu hedabideen azterketa?..... 26
5. Analisia egunkariz egunkari..... 31
5.1. El Países diskurtsoa..... 31
5.1.1. Mareyren bahiketa "akats" bat da, kasu isolatua..... 31
5.1.2. Errugabetasun presuntzioa versus erruduntasun presuntzioa..... 33
5.2. El Mundoren diskurtsoa..... 37
5.2.1. El Mundo eta Gonzálezen arteko borroka mediatikoa..... 37
5.2.2. El Mundo eta PP..... 39
5.2.3. El Mundo/Diario 16 eta Ricardo Arqués..... 42
5.2.4. El Mundo Eginen itxieraren aurrean: prentsa askatasuna..... 42
5.3. Eginen diskurtsoa..... 44
5.3.1. "Zapalduen" ahotsa..... 44
5.3.2. Estatu Terrorismoaren aurka ETAren biolentzia legitimatu..... 45
5.4. El Diario Vascoren diskurtsoa..... 49
5.4.1. Mareyren kasuarekiko enpatia..... 49
5.4.2. Estatu Terrorismoa salatu, baina sistemaren arauak betetzen..... 53
5.4.3. PSOEren Gobernuaren krisia eta diskurtso aldaketa..... 57
5.4.4. El Diario Vasco Eginen itxieraren aurrean: Zuzenbide Estatua defendatu..... 61
5.5. Deiaren diskurtsoa..... 62
5.5.1. Gure lurraren Deia/EAJren Deia..... 64
5.5.2. Eginen itxiera: EAJ prentsa askatasunaren babesle..... 71
6. Zein izan da hedabideen diskurtso orokorra? Konparaketa..... 73
7. Gibel solasa..... 79
Bibliografia eta Iturriak..... 83

1. Eranskina: Kodetze koadroak eta horien esanahiak

2. Eranskina: Aztertutako piezak

3. Eranskina - Kodeak-Dokumentuak taula.xlsx

1. Sarrera

Diskurtso mediatikoaren analisia helburu duen lan honen bitartez, Euskal Herri mailan eta Estatu mailan presente egon den errealitatea ulertu nahi izan da. Estatu terrorismoaren gaiak, beste hainbat gaik bezala, diskurtso mediatikotik edaten du eta ezinbestekoa gertatzen da hedabideek diotenari erreparatzea gai jakin batetik eratorriak diren hitzei, kontzeptuei, esaldiei edota espresioei forma eman eta zentzua aurkitzeko.

Lan hau garai batean gertatutakoari buruz argitaratutako informazioaren inguruan jakin-mina zuen 4. mailako Zuzenbideko eta Komunikazioko Graduko ikasle batek abiatu zuen, Gizarteko Auzi eta Dilemak II ikasgaiaren parte zen lan baten eskakizunei erantzuteko. Jakin-min hori hiru hedabidek (*El País, El Mundo* eta *Egin*) estatu terrorismoaz hitz egiterakoan eraikitako diskurtsoa aztertzen zuen analisi lan batean gorpuztu zen.

Aurrean dugun lana ikasgai horretan aurkeztutako analisi lanaren jarraipena da eta, lan horretan idatzitakoa errepasatzeaz eta goitik behera begiratzeaz gain, sakontasun maila handiagoko lan bat garatu da. Lehengo ikasturtean egindako analisiari beste bi hedabide gehitu zaizkio (*El Diario Vasco* eta *Deia*) eta beste hainbat pieza, kontzeptu, hitz edota espresio aztertu dira.

Euskal Herriko zein Estatu mailako hedabideek estatu terrorismoaren aurrean izan duten jarrera eta eraiki duten diskurtsoa aztertzea helburu du lanak. Gaiaren konplexutasuna dela eta, beharrezkoa da azpimarratzea lanak ez duela inoiz izan ezer berririk aurkitzeko asmorik.

Lanak ez du bilatzen hedabideek garai batean kontatu zutenetik haraindi iristea, lan hori ez baitagokio egun Zuzenbidea eta Komunikazioa Graduko 5. maila egiten ari den ikasleari; jada badira horretan diharduten aktore sozial eta politikoak. Diskurtsoaren analisia egin da, baita diskurtsoaren zergatia ondorioztatzeko ahalegina ere; horretarako, testuingurua eta gertaerak kontuan izan dira. Zuzenbidea eta Komunikazioa uztartzen dituen gaia (estatu terrorismoa) oinarritzat hartuta, testuinguru sozial eta politiko zehatz batean hainbat hedabidek hartutako jarrera aztertu eta jarrera hori hartu izanaren zergatia interpretatu nahi izan da.

2. Gaiaren garrantzia eta gaurkotasuna: zergatik Estatu Terrorismoa?

2.1. Zer irakaspen jaso dezakegu azken denbora honetan?

2025eko abuztu eta iraila bitartean, Juan Paredes "Txiki" eta Ángel Otaegiren erailketaren urteurrenaren harira, Gogora Institutuko zuzendari eta PSOEko kide Alberto Alonsok egindako baieztapenak polemika piztu du hedabideetan (*GARA*/*Naiz*, 2025). Alonsok adierazi zuen Txiki eta Otaegik ez zutela "askatasunaren alde borrokatzen, beraien mundu ikuskera inposatzeko baizik" (Alonso, 2025).

ETAk eraildutako Alderdi Popularreko Gregorio Ordóñez zinegotziaren arrebak, Consuelo Ordoñezek, maila berean jarri zituen Espainiako Polizia Nazionalak Melitón Manzanas polizia frankista terrorismoaren aurkako borrokaren "heroitzat" hartzea eta ezker abertzaleak Txiki eta Otaegi "errepresioaren martiritzat" hartzea (Ordoñez, 2025).

Euskal Herri mailan ez ezik, Estatu mailan ildo ideologiko guztietako hedabideek lekua eman diote gertatutakoari eta kasuak berak planteatzen dituen nondik norakoei. Erreakzio ugari egon dira eta iritzien aniztasuna nabaria izan da; biktimen kolektiboen arteko talka eta iritzi kontrajarriak berpiztu dira.

Beste hedabide batzuek iraganari erreferentziak eginez hitz egin dute gaiaren inguruan, baina Ordoñezen oso bestelako marko batetik. *Naiz*ek, bere ildo editoriala argi uzten zuen erreportaje batean nabarmendu zuen PSOEk oso bestelako iritzia adierazten zuela 1975. urtean, Txiki eta Otaegiren erailketa salatzen baitzuen eta biktimatzat eta askatasunaren aldeko militantetzat hartzen zituen, *El Socialista* aldizkari ofizialean argitaratutako artikuluan (Sola, 2025).

Erreportajearen tituluak Txiki eta Otaegiren kasuaren inguruan PSOEk dituen kontraesanak azaleratzeaz gain, ironiaz baliatuta, konparaketa egiten du Felipe Gonzalez Espainiako agintaritzan egon zen garaian Espainiako presidenteorde zen Alfonso Guerrak eraildunen inguruan zuen iritziarekin: "*El PSOE de Guerra lo tenía más claro sobre Txiki y Otaegi que el de Gogora, hace 50 años*" (Sola, 2025). Titulua ez da baieztapen edo konparaketa soila; haren bitartez, 80ko eta 90eko hamarkadan PSOE agintean egon zen urteetan gertatu ziren estatu terrorismoko kasuak gogora ekarri nahi baititu.

Titulu horretatik *Naiz*ek bi baieztapen egin nahi dituela ondoriozta daiteke. Batetik, Alderdi Sozialistak Estatuaren indarkeriaren aurrean izan duen konplizitatea eta eki-distantzia azpimarratu nahi ditu eta, bestetik, konplizitate horren erreferente politiko izandakoak, egungo Alderdi Sozialista baino argiagoak zirela Txiki eta Otaegiren kasuaren inguruan hitz egitean. Edonola ere, esaldi bakar batek testuinguru historiko eta errealitate desberdinei egiten die erreferentzia.

Nekez uler daiteke *Naiz*ek adierazi nahi duena Alfonso Guerra zein izan den eta Espainiako agintaritzan izan duen rola ondo ezagutu gabe, are gutxiago Alderdi Sozialistak Estatuaren indarkeria kasuetan izan duen eragina jakin gabe. Azken hilabeteetan sortu den polemika batek berretsi egiten du Estatuaren indarkeriaren gaiak duen gaurkotasuna eta iraganean gertatutakoari buruzko azterketa eta hausnarketa egiteko beharra.

Lerroartean irakurriz, eta erreportajearen tituluari kutsu "editorializatuagoa" edo mezu "zuzenagoa" eman nahiko bagenio -esajeraziorantz joz eta kutsu sentsazionalistarekin- ondorengo baieztapena *Naiz*en mezuarekin ere bat etorriko litzateke: "*Incluso el PSOE de los GAL lo tenía más claro sobre Txiki y Otaegi que el de Gogora, hace 50 años*".

Polemikak estatu terrorismoaz eta Estatuaren indarkeriaz hitz egitea garrantzitsua dela berresten du. Estatuaren indarkeria kasu baten urteurrena iristen den bakoitzean edota gaiaren inguruan baieztapen bat egiten denean erreakzioak berehala gertatzen dira. Horrek bi ondoriotara eramaten gaitu: 1) estatu terrorismoa komunikazioaren eta kazetaritzaren ikuspuntutik gaurkotasun eta garrantzi handiko gaia da; 2) kasu horien baitan argitaratzen edo esaten den guztiak lotura zuzena du iraganean argitaratu den eta argitaratu ez denarekin.

Horren adierazle dugu José Barrionuevo Espainiako Barne Arazoetako ministro ohiak duela hiru urte *El País* egunkariarentzat emandako elkarrizketan egindako baieztapena; Segundo Marey iparraldeko hiritarraren liberazioa lortu izana bere buruari egozten zion. Adierazpen horretan estatu terrorismoaren justifikazioa eta legitimazioa iradokitzen zuen diskurtsoa nabaritzen da (González, 2022). Baieztapenek estatu terrorismoko biktima askoren eta gizarte osoaren gaitzespena ekarri zuten. Terrorismoaren biktimen aldeko *Covite* elkarteak ere komunikatua argitaratu zuen Barrionuevoren adierazpena gaitzesteko (*Covite*, 2022) eta

Barrionuevo kide izandako PSOEren Euskadiko ordezkaritzak adierazpenak "onartezinak" zirela azpimarratu zuen (*El Mundo*, 2022).

Txiki eta Otaegiren inguruan sorturiko polemikak eta azken urteotan kasu ezberdinen inguruan loratu diren eztabaidek garai berri baten aurrean gaudela berresten dute: estatu terrorismoa iritzi publikoaren parte da eta gaiaz hitz egiteko beharra dago. Gehiago hitz egiten da estatu terrorismoaz eta askatasun handiagoarekin.

Estatu terrorismoaren gaia gizartearen zenbait estamentutan tabu izaten jarraitzen duen arren, biktimek euren eskubideak eta biktima izaera aldarrikatzeko espazioak aurkitu dituzte. Instituzioek gaiarekiko jarrera aldatzearekin batera eta tortura kasuez eta Estatuaren indarkeriaz modu irekiago batean hitz egitearekin batera, gaia beste ikuspegi batetik eta beste marko baten baitan aztertzeko bideak ireki dira, biktimen presentzia hedabideetan eta instituzioetan geroz eta nabariagoa baita. Aldaketa horretan, aipatu berri duguna ez ezik, berebiziko garrantzia izan du eta mugarri izan dira ETAren biolentziaren amaiera eta talde armatuaren desagertzea.

Biktimen elkarteek eta estatu terrorismoaren inguruan ikertzen ari direnek ikusgarritasun handiagoa dute. Euren txostenek zein ekimenek leku handiagoa hartzen dute gaur egungo espazio publikoan. *Egiari Zor* fundazioko edo *Argituz* Giza Eskubideen aldeko elkarteko lan taldeek egin duten ekarpena aipatu beharra dago. *Argituz*ek, euskal gatazkaren baitan gertatutako giza eskubideen urraketak jasotzen dituzten txostenak argitaratzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen diren erreparazio legeei buruzko txosten juridikoak argitaratzen ditu.[1] *Argituz*en webgunean Euskal Herriko Hedabideek estatu terrorismoaren inguruan argitaratzen dituzten artikuluen hemeroteka atala dago[2]. Ildo beretik, gertu daukagu Gogora Foroak 2022an argitaraturiko *Begiradak* txostena; ETAren zein estatu terrorismoko biktimen arteko elkarlanetik eta sinergiatik sortutako lana da (Gogora, 2022).

[1] *Argituz* elkartearen webgunean bertan 2013an Eusko Jaurlaritzak 1960 eta 1978 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan euren giza eskubideak urratuta ikusi zituzten pertsonen biktima izaera aitortzeko eta jasandako mina erreparatzeko sortutako Dekretuaren inguruko iruzkina eskura daiteke. Bertan, testu juridikoa aztertu eta hobetzeko proposamenak aurkezten dira (*Argituz*, 2013).

[2] *Hacia una Memoria Compartida* lelopean, XX. eta XXI. mendeetan bitartean Euskal Herrian giza eskubideen urraketa bizi izan duten pertsonen aitortzaren aldeko apustua egiten dute, euskal gatazkaren bi aldeak uztartzea ahalbidetzen duten tekinkak eta prozedurak jasotzen dituzten txostenak aurkeztuz. Txosten horietan aipatzekoa da ere *Baketik* gatazken konponbiderako erakundearen kolaborazioa eta erakundeak frankismoaren eta Estatuaren indarkeriaren biktimen arretan eta haien testigantzen bilaketan egiten duen lana (*Baketik*, 2025).

Eztabaidarako espazio berriak sortzen ari dira, biktimak euren esperientzia kontatzeko aske senti daitezen, epaituak izan gabe, edota ideologia edo alderdi politiko baten kide direla leporatuko zaien beldurrik gabe. Biktimen memorian egin beharreko lana oraindik luzea bada ere, haien diskurtsoaren zilegitasun kentzea leundu egin da. Gaur egun, Txiki eta Otaegiren kasuaren eta beste hainbesteren baitan sortzen diren eztabaidak albo batera utzita, gaiaz "askatasunez" -hitza berak hartzen duen erlatibotasuna aintzat hartuta- hitz egiteko aukera egoteak iraganetik urrun dagoen errealitate baten aurrean gaudela adierazten du. Gaiaz hitz egin ahal izatea aurrerapausoa da eta oso bereizgarria da gaur egun zein lengoaia erabiltzen den estatu terrorismoaz hitz egiterakoan.

Esanguratsua da oso egungo hedabideek estatu terrorismoko kasuak duten tratatzeko modua duela 40 urte erabiltzen zen lengoaiarekin alderatuta; analisiaren atalean sakonago aztertuko dugu 80ko eta 90eko hamarkadetan hedabideek zuten diskurtsoa. Gaur egun, gaiaz hitz egiten duten albiste, artikulu eta erreportaje askotan biktimak jartzen dituzte erdigunean, haien presentzia nabaria da, haiei uzten diete euren bizipenak kontatzen. Biktimen parte-hartzea espazio publikoan handiagoa da eta, estatu terrorismoaz hitz egiten denean, biktimen ahotsari lekua emateko ahalegina antzeman daiteke, nahiz eta zenbait kasutan -Barrionuevoren elkarrizketa, besteak beste- biktimen izaera zalantzan jartzen den.

Azken hamarkadetan hainbat gertaera garrantzitsu egon dira euskal gatazkari dagokionez eta estatu terrorismoko kasuak aztertzerako garaian inflexio-puntu izan dira: ETAren borroka armatuaren amaiera 2011ko urrian eta ETAren behin betiko desagertzea 2018an. Ordurako, ordea, Estatuak ETAren aurkako borrokan erabilitako zenbait praktika salatzen zituzten obrak argitaratu ziren; hala nabarmentzen du José Antonio Pérez *Valentín Foronda Gizarte Historiako Institutu*ko ikertzaileak 2021ean argitaraturiko "Terrorismo y Violencia Política en el País Vasco" artikuluan (Pérez, 2021). Bertan, 80ko eta 90eko hamarkadetan argitaratu ziren zenbait lanei erreferentzia egiten die; horien artean, Melchor Miralles eta Ricardo Arqués kazetariek argitaraturiko *"Amedo: El Estado contra ETA"* lana aipatzen du, garai hartan estatu terrorismoko kasu gehienei buruzko informazioa argitaratu zuten kazetari nabarmenduenetakoak izan baitziren (Arqués eta Miralles, 1989).

ETAren biolentziaren amaierak bidea ireki du ordura arte isilpean edo bigarren lerroan geratu ziren biktimen ahotsa modu garbiago batean entzuteko eta garai batean bizi izandako estigmatizaziotik zerbait aldentzeko. ETAren biolentziaren amaieraz geroztik, terrorismoaren

biktimen kolektiboko zenbait pertsona estatu terrorismoko biktimen errealitatea ezagutzera gerturatu dira; euskal gatazkaren bi aldeetako biktimen arteko hitzaldiak normalizatu egin dira eta gatazkaren bi aldeak erakusteko ahalegina antzeman daiteke. Hezkuntzaren arloan hitzaldiek ekarpen ona izan dute eta biktima profil ezberdinen elkarretaratzera deitu da. Horren adibide dugu, Deustuko Unibertsitateak azken urteotan antolatu dituen estatu terrorismoko eta ETAren biktimen arteko hitzaldiak, esaterako. Horietan bi aldeetako biktimen arteko elkartasun keinuak ikusi dira. 2022an Pili Zabala eta Naiara Zamarreño (GALeko eta ETAko biktimak, hurrenez hurren), elkartu zituen Deustuko Unibertsitateak (Deustuko Unibertsitatea, 2022). Testigantza horiek hezkuntzaren arlora gerturatzeak belaunaldi berriek iraganean bigarren lerroan egon ziren biktimak gogoan izatea bilatzen du eta hori biktimen aitortzaren aldeko aurrerapausoa da.

Halaber, ETAren biktimengandik jasotako elkartasun keinu horiek esparru gehiagotara eraman dira. Arlo sozialari erreparatzen badiogu, ordura arte estatu terrorismoko biktimekiko aldenduago zegoen *Covite* elkarteak bere gertutasuna adierazi du GALen eta estatu terrorismoko biktimekiko. Haren webgunean *"Mapa del Terror"* izeneko atalean euskal gatazkaren biktimen -ETAren zein Estatuaren eta beste hainbat talde politikoen terrorismoko biktimak- izen-abizenak jasotzen dituen mapa aurkezten du.

Gerturatze hori hedabideen arloan ere gertatu da. Biktimen arteko elkarrizketak jasotzen dituzten erreportaje eta artikuluak argitaratu dira azken urteotan. Horietan, ETAren zenbait biktimak estatu terrorismoko biktimekiko elkartasuna adierazteaz gain, iraganean jasan izandako mespretxua salatu eta hori erreparatzeko beharra aldarrikatzen zuten. *El Mundo* egunkariak lehenago aipatutako Pili Zabala eta Consuelo Ordoñezen arteko elkarrizketa argitaratu zuen 2022an. Ordoñezek ETAko biktima izanik eta *Covite* elkartearen lehendakari ondorengo adierazpena egin zuen: "zu ni bezain biktima ez zarela dioena zital hutsa da" (Simón, 2022).

Coviteko lehendakariak maiz adierazi du zenbait hedabidetan egindako argitalpenetan estatu terrorismoko biktimekiko elkartasuna eta gaiaren inguruan egia argitzeko beharra. Azkeneko argitalpena aurtengo urrian egin zuen *El Diario Vasco* egunkarian "*Las víctimas invisibles de los GAL"* tituluarekin argitaraturiko zutabean (Ordoñez, 2025). Bertan, GALeko biktimen ikusgarritasun falta salatzen du, ETArekin loturarik zuten eta ez zuten biktimen arteko bereizketa egiten badu ere.

Gertaeren kontakizunean, batik bat hedabideek argitaratzen dutenari erreparatuz, biktimen testigantza nagusitzen ari da; biktimek bizitakoa biktimek kontatzen dute, biktimetatik eta biktimentzat, ordura arte horren nabariak ez ziren elkartasun hariak josiz nahiz eta, kontakizun horietan estatu terrorismoko biktimen presentzia ETAko biktimena baino murritzagoa izaten jarraitzen duen.

Egoerak ondorengo galderak egitera eramaten gaitu: nondik gatoz? Zergatik sortzen da horrenbesteko eztabaida eta zirrara Estatuaren bidegabekeria dela medio? Zer leku hartu du estatu terrorismoak iritzi publikoan? Beti existitu da gaiarekiko trataera plurala ala beti egon da gatazkaren inguruan nagusitu den begirada? Zer rol izan dute hedabideek trataera horretan? Zein izan da erabili den lengoaia eta zer adierazi nahi izan du alde bakoitzak?

Txiki eta Otaegiren erailketaren urteurrenak eta haren harira egin diren adierazpenek sortutako zirrarak urteetan zehar eraikitako errealitatearen irudia erakusten dute. Bi ETAkideen erailketaren baitan sortutako polemika eztabaida soil batetik haratago doa, baita Estatuaren biolentzia bitarte dagoen beste edozein kasu entzutean sortzen den polemika ere.

Gizartearen memoria kolektiboan barneratuta dauden milaka gertaera loratzen dira. Memoria kolektibo horretan kolore guztietako diskurtso politikoak, hedabideen diskurtsoak, testigantzak, hitzak, esaldiak, aldarrikapenak, manifestazioak, biolentzia, talka politiko eta ideologikoak sartzen dira eta horietan norberaren alderdi arrazionala eta alderdi emozionala uztartu egiten dira.

Gradu Amaierako Lanaren gaitzat estatu terrorismoa bera planteatzeak harridura sorrarazi du garai hori bizi izan duten nire inguruko pertsonen artean eta horrek gaiaren garrantzia eta gaiari buruz hitz egiteko beharra baino ez du berresten. Estatu terrorismoaren gaia planteatu eta berehala etortzen dira garai horretan argitaraturiko albiste, artikulu, editorial eta erreportajeen tituluak. Norberak gordeta dituen oroitzapenekin eta gaiaz hitz egiterakoan loratzen diren sentimenduekin lotuta dago guztia.

Estatu terrorismoaz askatasun handiagoarekin hitz egiteko bideak ireki izanak eta, gutxinaka biktimek euren testigantzak partekatzeko espazio seguru gehiago aurkitzeak ez du esan nahi orain arte gertatutakoak ez duela interesik. Garrantzitsua da iraganari erreparatzea,

gaur egungo egoeraren eta iraganeko gertaeren artean dagoen lotura estuarengatik, hain zuzen ere. Iraganari erreparatzeak egungo errealitatearen markoa hobeto ulertzea ahalbidetzen du.

Gainera, gaiaren normalizazioa eta biktimentzako espazio seguruen irekiera, iraganari buruzko ikerketetatik lortutakoaren ondorioak dira. Biktimentzat iraganean kontatzeko aukerarik izan ez zuten hori partekatzea beharrezkoa da. Estatu terrorismoko kasuen inguruan argitaratu den informazioari erreparatu behar zaio, zer kontatu den eta zer kontatu ez den aztertzea.

2.2. Zergatik Hedabideak?

Gizartean bere horretan gailentzen diren diskurtsoak eta hedabideetan erabilitako lengoaia bat datoz erabat. Gaur egun, estatu terrorismoaren baitan sortutako eztabaidek eta argudioek hedabideek markatutako diskurtsoa erreplikatzen dute edo, behintzat, hedabideek eraikitako markotik eratorriak dira.

Marko hori ez da erabat homogeneoa eta diskurtso ezberdinak ikus ditzakegu, garai horretan norberak hartutako jarreraren arabera. Norberak interes orokorreko gai baten aurrean hartzen duen jarrera hainbat faktorengatik baldintzatuta dago: zer irakurtzen den, nola irakurtzen den (irakurtzen denarekiko hartzen den aurretiko jarrera), zer pentsatzen den, zeinekin erlazionatzen garen eta nora jotzen dugun informazioa eskuratzeko.

Norbanakoek jarrera ezberdinak hartzen dituzte eta horietako bakoitzak, gainerakoen jarrerekin eta ikuskerekin batera, markoa osatzen dute, markoen markoa. Horrek gai baten inguruan dauden mundu ikuskera guztiak biltzen ditu. Markoaren atzean testuinguru zehatza dago: egoera soziopolitikoa, ekonomikoa, testuinguru historikoa… Testu batzuk edo eduki batzuk beste batzuen gainetik lehenestera eraman dezaketen baldintzak dira.

Hedabideek erabateko eragina dute markoaren eraikuntzan, norbanakoon diskurtsoaren eraikuntzaren eragile nagusi baitira. Oso zaila da -batik bat gizarte oso baten memorian barneratuta dagoen gai bati buruz hitz egiten dugunean- norberaren ezagutza soilik esperientzia indibidualetik datorrela ondorioztatzea. “Hausnartu eta, berehala, norbera

ohartzen da esperientzia indibidualetik eratorritzat hartzen zuen hori hedabideen eskematismoen eta ereduen bitartekoa dela" (Innerarity, 2018).

Ezin daiteke ukatu badirela ezagutza zehatzak; norberaren existentzia eta izaerari atxikita daude. Horiek norberaren barne hausnarketaren eta esperientziaren ondorio dira, baina beti dago kanpoko eragile bat (testuinguru edo errealitate zehatz bat, pertsona bat, gertaera bat…) eta gure mundu ikuskeran eragina du. Norberak bere burua begiratzen eta aztertzen duen modua kanpotik jasotzen dituen estimuluengatik baldintzatuta dago. Gainera, "horren mediatizatua dagoen errealitatean nekez bereizi daiteke hedabideetatik jasotzen duguna soilik norberaren esperientziatik datorren horretatik" (Innerarity, 2018).

Are gehiago, Innerarityren baieztapen muturrera eramaten badugu, norberaren esperientzia eta hedabideetatik jasotakoa bata bestearen osagarri direla esan dezakegu, elkar elikatzen diren bi ezagutza mota edo errealitatera gerturatzeko eta ulertzeko bi modu. Bi elementu uztartzen dira: norberaren aurreiritziak eta irakurtzen duenarekiko aurretiko jarrera eta irakurritakoarengandik jasotzen dituen estimulu guztiek sortzen duten erreakzioa edo jarrera aldaketa.

2.2.1. Hedabideak eta justizia. Hedabideak biktimen bozgorailu

Gai honi dagokionez, erabateko lotura dago zuzenbidearen edo legeen munduaren eta komunikazioaren edo hedabideen arloaren artean. Orain arte aipatu duguna oinarri hartuta, estatu terrorismoaren gaia aztertzeak, nahitaez biktima izaeraren aitortzaren gaira eramaten gaitu.

Estatu terrorismoa pairatu dutenen artean orokortua da Estatuaren eta, batez ere, botere judizialaren pasibotasunarekiko amorrua. Estatu terrorismoaren gaia tabu izan da Espainiako sistema judizialean, gaia oso azaletik aztertu baita. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa izan ezik, gainerako instituzioek ez dituzte inoiz biktimatzat hartu 78ko erregimenaren baitan; erregimenaren oinarriak defendatzen dituzten aktore politikoen gutxiespena jasan dute.

Zuzenbidearen arloan gertatzen diren aldaketak eta joera politikoaren baitan sortzen eta proposatzen diren legeek ere eragin zuzena dute memoria kolektiboaren eraikuntzan. Hein handi batean, eta Espainian nabaria da oso, horrelakoak argitaratzen direnean -batik bat,

interes orokorreko gaiez hitz egiten denean- hedabideak arduratzen direla horiek helarazteaz; hedabideak botere legegilearen eta botere judizialaren bitartekari bihurtzen dira. Botere exekutiboa, legegilea eta judizialarekin batera, hedabideak zuzenbide estatuko beste botere bat bilakatzen dira.

Askotan ez da gauza bera legean idatzia dagoena eta lege horrek jorratzen duen gaiaren inguruan gizarte mailan dagoen pertzepzioa. Ildo horretatik, zuzenbidea eta komunikazioa uztartu egiten diren honelako gai batean bezala, ikerketa ugari abiatzeko aukera dago: hedabideek legeen eta zuzenbidearen inguruan ematen duten informazioa egokia den ala ez, hedabideek gai polemikoen inguruan hitz egiterakoan duten karga ideologikoa, zuzenbidean erabiltzen den lengoaia hedabideetan erabiltzen denarekin konparatu eta bi horien atzean dagoen karga ideologikoa, kontzeptu juridikoei buruz hedabideek egiten duten balorazioa eta erabilera… Guztiak Komunikazioa eta Zuzenbidea ikasten duen edozein ikasleri benetan interesgarriak gerta dakizkiokeen gaiak dira.

Estatu terrorismoko gaiek gizarte mailan eta hedabideetan zirrara handia sortu duten arren, zuzenbidearen arloan gaiak oso jarraipen gutxi izan du. Familia askok ez dute aukerarik izan prozesu judizial batean euren senideen errugabetasuna eta eskubideak aldarrikatzeko, ezta horien heriotzaren inguruan gertatutakoa jakitea ahalbidetuko ziekeen errudunik ikertzeko eta epaitzeko ere.

Testuinguru horretan, termino eta kontzeptu asko loratu dira eta horietako bakoitzean estatu terrorismoaren gaia jorratzeko ikuspuntu desberdinak nabari daitezke.

Kasu bakoitzaren atzean borroka judizial luzea dago. Horrek nahitaez biktima askoren ahotsa hedabideen bitartez entzutera eraman gaitu, horietan aurki baitute euren eskubideak eta hildakoen memoria aldarrikatzeko bide bakarra. Bere burua zuzenbide estatu Pluraltzat hartzen duen sistema batean zenbait pertsonak ez dira babestuta sentitu eta egia beste bide batzuetatik bilatu behar izan dute. Biktimen elkarteek hedabideetan aurkitu dute babesleku eta bide batez, botere judizialaren gabeziei aurre egiteko aurkitu duten arma bakarra bilakatu dira.

2.2.2. Hedabideak diskurtsoen sortzaile

Ez da gauza bera, Terrorismoaren Aurkako Gerra edo ETAren aurkako gerra esatea ala estatu terrorismoa edota Gerra Zikinaz hitz egitea. Ez da gauza bera GALen buruaz hitz egitea ala "X" Gizona edo *Señor "X"* delakoaz hitz egitea. Ildo beretik, gaiaren baitan, kontzeptu bat definitzerakoan ikuspuntu kontrajarriak ager daitezke. Estatu Zuzenbidearen defentsaren baitan batzuk ETAren aurkako gerra zikina justifikatu dute. Beste batzuentzat, berriz, zuzenbide estatuaren defentsak edonoren aurka bidezko eta berme osoko prozesu judiziala existitzea eskatzen du eta errugabetasun presuntzioa eta norberaren defentsarako eskubidea oinarrizkoak diren.

Lehen aipatu berri dugu ikerketaren aztergai izango diren kazetaritza edukiak garai zehatz bati dagozkiela; testuinguru zehatz baten baitan daude. Hedabideak garai horretako errealitatearen erakusleiho dira.

Hedabideek estatu terrorismoaren inguruan argitaratutako informazioak nolabaiteko arrastoa utzi du gizartean; jendeak kontzeptuak, terminoak, esaldiak, adierazpenak, diskurtsoak eta gertakariak barneratu ditu eta horiek errealitatearen ikuspuntuak eraikitzeko ahalmena eman du. Hori belaunaldiz belaunaldi transmititu da eta, nolabait, egun estatu terrorismoaz, eta, oro har, edozein gaiaz hitz egiten dugunean erabiltzen ditugun terminoak iraganean hedabideek eraikitako diskurtsoaren oinordetza baino ez dira.

Hedabideak legitimatutako instituzioak dira, norberaren kontzientzian erabat barneratuta geratzen diren esanahiak sortzen baitituzte; gizartearen kulturaren eta ezagutzaren berrespen bilakatzen dira eta, ondorioz, memoria kolektiboaren oinarri (Ramos, 1995, 109).

Lan honek ez du bilatzen hedabideek gai honen baitan memoria kolektiboaren eta memoria demokratikoaren eraikuntzan izan duten eragina aztertzea, baina beharrezkoa da bi kontzeptu horiek zertan datzaten azaltzea, hedabideek transmititutako mezuaren atzean dagoena ulertzen jakiteko, hedabide bakoitzaren intentzionalitatea ondorioztatu ahal izateko.

Memoria kolektiboak denboraren poderioz gizarteak bere osotasunean barneratutako eta gordetako gertakari eta balioei egiten die erreferentzia. Bestetik, memoria demokratikoa,

gizarteak gorde duen ondare kultural eta sozial horretaz baliatuta, denen iritziak eta gertakari baten inguruan jende guztiak duen ikuspuntua bere gain hartzen duen memoria litzateke. Memoria bere horretan, ekintza sozial, komunikatiboa eta elkarrizketa bidezkoa bada, memoria demokratikoak ere hala behar du izan (Arrazola Ruíz eta Mellado Moreno, 2022, 105).

Lanak ez du memoria kolektiboan hedabideek izan duten eragina aztertuko, baina gizartearen memorian barneratuta dauden kontzeptuaz baliatuko da estatu terrorismoaren gaia nola kontatu den, zeinen interesak defendatu diren, eta memoria horren eraikuntzaren parte diren aktore ezberdinek zer leku hartu duten aztertzeko, hau da, hedabideek erabili duten diskurtsoa eta lengoaia ulertzeko eta identifikatzeko.

> "Memoria, eraikuntza sozial narratiboa den horretatik, narratzailearen propietateak aztertzea eskatzen du, alegia hitzak ahoskatzera baimentzen duen edota boterea eman ala kendu egiten dioen instituzioari aztertzea" (Jelin, 2002, 35)[3]

Jelinen adierazpenak ulertzera ematen du, hedabideek memoria demokratikoaren eraikuntzan izan dezaketen garrantzia. Aztergai dugun gaiari dagokionez, ezinbestekoa da, diskurtsoa analizatzerako garaian, hedabide bakoitzak informazioa ematerakoan zein interesek bultzatzen zuten, hau da, zein intentziorekin eta norengana iristeko informatzen zen. Analisiari begira, kontuan hartu beharko da ondorengo ataletan aukeratutako hedabideen inguruan jasotako informazioa: hedabideen ildo ideologikoa, zein komunikabide talderen parte diren, estatu terrorismoko kasuak gertatzen eta argitaratzen hasi ziren garai horietan zein kazetarik jokatu zuten rol garrantzitsua, zergatik loratu ziren zenbait termino eta kontzeptu, noren eskutik sustatu ziren kontzeptu horiek, edota zer dago kontzeptu horien atzean.

Hedabideek aipatu berri ditugun elementu guztiak hartzen dituzte bere gain, gizartean bizi den tentsio klima neurtzeko balio baitute. Gainera, orain arte aipatu dugun eta bizi garen errealitate "mediatizatuan" ezin daiteke zer gertatzen ari den eta, gure kasuari dagokionez, zer gertatu den ulertu, hedabideetara jo gabe. Hedabideak ezinbestekoak dira errealitatea eta iragan hurbila ulertzeko, hedabideen eskemen baitan antolatuta dagoen errealitatean bizi

[3] Honako lanetik aterata: Arrazola Ruiz Sara, Mellado-Moreno,Pedro C. 2022. «La construcción de la memoria democrática y la transmisión de su relato a través de la educación». *Revista Propulsión Interdisciplina En Ciencias Sociales Y Humanidades*, 5(2), 102–116 orr. https://www.ojs.revpropulsion.cl/index.php/revpropulsion/article/view/89/173

baikara. Ezagutzen dugun mundua hedabideen baitan antolatuta dago (Couldry, 2021,15). Errealitatea bera Innerarityk aipatzen duen *agenda setting*-aren inguruan eraikitzen da (Innerarity, 2018).

2.3. Zer bilatzen du Gradu Amaierako Lanak?

Lana lerroarteak interpretatzean datza. Testuinguruak eramango gaitu lerroarte horien atzean dagoena ulertzera. Lanean aztertuko diren pieza bakoitzaren kontzeptuak, esaldiak, irudiak, espresioak, "zergatik?" galderaren baitan kokatuko ditugu: zer esan nahi du hedabide honek "Señor X" dioenean? Zergatik hedabide honek ez du besteek erabilitako kontzeptu edo esaldi bera erabiltzen? Zergatik ematen dio hedabide honek lekua albiste edo gertaera honi eta beste honek berriz ez dio lekurik ematen?

Lanak ez du ideologia edo alderdi politiko jakin bateko diskurtsoaren babesle izatea helburu. Ikerketa lanaren bitartez, marko batetik abiatuta, analisi kritikoa egin nahi da eta hedabideek estatu terrorismoko kasuen inguruan erabili duten lengoaia aztertu. Lanak zergati bat eman nahi dio hedabideek erabili duten diskurtsoari; diskurtsoa eta jarrera ikertu eta horren zergatia ulertzen saiatzea da helburua.

Lana ez da estatu terrorismoko biktimen ahotsa, soilik haiei baitagokie bizi izan dutena eta nola bizi izan duten kontatzea. Lanaren bitartez Komunikazioko Graduko azken urteko ikasle batek ulertu nahi izan duen errealitate baten inguruko analisia eta bertatik ateratako ondorioak eta hausnarketak baino ez dira jasotzen.

Lanak hedabideen mundura eta haien jokatzeko modura gerturatzea bilatzen du eta, horren bitartez, gaurkotasuna duen eta oraindik gehiago landu beharra dagoen gai baten atzean dagoena hobeto ulertzea (datuak, erreferentziak, esaldiak, bigarren zentzuak, espresioak…). Horretarako ideologia eta interes anitzeko hedabideak aztertu dira bakoitzaren diskurtsoa hobeto ulertu eta arazoaren irudi osatuagoa izateko.

Egunkari bakoitzaren diskurtsoa ulertzen saiatzean ez gara justifikazio lana egiten ari, ez gara egunkariak eraikitako diskurtsoaren zilegitasuna epaitzen ari, ezta bost egunkarietatik nork konbentzitzen gaituen gehien adierazten. Helburua errealitatea hobeto ulertzea da,

interpretazioaren interpretazioa egitea. Cercas-ek dioen moduan “ulertzea ez da justifikatzea, baizik eta nork bere buruari berriro iraganeko akatsak ez egiteko tresnak ematea” (Cercas, 2025, 27). Cercasek literaturaren eta eleberrigintzaren ikuspuntutik hitz egiten du, baina adierazpena kazetaritzara eraman daiteke. Kazetariak gertaera kontatzen duenean, errealitatea interpretatzen ari da eta horrek badu zerikusirik literaturarekin, bietan lengoaiaren erabileraz hitz egiten ari baikara. Cercás-ek plazaratzen duen ideiarekin bat datorren erreferentziazko autorea Umberto Eco daukagu. Eco ulertzearen garrantziaz mintzatzen da *A paso de Cangrejo* lanean.

Horretan datza, azken batean, diskurtsoaren eraikuntza, errealitatearen interpretazioan. Hori dela eta, egunkari bakoitzaren diskurtsoa analizatzen dugunean ikuspuntu batera gerturatzen ari gara, errealitatea hobeto ulertzeko. Lan honek bide ematen du errealitate berera ikuspuntu ezberdinetatik gerturatzeko, baina horietara gerturatzeak ez du esan nahi ikuspegi horiek balioesten ari garenik. Errealitatearen osotasunera gerturatzea da helburua eta horretarako ezinbestekoa da zenbat eta ikuspegi gehiago edukitzea eta ikuspuntu bakoitzaren atzean dagoen testuinguru guztia ondo ulertzea. Interpretatzen ari gara eta pentsamendu interpretatibistaren arabera objektibotasunak erreferente ezberdina du, esanahi posibleen baitan neurtzen baita. Helburua esanahien aniztasun potentziala agortzea da (Zapata eta Sánchez, 2011, 77).

Diskurtsoen atzean dagoena ulertzen saiatu behar da, idazlearen eta irakurlearen (irakurle potentzialaren) lekuan jarrita. Lana gai baten inguruko ikuspuntuak ulertzean datza. Komunikazioko Graduko ikaslea naiz eta aztergaiaren baitan dauden istorioen pertsonaien azalean jartzea izango da nire helburua. *El País* egunkariko edota *PRISA* taldeko kazetari izango naiz, baita *Egin, Diario Vasco*, *Deia* eta *El Mundo*renak ere eta bakoitzaren atzean dauden komunikazio taldeko editorea ere. Lanaren une batean ala bestean aztertuko diren pieza guztien egilea izango naiz, haien lekuan jarriko bainaiz. Pedro J. Ramírez izango naiz, baina baita Melchor Miralles eta Juan Luis Cebrián ere. Beste kasu batzuetan Barrionuevo izatea egokituko zait eta beste batzuetan, estatu terrorismoko biktimaren bat. Guztien lekuan jarriko naiz eta guztiek esandakoa eta argitaratutakoa ulertzea izango da nire helburua.

3. Azterketarako aukeratutako datak eta horien justifikazioa

Gure ikerketa data 1983ko abenduaren 4tik 1998. urtera bitartean da. Segundo Mareyren bahiketatik hasita, Mikel Zabalzaren auzitik pasata, eta gerora 1987tik aurrera, GALen ekintzak amaitu ostean, abian jarri ziren prozesu judizialen datak hartu ditugu inflexio puntutzat, datozen paragrafoetan aipatzen den moduan.

Lana lehen aldiz planteatu zenean Mikel Zabalzaren auzia hartu zen ikerketaren abiapuntutzat eta hortaz, analisiaren hasiera data 1985eko azaroaren 25 ezarri zen, oraindik argitu gabeko kasu garrantzitsuenetarikoa delako eta polemika handiko gertaera izan zelako. Dena den, 1985. urteaz geroztik gertatutakoa kontuan harturik ezinbestekoa izan da denboran pare bat urte atzera egitea, zehazki GALek Segundo Marey iparraldeko hiritarra bahitu zuen egunera, 1983ko abenduaren 4a; izan ere, GAL talde terroristaren aurkako lehenengo salaketak Segundo Mareyren kasuaren harira aurkeztu ziren, beraz, Mareyren kasuaren inguruan hedabideek egindako jarraipena aztertu beharra zegoen.

Ikerketa lanaren bigarren inflexio puntutzat harturik, benetan garrantzitsuak dira aztergai modura, Zabalzaren desagertzearen lehen asteetan argitaratutako albiste eta artikuluak ikerketaren nondik norakoak azaltzen dituztelako (jarraitutako prozedura judizialak, lekukoen testigantzen kontraesanak eta aldaketak…) eta egun horietan Espainiako kongresuan zein senatuan ministroei egindako galderak eta politikari desberdinek egindako adierazpenak agertzen direlako; horien artean, garrantzi handikoak dira José Barrionuevo Ministroaren adierazpenak eta hedabideek horien inguruan egindako jarraipena.

Inflexio puntutzat hartuko den beste data bat 1987 urtea izango da, orduan izan baitzen GAL talde terroristaren ekintzak amaitu ziren urtea, eta aipatu berri dugun bezala, lehenengo salaketak abian jarri ziren unea. 1988an 104 profesionalek, intelektualek eta abokatuk salaketa jartzen dute Auzitegi Nazionalean, Jose Amedo komisarioaren eta Michel Domínguez inspektorearen aurka eta GALen operazio eta atentatuen atzean daudela leporatzen diete. Hala ikus daiteke Segundo Mareyen bahiketaren eta prozesu judizialaren kronologia jasotzen duen El Mundok 2001ean argitaraturiko erreportajean (El Mundo, 2001).

Gerora, beste inflexio puntu bat 1989 urtea izango da, orduan izango baita Lasa eta Zabalaren gorpuak aurkituko diren urtea. *El Mundo*k ondorengo tituluarekin irekiko du Lasa

eta Zabala aurkitu zuteneko eguneko egunkariko azala: "*Aparecen los cadáveres de Lasa y Zabala tras haber sido torturados y enterrados en cal viva*". Portadaren edukiak bere garrantzia izango du, eta, oraindik analisiaren atalera iritsi ez garen arren, ikus dezakegu nola *"cal viva"* hitzek gaur egungo panorama politikora ere iritsi diren. Aztergai dugun garaian argitaraturiko kazetaritza edukiak aztertzeak, hedabideen aldetik bultzatutako terminoak, kontzeptuak eta esanahiak zenbaterainoko oihartzuna izan duten ikustea ahalbidetuko du.

Lasa eta Zabalaren gorpuen aurkikuntzak beste data garrantzitsuetara eramaten gaitu, izan ere, hemendik aurrera inoiz baino irmoago eskatzen zitzaion PSOEren Gobernuari, eta batik bat, Felipe Gonzalezi, torturatuen eta hildakoen inguruan azalpenak ematea. 1991. urtean GALen parte hartu zutenen aurkako lehenengo zigorrak ezarri ziren, Amedo eta Domínguezen aurka, hain zuzen ere, eta Baltasar Garzón epaileak torturatuen eta hildakoen artean talde kriminal bat zegoela ulertzera eman zuen eta talde kriminalaren buruan ezezaguna zen goi kargu bat zegoela. Garzón epaileak "X" ezizenarekin izendatu zuen pertsona hori. Berehala prentsaren eta mugimendu sozialen sektore handi batek Felipe Gonzálezekin lotu zuen "X" hori.

Ezizenaren sustatzaile garrantzitsuenetarikoa Pedro J. Ramírez *El Mundo* egunkariko zuzendaria izan zen. Ramírez estatu terrorismoko kasuak argitzeko lanetan aritu zen kazetarietako bat izan zen eta garai horretako PSOEko buru eta Espainiako presidente zen Felipe Gonzálezen aurkako gerra mediatikoan parte hartu zuen aktore garrantzitsuenetakoa. *Diario 16* egunkarian hasi zen estatu terrorismoko ikerketa lanetan gerora ere aipatuko dugun Melchor Miralles kazetariarekin batera. *Diario 16* itxi ondoren *El Mundo* egunkaria sortu eta haren zuzendari bilakatu zen. Kazetariak idatzitako *Palabra de Director: Las memorias del periodista que nunca ha temido a la verdad* liburuan, *El Mundo*ren sorrerari eskainitako atalean González presidentearekin izan zuen gerra mediatikoaz hitz egiten du eta bertan, Gonzalez eta GAL talde terroristaren artean zegoen lotura justifikatzen du. Garai horretako gertaerak azaltzen ditu, baita egindako ikerketen bitartez ateratako ondorioak ere (Ramírez, 2021, 185 -222).

Mis Mejores 100 Cartas al Director liburuan, *El Mundo*ko zuzendari izandakoak bizitzan zehar egunkariko zuzendari izanda idatzitako zutabe batzuen errepasoa egiten du; baita Felipe Gonzalezekin izandako borroka islatzen duten zenbait testuen analisia ere.

Horregatik, GAL auziaren lehenengo epaiketaren urtea (1991. urtea) aztertu nahi dugun fenomenoarentzat inflexio puntu garrantzitsua da eta diskurtsoaren analisia egiterako garaian kontuan hartu beharrekoa, gaur egun gaiaz hitz egiterakoan erabiltzen jarraitzen diren termino eta kontzeptu askok urte horretan hedabideek eraikitako diskurtsoan baitute euren jatorria.

1991. urteak bidea urratzen du gerora 1996 eta 1998. urteen bitartean Espainiako ministro izandakoen aurkako lehenengo epaiketak eta zigorrak argitaratzen direnean sortuko den markoa eraikitzeko. Urte horietan, 1991. urtean loratutako hainbat hipotesik eta terminoek indarra hartu zuten: González eta GALen arteko lotura, GAL finantzatzeko Estatuko aurrekontuko dirua erabili izana, polizia-etxeetako torturen inguruko informazioa ezkutatu izana…

Rafael Vera eta José Barrionuevo ministroak 10 urteko kartzela zigorrera kondenatuak izan ziren; soilik 10 hilabete bete zituzten (Albin, 2019). Sententzia argitaratu zenean artikulu asko argitaratu ziren eta horietan kondenatuei ezarritako zigorraren eta prozesu judizialaren nondik norakoak komentatu ziren; baita Gonzalez presidente ohiak prozesu judizialari begira izandako jarrera ere. Oso komentatua izan zen Gonzalezek kondenatuei kartzelan sartu baino lehen emandako besarkada. Analisirako aukeratutako kazetaritza-edukietan GALen auzian parte hartu zutenen aurkako sententziaren inguruko iritzi artikuluak eta zutabeak aurki ditzakegu (Ikus, 1. eranskina). Ikerketaren amaiera data 1998. urtea izango da.

4. Iturriak eta Metodologia

4.1. Iturriak

4.1.1. El País

*El País (*1976), PRISA komunikazio taldeko kide da eta ideologikoki beti PSOErekin lotuta egon da. EGMren datuen arabera Espainiako bigarren egunkari irakurriena da (lehenengoa *Marca* kirol-egunkaria da) eta prentsa jeneralistan Espainiako egunkari irakurriena (AIMC, 2025). Egunean 700 irakurle inguru ditu. PRISA komunikazio taldearen web orriari erreparatzen badiogu ikus dezakegu, prentsaren eta komunikazioaren munduan ez ezik, entretenimenduaren eta hezkuntzaren sektorean diharduela argitaletxe bezala (Prisa, 2025).

Ildo ideologikoari dagokionez, *El País*en kode etikoak ideia orokor bat ematen digu izan dezakeen jarreraren inguruan. Bertan egunkariaren oinarrizko printzipioak jasotzen dira eta hedabide independentetzat, nazioarteko errealitatearekin konprometitutzat eta europazaletzat hartzen du bere burua. Horrez gain, pluraltasun demokratikoaren eta balio liberal eta sozialen aldeko jarrera aldarrikatzen du (*El País* Kode Etikoa, 2025.). Hori ikusita, *El País* Europako sozialdemokraziaren postulatuetatik gertu eramaten gaitu, alegia Willy Brandt aitzindari izan zuen 60ko eta 70eko hamarkada bitarteko Europako liberalismo sozialera, eta, bide batez, 70eko eta 80ko hamarkada bitartean Felipe Gonzálezek aldarrikatu zuen Espainia "modernoaren" ideiatik gertu.

Hori dela eta, *El País* egunkaria aztergai hartu dugu, garai horretako PSOEren gobernuaren aldeko postura izango zuela pentsatuz eta, beharbada, estatu terrorismoko gaiak jorratzerakoan anbiguotasun handiagoz jokatuko zuela espero genuelako.

Dena den, *El País*etik aukeratutako piezak gainetik ikusita, antzeman daiteke garai horretan, *El País*ek ere PSOEren politikekiko kritikoak ziren kazetaritza-edukiak argitaratzen zituela, gutxi baziren ere. *El País*etik eskuratutako piezen artean, Francisco Tomas y Valiente Espainiako Auzitegi Konstituzionaleko iritzi artikulua ikus dezakegu; GALen amaieraren ostean (1987. urtean), talde terrorista sortu zenetik haren ekintzak amaitu bitartean hartu ziren ekintzak kritikatzen ditu (Ikus, 2. Eranskina).

4.1.2. El Mundo[4]

Kode Etikoari erreparatuta *El Mundo* egunkaria eskuin liberaletik gertuago kokatuko litzateke, nahiz eta, historian zehar ideologia horrekin oso kontrajarrita zeuden kazetariak izan dituen bere artean; Mariano Ferrer, esaterako.

El Mundo egunkaria (1989) Unidad Editorial komunikazio taldearen parte da. Kode Etikoari erreparatzen badiogu, liberalismo klasikoa defendatzen du. Espainiako 1812ko konstituzioko balio liberalak hartzen ditu oinarritzat eta askatasuna balio nagusitzat

[4] Hasiera batean, *Diario 16* egunkariaren edukiak aztertzea zen helburua, baina Diario 16 egunkariko aleak eskuratzeko zailtasunak zirela eta, *El Mundo* izan da aukeratu den beste hedabidea. Dena den, *El Mundo* egunkariaren bizitza markatu duten bi kazetari garrantzitsuenetakoek lehenago Diario 16en parte izan zirenez, beharrezkoa da egunkari horri aipamena egitea. Azken batean, Diario 16en estatu terrorismoko kasuen inguruan argitaratutako informazio askok *El Mundo* egunkarian aurkitu zuen jarraipena.

aldarrikatzen du (*El Mundo* Kode Etikoa, 2025.). EGMen datuen arabera, prentsa jeneralistako bigarren egunkari irakurriena da, *El País*en ondoren (AIMC, 2025).

*El Mundo*ren sortzaile eta urte askoz zuzendari izan zen aurreko atalean aipatu berri dugun Pedro J. Ramírez. *El Mundo* egunkariko piezak eskuratzeko garaian baliagarriak izan dira oso, Ramírezek GALen eta estatu terrorismoaren inguruan idatzitako zutabeak jasotzen dituen *Mis 100 mejores cartas del Director* liburua. Ramírez *Diario 16*en egon zen eta gero, *El Mundo* egunkariko zuzendari bihurtu zen. Gobernu baten eta hedabide baten arteko borroka mediatiko garrantzitsuenetako baten parte izan zen, GALen auziaren harira, hain zuzen ere. Hori dela eta, *El Mundo* bezalako egunkari bat ezinbestekoa da garai horretako hedabideek estatu terrorismoen kasuen inguruan eraikitako diskurtsoa behar bezala analizatzeko eta diskurtso horren atzean zein intentzio dagoen hobeto ulertzeko.

Era berean, aipatzekoa da testuinguru horretan Melchor Miralles kazetaria; GALen auzia ikertzerakoan bizi izandakoa liburu batean jaso zuen (*Gal: La Historia que sacudió El País)* eleberri moduan idatzita eta gerora, film batean erreplikatu zuen.

El Mundo egunkariko beste kazetari garrantzitsua Ricardo Arqués izan zen. Arqués *Deia* egunkarian hasi zen estatu terrorismoko kasuen inguruan ikertzen, baina, gerora, *Diario 16* egunkariak kontaktatu zuen bere lan-taldearen parte izan zedin, ustez, *Deian,* urte jakin batzuetan, gaiari buruz hitz egitea mugatu zelako.

4.1.3. Egin

Egin Egunkaria (1977) ezker abertzalearen erreferentziazko prentsazko hedabidea izan zen 70eko eta 90eko hamarkada bitartean, itxi egin zuten arte. Egunkaria 90eko hamarkadan itxi zen ETArekin lotura zuela egotzita.

Egin egunkariaren edukia aukeratu da GALen eta estatu terrorismoko biktimen ahotsetik gertuen egon zitekeen hedabidea izan zitekeela pentsatuz. *Egin* itxita dagoenez, gerora haren jarraipena bilakatu zen *GARA/NAIZ* egunkaria dugu *Egin* egunkariaren pentsamendua eta gai honekiko izan dezakeen ikuspuntua hobeto definitzeko. *Egin* egunkariaren itxieraren oroimenez argitaraturiko erreportaje batean, Marcel Penak azaltzen du "ahotsik gabekoen ahotsa" aldarrikatzeko sortu zela *Egin*, frankismoaren garaian zentsuraren

ondorioz euren abertzaletasuna eta Euskal Herriarekiko maitasuna adierazteko aukerarik izan ez zutenen eskubidea aldarrikatzeko, hain zuzen ere (Pena, 2024).

Halaber, *Egin*en kasua interesgarria da oso, bertan lan egin zuten zenbait kazetarik Estatuaren indarkeriaren eta interbentzionismoaren biktima izan baitziren; Xabier Oleaga kazetaria, esate baterako. *Euskaldunon Egunkaria*ren aurkako operazioaren baitan beste hainbat langileekin batera atxilotua izan zen ETArekin lotura zuela egotzita, nahiz eta, urte batzuk beranduago, 2010ean, Auzitegi Nazionalak Oleaga eta haren kideak kargu guztiez absolbitu zituen (Egunkaria Aurrera, 2010).

4.1.4. El Diario Vasco

*El Diario Vasco (*1934) egunkaria *Vocento* komunikazio taldearen parte da. Estatu mailako prentsan *Vocento*k *ABC* egunkaria du hedabide nagusitzat. Era berean, Espainiako hainbat probintzietan egunkariak ditu eta bertako albisteak argitaratzen dira. Horien artean, *El Diario Vasco* dago Gipuzkoako erreferentziazko egunkari. EGMren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko egunkari irakurriena da *El Correo*-ren atzetik (AIMC, 2025), hau ere *Vocento* taldeko egunkaria. Dena den, bien arteko irakurleen diferentzia Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanle kopuruaren arteko diferentziaren ondorioa da, horregatik, *El Correo*-k *Diario Vasco*k baino irakurle gehiago ditu.

Vocento taldea 2002an sorturiko proiektua da, *Correo* taldearen eta *Prensa Española*ren arteko bat-egitetik. *Vocento* taldeak -eta haren aurrekariek- historian zehar jarrera kontserbadorea erakutsi du. *Vocento*ren egunkari nagusi *ABC* PP alderdi politikoaren jarraitzaileen erreferentziazko egunkari izan da urte askotan zehar eta PP baino ideologia kontserbadoreagoa -eta zenbait garaietan erreakzionarioagoa- zuten aukera politikoekiko gertutasuna ere erakutsi du. Francoren erregimenarekiko konplizitate handien zuen egunkarietako bat zen *ABC*, baita erregimenaren gainbehera nabariagoa zen urteetan ere. Denboraren poderioz, ildo erreakzionarioago batetik, kontserbadorismo klasiko baterantz egin du, Europako kristau-demokraziaren baliotik gertu. *Vocento* taldearen webguneari erreparatzen badiogu adierazpen askatasuna eta giza eskubideen defentsa aldarrikatzen duen komunikazio taldetzat aurkezten du bere burua (*Vocento*, 2014.).

Bestalde, esan daiteke, *Vocento* taldearen Espainiako probintzietako egunkariak joera kontserbadore horrekiko leial mantentzen direla. *El Diario Vasco*n ideologia askotariko kolaboratzaileak ikus ditzakegun arren (PSE-EEko zein PPko kideen zutabeak irakurtzeko aukera dago edota ETAren biolentzia jasan duten biktimen piezak), esan beharra dago EAJ alderdi politikoaren presentzia nabaria dela, egunkariak alderdi horretako zenbait kolaboratzaile baititu; Xabier Ezeizabarrena EAJren ordezkari Gipuzkoako Batzar Nagusietan, esate baterako; zuzenbideari buruzko zutabeak idazten ditu, baina artikuluak kargu politikoa adieraziz eta EAJren izenean sinatzen ditu.

Hala eta guztiz ere, *El Diario Vasco*ren egungo ildo ideologikoaren irudia osatu beharko bagenu Autonomien Estatua eta EAEn autogobernuaren aldeko hedabidetzat hartuko genuke. Eusko Jaurlaritzaren eta inguruko instituzioen diskurtsoaren babesle izango genuke. Instituzioekiko eta autonomien sistemarekiko konplizitatea erakusten du eta "gipuzkoarren egunkaria" litzateke.

4.1.5. Deia: gure Lurraren Deia

Deia (1979) EAJren jarraitzaileen erreferentziazko egunkaritzat hartu izan da. EAJko kide historikoen presentzia nabaria da. Horren adibide da Iñaki Anasagasti, gure ikerketa lana oinarritzen den garaian Espainiako Kongresuan EAJren ordezkari izandakoa; *Deia* egunkarian zutabe propioa du.

EAJren balio tradizionalekiko leial mantendu da egunkaria, Sabino Aranaren bizkaizaletasunarekin bat. Soilik Bizkaian argitaratzen da eta euskal nazionalismo klasikotik gertu dago.

Lehenago aipatu berri dugun Ricardo Arqués, *Deia*ko kazetari izan zen. Lehenengo *Diario 16* eta, ondoren, *El Mundo* egunkariko erreferentziazko kazetari bilakatu zen Melchor Miralleseki batera. 1987an Arquések *Diario 16* egunkariarentzat lehenengo argitalpena egin zuen, Melchor Miralleseki batera. Bertan, GALen inguruko informazio berria ematen zen (*La Hemeroteca del Buitre*, d.g.).

Arquésen heriotzaren ondoren, *Deia* egunkarian haren omenezko zenbait pieza argitaratu ziren estatu terrorismoko kasuak argitzeko lanean egindako ekarpena goraipatzen.

Marta Martín kazetariak "*En Deuda con Ricardo Arqués"* zutabea argitaratu zuen. Bertan, Arquések "gure demokraziaren pasarte ilunenetako bat argitu" zuela aitortzen zuen (Martín, 2024).

4.2. Metodologia: nola egin dugu hedabideen azterketa?

Aurrean dugun lanaren bezalako iker-galderak zerbaiten esanahia ulertzea helburu duenean, ezinbestekotzat gertatzen da metodologia kualitatiborantz jotzea. Gure lanean Aztertutako bost egunkarik kontzeptu orokor baten gainean (estatu terrorismoa) eraiki duten diskurtsoa(k) interpretatzea da helburu nagusia eta horien zergatia ulertzea; diskurtsoa bultzatu duen horri forma ematea. Horregatik, diskurtsoaren analisia egin dugu, hautatutako kontzeptuak guk aurretik emandako esanahien arabera kodetuz (Ikus, 1. eranskina) eta metodologia kualitatiboa erabiliz.

Hautatutako hedabideen piezetan aztertuko diren kontzeptuen atzean testuinguru sakona eta konplexua dago eta ezin daiteke gertakarien bitartez soilik azaldu. Kontzeptuak gizarte fenomeno baten interpretazioaren ondorioak baino ez dira. Bakoitzak estatu terrorismoaren gaia interpretatzeko modu bat islatzen du. Azken batean, kontzeptu horietako bakoitzaren atzean gizarte fenomeno baten aurkako erreakzioa dago, zerbait adierazi nahi izateko intentzioa, eta horretarako lengoaia erabiltzen da. Lengoaiaren erabilera horren atzean balio sozialak, ideologikoak, politikoak, morala, etika eta gatazka eta borroka baten testuingurua dago, bananduta dagoen gizartearen isla.

Lehenago aurreratu dugu alderdi emozionalak eta afektiboak ere parte hartzen dutela kontzeptu horien esanahiaren atzean; emozioek uste baino eragin handiagoa dute ideien eraketan. Hitzen erabilerak, horien arteko loturak, irudiek, eta horiek eragiten duten erreakzioa, norberaren kontzientzia eta emozioak egituratzen dituen sare neuronala osatzen dute (Castells, 2009, 193). Hori dela eta, gizakiok jasotzen eta barneratzen ditugun terminoak eta kontzeptuak karga emozionala dute eta ezin daitezke errealitateren analisitik baztertu. Castellsen hitzak oinarri hartuta "(...) errealitatea irudien eraikuntza materiala da; mundu fisikoan gertatzen dena norberaren esperientziarekin eta bizipenekin nahasten da" (Castells, 2009, 193 - 194).

Estatu terrorismoaz, gerra zikinaz, edo memoria kolektiboaz hitz egiten dugunean, GALen biktimen mina dago atzean: sufrimendua, ezjakintasuna, amorrua... Metodologia kualitatiboa jarraitzen duen ikertzailearentzat ezin daiteke oinarri hori albo batera utzi eta gertakarien analisira mugatu, horien izaera egokitzen dizkiogun balioen araberakoa baita (Zapata-Barrero eta Sánchez-Montijano, 2011, 42).

Estatu terrorismoaren inguruan argitaratu diren kazetaritza eduki guztien atzean interpretazioa dago; tentsioz beteriko garaiaren kontakizuna da. Albiste arrunt batetik iritzi-artikulu batera, dena interpretazioz josia dago, errealitatea ezin baita soilik bere horretan kontatu, interpretazioa giza naturarekin bat dator (Zapata-Barrero eta Sánchez-Montijano, 2011, 42). Interpretazioa erreakzio instintiboa da eta errealitatea eraikitzea ahalbidetzen digu.

Estatu terrorismoaz idatzitako eduki guztia mila interpretazioren erakusleihoa da. Mareyren kasutik abiatuta 1998. urte ingurura arte hedabideek estatu terrorismoko kasuen inguruan informazioa ematerakoan izandako bilakaera aztertzeak idazlearen lekuan jartzea eskatzen du; ez, idazten ari denari arrazoia ematea edo bere jarrera justifikatzea, idatzi duen hori zergatik eta zerk bultzatuta egin duen aztertzea baizik. Metodologia kualitatiboa oinarri duen ikertzaileak pertsonengandik eta haien interpretazioengandik iristen da errealitatea aztertzera, ez da zuzenean iristen (Zapata-Barrero eta Sánchez-Montijano, 2011, 43).

Interpretazio horiek, dena den, ez dira soilik pertsonok subjektiboki gaien inguruan dugun iritzira mugatzen, interpretazioa haratago doa. Innerarityk hedabideek errealitatea beraren eraikuntza markatzen dutela dioenean, interpretazioaz eta errealitatearen eraikuntzaz hitz egiten ari da. *Agenda Setting* delako fenomenoaren inguruan mintzatzen denean, errealitatearen interpretazioa eraikitzeko moduaz ari da (Innerarity, 2018). Hedabideek, hein handi batean, eskematizatu egiten dituzte kontuan hartu beharreko gertakariak, alegia "posible denaren testuingurua sortzen dute" (Innerarity, 2018).

Aztergai dugun ikerketa kasura aplikatuta, galderak ondorengoak dira: zergatik hitz egin zen 80eko eta 90eko hamarkadan estatu terrorismoaz? Nola kontatu zen gertatzen ari zena? Zergatik kontatu zen horrela? Zergatik daude horrenbeste desberdintasun hedabide batzuen arteko diskurtsoetan? Eta galdera horiei erantzuteko modu desberdinak aurki ditzakegu (biolentzia handiko testuingurua zelako, tentsio politikoa nabaria zelako, garai horretako Gobernuarekiko konfiantza falta handiagotzen ari zelako, borroka mediatiko

batekin batera talka politiko eta ideologikoa gertatzen ari zelako, etab.), baina erantzun guztien gainetik beti bat gailenduko da: 80ko eta 90eko hamarkadan estatu terrorismoaren gaiak iritzi publikoa astindu zuen, batik bat, zenbait hedabideek hala nahi izan zutelako.

Innerarityk aipatzen duen subjektibotasunean hedabideen interes politikoek eta ideologikoek hartzen dute parte. GALen inguruko eta estatu terrorismoaren inguruko informazioa argitaratzean, *El* Mundoren lehenbiziko interesa PSOEren gobernuaren eta garai horretako Espainiako Presidente Felipe Gonzálezen aurka egitea zen, alegia, giro politikoa hankaz gora jartzea.

Egunkariko zuzendari izandako Pedro J. Ramírezen eta Jose María Aznar 90eko hamarkadan PPko buruzagi eta Espainiako Presidente izandakoaren arteko loturen inguruan informazio asko argitaratu da. Ramírezen idatzietan eta argitaraturiko obretan nabaria da GALen eta estatu terrorismoko krimenen inguruan egia argitzearen nahi horretan aurkari politikotzat hartzen zuen pertsona boteretik kentzea helburu zuela; izan ere, bere artikuluetan bidaltzen dituen mezuak oso zuzenak dira: *González contra "El Mundo"; González se escribe con equis; A la cárcel… de papel…* (Ramírez, 2005).

Hori gutxi balitz, 1996an PPk bozen gehiengo absolutuarekin irabazi zuen, GALen auzian PSOEren gobernuko ministroen aurkako epaiketak hasi zirenean, hain zuzen ere. Hauteskunde horiek PPk irabazi izana garaiko Espainiako biztanleriaren amorruaren seinale da, hedabideek eraikitako errealitatearen aurrean agerturiko erreakzio zuzena. Innerarityk hedabideek errealitatea eraikitzeko duten gaitasunaz hitz egiten duenean, horixe bera adierazi nahi du. Gizakiok hedabideengandik jasotzen dugunaren arabera osatzen dugu gai baten inguruko iritzia eta, horren arabera, erabakiak hartzen ditugu bizitzako esparruetan: politikan, kulturan, ekonomian eta, batzuetan, eguneroko bizitzako jardueretan.

Hedabide bakoitzaren testuingurura gerturatzeak piezek transmititu nahi dutena ulertzeko aukera ematen du, interpretazioaren interpretazioa egiteko (Zapata-Barrero eta Sánchez-Montijano, 2011, 56). Piezen analisia egiteko beharrezkoa da idazlearen lekuan jartzea. Testuingurua norberaren interpretazioen erreferentzia markoa da. Lan osoan zehar jaso dugun informazioa baliagarria zaigu ikergaia testuingurura egokitzeko. Beharrezkoa da oso, piezak analizatzerako garaian ikerketa datak kontuan izatea, gertakari garrantzitsuak eta horien inguruan kontatu zenetik abiatzea, testu bakoitzaren atzean dagoena hobeto ulertu ahal

izateko. Halaber, ikuspuntu kontextualista horren baitan, beharrezkoa da hedabide bakoitzaren inguruan jasotako informazioa kontuan izatea (ildo ideologikoa, komunikazio taldea, kazetari esanguratsuak, historia…). Pieza bakoitza testuinguruan kokatu beharko dugu, hedabideek adierazi nahi izan dutenaren analisi eta interpretazio egokia egin ahal izateko.

Faktore horiek kontuan hartuta, hedabideen aukeraketak bide eman du Cassanyk planteatzen duen modura, hedabideen diskurtsoari esanahi bat ematen saiatzeko (Cassany, 2006, 21-22). Irakurtzeak ez du soilik hitzak bata bestearen ondoan jartzea eskatzen, baizik eta barne-hausnarketa eta sakontasun lana egitea, hitzen eta esaldien sustraietara joatea, eta, horretarako, ezinbestekoa da -beste hainbat ezaugarriren artean- hitzak nondik esaten diren eta norengana zuzenduta dauden jakitea, alegia, testuinguruan kokatzea (Cassany, 2006, 23-25).

Gradu Amaierako Lanaren analisia, aurretik egindako analisi batetik abiatzen da. Hilabeteetan zehar, *El País, El Mundo* eta *Egin* egunkarien diskurtsoa aztertu zen, Zabalzaren bahiketatik (1985eko azaroa), 1998. urtera bitartera argitaratutako piezak erreferentziatzat hartuta.

Pieza horien atzean zegoena aztertzeko hainbat kontzeptu giltzarri hartu ziren abiapuntutzat. Gradu Amaierako Lanaren helburuen baitan, horietako zenbait aldatu egin behar izan ditugu eta, aztertu diren beste piezetatik ateratako esanahiek beste kontzeptu giltzarri batzuk gehitzera eraman gaituzte. Horrez gain, egunkari gehiago aztertu direnez, kontzeptu berriak ere agertu dira.

Guztira 18 kontzeptu kodetu dira (Ikus, 1. Eranskina) eta guztira 114 kazetaritza pieza (*El País* egunkaritik 18, *El Mundo* egunkaritik, 12, *Egin* egunkaritik, 30, *El Diario Vasco* egunkaritik, 39, eta *Deia* egunkaritik 15). Kodetze lan hori egin ahal izateko Atlas.ti programa erabili dugu. Egunkari bakoitzaren piezak multzokatu ditugu eta aurretik hautatutako kontzeptuak kodetu ondoren, kontzeptu bakoitzak egunkari bakoitzean izan duen sustraitze maila aztertu eta neurtu dugu diskurtsoaren analisia egin ahal izateko.

Ariketa hori egiterakoan, ezinbestekoa da kontzeptuei esanahi bat ematea (Cassany, 2006, 21-22). Horretarako, esaldi eta hitz bakoitzaren muinera joan behar dugu eta testuingurua analisia beraren parte izan behar du: testuinguruak rol garrantzitsua jokatzen du kodetze lanean. Atlas.ti-k kodetzerako garaian egiten duen lanak ez luke zentzurik izango

aurretik guk aztertutako edukiaren baitan hautatutako esaldiek zein hitzek testuinguru zehatz batean kokatu izan ez bagenitu.

Testuak aztertzerakoan bilatutako esanahiak ez dira hitzen definizio solteak. Guk geuk aztertzerako garaian erabaki dugu hitz gako bakoitzari eman nahi genion esanahia, eta esanahi horiek testuinguru eta aurrekari zehatzen baitan daude (Ikus, 1. Eranskina).

Analisi kualitatiboak jasotako informazioa eta datuak laburtzea eta bertatik ondorio bat ateratzea eskatzen du. Jasotako informazio zehatza eta kuantifikatua, ondorio batera eraman behar gaitu, informazio zehatza abstraktu bihurtzera. Zapatak ondo dioen bezala, ikertzaile kuantitatiboarekin alderatuta, ikertzaile kualitatiboak laburtzeko gaitasuna du (Zapata eta Sánchez, 2011, 75).

Kodetzeak edo informazioa kategoria baten baitan sartzeak informazio kantitatea gutxitzea eskatzen du, baina informazioak duen muina galdu gabe. Informazioa kategorizatzea informazioa klasifikatzean eta egituratzean datza eta abstraktuagoak diren ezagutzak erabili (Zapata eta Sánchez, 2011, 75-76). Aukeratutako kontzeptuak testuinguruaren inguruko ezagutzarekin erlazionatu dugu, kodetzea errazteko.

Testuingurua ez da soilik testuen analisia egin baino lehen presente egon; testuingurua ez da izan analisirako premisa edo analisiaren aurretiko azterketa. Testuingurua bera analisian zehar egon da, eta zenbait unetan testuan ageri ziren esaldi eta datuak hobeto ulertzeko testuingurura jo behar izan dugu berriro. Testuinguruak hiztegi lana egin du lanaren fase honetan. Askotan, lengoaia gertatzen ari den errealitateari inplizituki erreferentzia egiteko erabiltzen da, beraz, garai zehatz batean bizi izan ez den pertsonarentzat zaila gerta daiteke aurretiko garaiko norbaitek idatzitakoa ehuneko ehunean ulertzea. 80ko eta 90eko hamarkadako testuinguru soziopolitikoaren inguruan aztertzeak aukera eman du kode berriak aurkitzeko eta, baita ere, dagoeneko jasota genituen esanahiak kodetzeko.

5. Analisia egunkariz egunkari

5.1. *El País*en diskurtsoa

*El País*en diskurtsoa "anbiguotasuna" hitzaren baitan laburbiltzen da. Erabilitako lengoaiari erreparatuz, *El País*eko piezetan garrantzi handia ematen zaio estatu terrorismoko kasuetan murgildurik egon zitezkeen aktore politikoen errugabetasun presuntzioari. Vera edo Barrionuevo ministroez hitz egiterakoan ohikoa da ondorengo esaldiak ikustea: "*presuntamente financiaron los GAL*"; "*acusados por presuntamente utilizar fondos reservados para la financiación de los GAL*".

Estatu terrorismoko kasuetan akusatuak izan zirenen errugabetasun presuntzioak ez du berebiziko garrantzirik lan honetan planteatu dugun markoari begira, errugabetasun presuntzio terminoa ez baitugu akusatuen ikuspuntutik planteatu, biktima izandakoen ikuspuntutik baizik. Dena den, estatu terrorismoko kasuen baitan akusatuenganako izandako trataerak bide ematen du hedabideek biktimekiko izandako jarrera eta haien egoeraren inguruan eraikitako diskurtsoa hobeto ulertzeko.

Balorazio modura, nahiz eta lanaren ondorioetan gehiago sakonduko dugun, *El País*ek argitaratutako piezetan estatu terrorismoko kasuetan murgildurik zeuden aktore politikoen ardura azpimarratzerako garaian errezelo handia nabari daiteke. Halaber, estatu terrorismoko biktimen testigantzen egiazkotasuna zalantzan jartzen ez den arren, deigarria da, albisteetan bereziki, alegia, informaziozko testuetan, ez dela biktimez hitz egiten. Delituaren kronologia egiten da, hau da, gertatutakoa aurkezten da: torturak, galdeketak, gorpuen autopsia… Baina ez da biktima hitza erabiltzen.

5.1.1. Mareyren bahiketa "akats" bat da, kasu isolatua

Segundo Mareyren bahiketaren harira argitaratutako informazioan gertaeren deskribapena egiten da. Ez da euskaldunaren errugabetasuna zalantzan jartzen, baina gertaeren kontakizunari erreparatzen badiogu, ez dirudi injustizia bati buruz hitz egiten ari denik. Esanguratsua da, gainera, Marey espainiar nazionalitateko hiritar izanik, *El País*en albisteek ez dutela hitz egiten Espainiako instituzioek kasuan izan zezaketen erantzukizunaz, soilik Frantziako polizien eta autoritateen lanaz hitz egiten dute. Zeharka Espainiako poliziaren eta Frantziako poliziaren arteko "kolaborazio" bati buruz hitz egiten da. Bahiketa,

eskuin-muturreko organizazio bati egozten zaio, baina bahiketa arrunta izango balitz bezala azaltzen da kasua. Bahiketaren testuinguru politikoa ez da aintzat hartzen.

Ezaugarri hori esanguratsua da, *El País*ek, konnotazio politikoa duen bahiketa bati buruz hitz egin baino gehiago, akats bati buruz hitz egiten duelako. Enfasi handia egiten du "akats" hitzan. Biktimaren senideen adierazpenak sartzen direnean ere "akats" hitzari egiten zaio erreferentzia eta ez, pertsona errugabe baten bahiketak berak dakarren arazoari. Bahituarekiko sentsibilitate falta antzeman daiteke. Euskal Herrian gertatzen ari dena Estatu mailako errealitatetik urrun geratuko balitz bezala hitz egiten dela dirudi. Ez zaigu bahituaren izenaren berri ematen lehenengo paragrafoaren erdialdiera iristen garen arte (Ikus, *EL PAÍS* - 017).

Mareyren kasuan senideen adierazpenetan ondorengoak irakur ditzakegu: "*Los familiares de Marey no dudan de que fue un error"* (Ikus, *EL PAÍS* - 016, pieza). *El País*ek Mareyren bahiketaren berri eman nahi du, baina testuinguru politiko eta soziala ahaztu gabe. ETAren biolenziak gogor jotzen du, astero hildakoak daude eta gizarteak erantzunak nahi ditu. ETAren biolentziaren kaltetu nagusia polizia da eta, ondorioz, indar polizialen artean zerbait egiteko beharra antzematen da. Tesi hori gertu dago *El País*ek erakutsi nahi duen errealitatetik, aztergai ditugun piezetan ez baita Mareyren bahiketan poliziaren inplikazioa aipatzen edo oso zeharka aipatzen da. Espainiako Gobernua edo polizia sartuta badago ere, *El País*en diskurtsoaren helburua akats bat izan dela frogatzea dirudi. Oraindik ez dago argi zer gertatu den, nork bahitu du Marey, baina "akats" hitzak beste edozein hitzak baino indar gehiago hartzen du. "Akats" hitzan horrenbesteko enfasi egiteak fokua desbideratzeko modua dirudi; albistearen muina biktimaren eta senideen egoeran jarri beharrean, delituaren izaeraren inguruko balorazioa aurreratzeko nahia antzematen da.

Egungo begiekin aztertuta, eta *El País*ek estatu terrorismoari buruzko informazioa argitaratzerakoan izandako jarreraren jakitun egonda, Segundo Mareyren bahiketaren atzean nor zegoen jakin zezakeela edo intuizioren bat izan zezakeela dirudi. *El País*en diskurtsoan egoeraren larritasuna leuntzeko intentzioa antzematen da; *El País*entzat ETAren aldetik ez datorren biolentziak ez du merezi ETAren aldetik datorrena bezainbesteko atentzioa. Terrorismoaren aurkako borroka bor-bor dago, indar polizialen atsekabea nabaria da, hortaz, Mareyren bahiketa bezalako ekintzak salbuespenak baino ez dira, kasu isolatu baten aurrean baino ez gaude. *El País*entzat demokrazia eta errugabetasun presuntzioa babesten dituen zuzenbide estatu batean horrelako kasuak ez-ohikoak dira.

5.1.2. Errugabetasun presuntzioa versus erruduntasun presuntzioa

Trataera aldetik, antzeko diskurtsoa antzeman dezakegu Zabalzaren kasuaren inguruko albisteei erreparatuta. Deigarria da *El País*ek garai horretako barne arazoetarako Jose Barrionuevoren hitzei pisu handia ematen diela. Zabalzaren desagertzearen osteko albisteei erreparatuta, esanguratsua da *El País*ek Barrionuevok esandako eta azpimarratutako esaldiak; hala nola, Zabalzak ETArekin zuen harremana estua zela aditzera ematen zuten adierazpenak jasotzen dituzte: *Barrionuevo ya declaró ayer que los "fuertes indicios" de que Zabaltza colaboraba con ETA -hecho que originó la detención- se corroboraron con testimonios de otros detenidos, como la propia novia de Zabaltza, Idoia Ayerbe*. Beste pertsona baten adierazpenak diren arren, edozein irakurlerentzat deigarria gerta daiteke, albiste horretan gakoa ez dela Zabalzaren desagertzea, Zabalzak ETArekin izan zezakeen harremana baizik. *El País*ek ez du gakoa pertsona baten desagertzean jartzen, baizik eta pertsona horrek talde terrorista batekin eduki zezakeen harremanean.

Zuzenean Zabalza erruduntzat hartzen ez den arren, inplizituki Zabalzaren aurkako adierazpenak sartzen dira albisteetan; Zabalzaren errugabetasun presuntzioa zalantzan jartzen saiatzen diren adierazpenak agertzen dira. Horrek ondorengo galderen aurrean jar gaitzake: zein da albistearen muina *El País*entzat? Estatuaren jarreraren inguruan egia argitzea ala biktimaren errugabetasuna zalantzan jartzea?

Gertakariak ez dira ezkutatzen, baina irakurketen irakurketa egin ondoren estatu terrorismoko kasuak aurkezteko bi ikuspuntu desberdin antzeman daitezke: gertakariak aurkeztea, baina horiek dakartzaten larritasunean gehiegi sakondu gabe ala gertakariak aurkeztea eta horiek zuzenbide estatu batean duten eragina azpimarratzea eta salatzea, prozesu judizial baten falta azpimarratzen eta horien irregulartasuna nabarmentzen.

*El País*en diskurtsoa lehenengo ikuspuntutik gertuago dago. Ez ditu erantzunak bilatzen, soilik hiritarrek dakitena aurkezten du eta Estatuko ordezkarien adierazpenak lehen lerroan jartzen ditu. Dena den, azpimarratu beharra dago Zabalzaren kasuaren inguruan hitz egiten duten piezetan informazioaren aurkezpen horretatik aldentzen diren testuak ere aurki ditzakegula. Analizatutako piezen artean badira Zabalzaren desagertzearen aurka antolatu ziren manifestazioak jasotzen dituzten testuak eta esanguratsua da Zabalzaren senideen adierazpenak jasotzen dituztela; horien artean, aipagarria da Zabalzaren bikotekide Idoia Aierberen adierazpenak jasotzen dituen albiste bat: “Intxaurrondon hil zuten; hil arte torturatu zuten eta bertan torturatuak izan ginen gainerakoak bizirik atera gara”. Adierazpenak berak

estatu terrorismoko biktima baten testigantza jasotzen du eta Estatuko indarrek gauzatutako praktika bat; tortura, hain zuzen ere. Horregatik, anbiguotasuna da nabari *El País*en diskurtsoan. Zenbaitetan gertaeren deskribapen soila aurki dezakegu eta zaila da identifikatzea egunkariak bidali nahi duen mezua.

Anbiguotasuna, adierazpen instituzionalek testuetan duten ikusgarritasunean nabari daiteke. Berriro Zabalza kasuaren inguruko piezak analizatzen baditugu, ikus daiteke albisteen tituluek ministro baten edota Gobernuko kide baten adierazpenak jasotzen dituztela eta adierazpen horietan biktimaren errugabetasun presuntzioa zalantzan jartzen dela, inplizituki bada ere. Errugabetasun presuntzio kontzeptuarekin anbiguotasunez jokatzen du *El País*ek, zenbaitetan errugabetasun presuntzioaz baino gehiago, erruduntasun presuntzioaz hitz egiten baitu. Kode-Dokumentuak taulari erreparatzen badiogu ikusiko dugu *El País*en piezetan erruduntasun presuntzioa gehien errepikatzen den kontzeptuen artean dagoela. Aldiberekotasun handia dago erruduntasun presuntzioa terminoaren eta *El País*en piezen artean (Ikus, 3. Eranskina).

*El País*ek Estatuko goi karguen errugabetasun presuntzioaz bai hitz egiten duela sarritan. Francisco Tomás y Valientek GALen epaiketaren inguruan idatzitako iritzi artikuluan auzipetuen errugabetasun presuntzioa errespetatzearen garrantziaz hitz egiten du (Ikus, *EL PAÍS* - 015 pieza). Errugabetasun presuntzioaren aldeko defentsa sutsu hori ez da ikusten estatu terrorismoaren biktima izandako pertsonei buruz hitz egiten denean, nahiz eta estatu terrorismoko kasuen bidegabekeria salatzen den.

Álvaro Baeza autoreak 1996an argitaratutako *Guerra Sucia* liburuan *El País*en anbiguotasuna azpimarratzen du eta egunkariak estatu terrorismoko kasuen baitan diskurtsoaren joera instituzionala hartu izana salatzen du. Baezaren esanetan, *El País*en albisteak Estatuko Aldizkari Ofizialak argitaraturiko iruzkinak dirudite. Halaber, autoreak garai horretan PRISA taldearen zuzendari zen Jesús de Polancok PSOErekin zuen lotura kritikatzen du eta PRISA taldea Italiako *Cosa Nostra*rekin konparatzen du:

> "En estos momentos en la prensa solo cuentan los tres grandes. Prisa Nostra que ha estado siempre al lado de los intereses del PSOE por las necesarias compensaciones económicas, como si hubiera sido el «**BOEPaís**»" (Baeza, 1996, 161-162).

Analisi horren baitan, deigarria da oso estatu terrorismoko kasuen inguruko gertaerak aurkezten direnean biktimei aplikatutako prozedura irregularrak antzeman daitezkeela.

Zenbaitetan, gainera, *El País*ek berak azaltzen ditu gertaera horiek eta legearen aurkako praktikak ikus daitezke. Dena den, batzuetan ez da azpimarratzen praktika horien nondik norakoak eta fokua beste ezaugarri batzuetan jartzen da; estatu terrorismoko biktimak ETArekin izan zezakeen harremana azaltzen duten adierazpenek presentzia handia dute. Zenbaitetan *El País*en piezek gertaeren kronika baino ez dirudite, eta beste zenbaitetan Estatuaren praktiken justifikaziotik gertu daude. Fokua estatu terrorismoko biktimen egoeran jarri baino, Estatuak aurrera eramandako prozeduran jartzen da. Gobernuko goi karguen adierazpenak ugariak dira eta denetan indar polizialen lana justifikatzen agertzen dira. Aldiz, biktimen egoera azaltzeko baliagarriak diren adierazpenak edota biktimen senideen adierazpenak ez dira horrenbeste agertzen.

Pertsona baten desagertzea gertatu berri denean *El País*ek pertsona horrek ETArekin izan zezakeen lotura azaltzen duten datuak edota adierazpenak ematean biktimaren errugabetasun presuntzioa zalantzan jartzen ari dela dirudi. Inplizituki bada ere, errugabetasun presuntzioa kontzeptuari kontrajartzen zaion "erruduntasun presuntzioa"-ren aurrean gaudela pentsatzera eraman gaitzake eta, bide batez, zuzenbide estatu baten oinarrizko printzipioetako bat urratzera. *El País*ek fokua biktimaren profilean jartzen du, sarritan biktimak aurretik egindako ekintzetan eta biktima beraren ingurukoengan, senide eta lagunengan. Badirudi, batzuetan biktimari gertatu izandakoa argitzea baino, *El País*en helburua biktimak ETArekin izan zezakeen lotura argitzea dela.

Bide batez, kodetze lanetik egindako analisiaren ondoren *El País*en piezetatik ezaugarri interesgarriak eta esanguratsuak atera daitezke. *El País*en inguruan eraikitako marko politikori erreparatzen badiogu, pentsa genezake *El País*en publiko objektiboa PSOEren Gobernuaren aldeko batez besteko biztanle baten profilaren baitan aurki zitekeela.

Hala eta guztiz ere, *El País*en piezen artean zuzendariari idatzitako gutunak ikus ditzakegu; horietan irakurleek Estatuaren jokatzeko modua kritikatzen dute. "El Caso Zabaltza" tituluarekin izendatutako zuzendariari idatzitako gutunean (Ikus, *EL PAÍS - 008 pieza*), inplizituki Barrionuevo ministroaren berekoikeria salatzen da eta gogor kritikatzen da Gobernuak ETAren biolentziaren aurkako borrokan duen jarrera. Estatu terrorismoko biktimei erruduntasun presuntzioa aplikatzen ari zaiela salatzen da: "*(...) ver terroristas o amigos de terroristas en cualquier ciudadano que se anima a dudar de alguna versión (aunque sea de la Guardia Civil)*" (*El País*, 1985; Ikus, *EL PAÍS - 008 pieza*).

Testu horretan *El País*eko irakurle batek PSOEren Gobernuaren aurkako jarrera kritikoa erakusten du. Hori da *El País*en diskurtsoaren anbiguotasun adierazgarriena, irakurleen eta egunkaria beraren diskurtsoaren artean kontraesana dagoelako. *El País* egunkariak defendatzen dituen interes politikoen eta bere irakurleekiko fideltasunaren arteko dileman dago. Hori dela eta, zenbaitetan Estatuaren jarrera kritikatzen duten piezak aurki ditzakegu eta beste batzuetan jarrera horiek berberak justifikatu nahian diruditen piezen aurrean egon gaitezke, edota bi diskurtsoak aldi berean nahasten dituen testuak ere ikus ditzakegu. Zuzenbide estatu kontzeptuak estatu terrorismo kontzeptuaren ia presentzia bera hartzen du *El País*en piezetan, nire analisiaren arabera eta kode-dokumentuak taulan ikusgarri den moduan. Zuzenbide estatu kontzeptua, legearen inperioaren ideiarekin lotuta, *El País*en diskurtsoan antzematen da, Estatuaren jarrera justifikatzen duten ministroen adierazpenak gehitzen baitira. Hori ez ezik, terrorismoaren aurkako borroka kontzeptua presente dago *El País*en piezetan gainerako hedabideetako piezekin konparatuta. Barrionuevo ministroaren adierazpen asko ikus ditzakegu eta indar polizialek hartutako erabakiak ETAren biolentziaren aurkako borrokaren markoan justifikatzen dira.

Esanguratsua da ere *El País*en "X gizona" kontzeptua agertzen den pieza bakarra garai horretako Ezker Batuko buru zen Julio Anguitak eginiko adierazpen batzuen harira argitaratuko albiste batean izatea. Albiste hori, garai horretako giro politikoaren isla da. Felipe Gonzálezen agintea bukatzear zegoen garaian, PSOEren eta Ezker Batuko tentsioa handitu egin zen. Ezker Batuko buru zen Anguitak PSOErekin akordioetara iristearen aurka agertu zen eta ustelkeria kasuetan zein estatu terrorismoko kasuetan murgildurik zegoen Gobernu bati babesa ematea ezker ideologikoko balioekiko desleiala izatea zela adierazten zuen. Hori dela eta, nahiz eta PSOErekin akordioetara ez iristeak eskuineko PP alderdiari boterera iristeko aukera handiagoa eman, Anguitak aldarrikatzen zuen Ezker Batua González eta PSOEtik aldendu behar zela. Testuinguru horretan, PSOEk eta, bereziki, Gonzálezek Anguita ezkerraren botoa banatu nahi izateaz akusatu zuten eta PPrekin PSOE burutik kentzeko aliantza sortzen ari zela zioen konspirazioa zabaldu zuen. Teoria horri erdaraz *"la pinza"* ezizenarekin ezagutzera eman zen (Ordóñez, 2016).

Kontzeptu koadroetan ageri den bezala "X gizona" (Ikus, 1. Eranskina) terminoa eremu mediatikoan Gonzálezek GALen antolaketan zuen erantzukizuna seinalatzeko Pedro J. Ramírezek bultzatutako ezizena da. Ezker Batuko eta PSOEren arteko gerra erabatekoa den testuinguru horretan, *El País*en intentzioa Anguitaren adierazpen horiek argitaratzerakoan "*la pinza"* deritzon teoria elikatzea da. Ezaugarri hau *El País* eta PSOEren arteko lotura

nabarmentzeko balio du, "X gizona" terminoa *El País*en pieza batekin bat datorren albiste bakarra Gonzálezen etsai politiko batek egindako adierazpenak jasotzen dituen kazetaritza-testua baita. Gainerako piezetan oso zaila da Gonzálezek GAL auzian izandako inplikazioa ulertzera ematen duten esanahiak.

*El País*en diskurtsoan errealitatearen zati bat ezkutatzen da: Gonzálezen eta aldaketaren Gobernu sozialistarengan jada konfiantzarik ez duen gizartearen sektorearena. *El País*ek albo batera uzten du estatu terrorismoa edo ez dio beste gaiei ematen dien lehentasuna ematen. Torturak, bahiketak, hilketak… Estatuaren aldetik badatoz, pasadizozko gertaera bihurtzen dira *El País*entzat; guztiak ETArekin bukatzeko testuinguruan gertatutako "akatsak" baino ez dira eta, hortaz, ezin daiteke Espainiako demokrazia eta zuzenbide estatuaren egonkortasuna gertaera isolatu horiengatik zalantzan jarri, egonkortasunaren aurka egiten dutenak ETA eta Estatuaren instituzioen aurkako biolentzia legitimatzen dutenak baitira.

5.2. *El Mundo*ren diskurtsoa

"PSOEk burututako Gobernuaren ahuleziak azpimarratzeko nahia" da *El Mundo*ren diskurtsoa definitzeko balio duen esaldia. Testuinguruak berriro garrantzi handia hartzen du diskurtso honen analisian. Hipotesi modura -baina hori balioesteko ebidentzia dezente erabiliz- aipatu dugu *El Mundo* egunkariak estatu terrorismoko gaiarekiko erakusten zuen interesa helburu bakar bati erantzuten zioela: Felipe Gonzálezen Gobernuarekin bukatzea. Atlas.ti bidez egindako kodetze prozesuak ez du soilik hipotesi hori berresten; beste ondorio batera eramaten gaitu: garrantzitsua zen PSOEren ahuleziak seinalatzea eta azaleratze horrek *El Mundo* egunkariaren sinadura eduki behar zuen eta, batez ere, Pedro J. Ramírezen sinadura.

5.2.1. El Mundo eta Gonzálezen arteko borroka mediatikoa

Lehen aipatu berri dugu bidegabeko eralgitze kontzeptua gehitzearen arrazoia *El Mundo* egunkariak PSOEren ustelkeria kasuekiko izan zuen interesa dela. Ondorio modura, esan daiteke *El Mundo*ren diskurtsoan ez dela estatu terrorismoko kasuekiko sumintasuna nabaritzen edo, ez behintzat kolektibotik edo iritzi publikotik eratorritako sumintasuna. Lengoaian nabaritzen den sumintasuna beste faktore baten isla da: PSOEren Gobernuarekiko nekea. *El Mundo*ren diskurtsoaren atzean zaila da biktimen ahotsa identifikatzea. Biktimen ahotsaz baino, PSOEz nazkatuta dagoen gizarteko sektore baten ahotsaz ari gara. *El Mundo* ez da biktimen sufrimenduaren bozeramaile, jadanik akats gehiegi izan dituen eta erabateko

krisian dagoen Gobernu batez nazkatuta dagoen publiko baten ordezkari baizik. *El Mundo*ri estatu terrorismoko kasuak azaleratzea interesatzen zaio, horien atzean PSOE baldin badago, helburua ez baita estatu terrorismoa bera salatzea edota kasu horien atzean dagoena argitzea, PSOEk hori ahalbidetu duela erakustea baizik. Baina, zerk eramaten gaitu baieztapen hori egitera?

El Mundo egunkariko piezak banan banan aztertzen baditugu, ikus dezakegu ia denetan PSOEren ustelkeria kasuei erreferentziaren bat egiten zaiela. Dokumentuak-kontzeptuak taulari erreparatzen badiogu (Ikus 3. Eranskina), *El Mundo*n bidegabeko eralgitze kontzeptua agertzen da gehien. Piezei erreparatzen badiegu, estatu terrorismoko kasuei erreferentzia egiten dieten testuen ondoan, zenbaitetan PSOEren ustelkeria kasu bati erreferentzia egiten dioen albisteren bat aurki dezakegu. *EL MUNDO* 003 piezan, Zabalza kasuari erreferentzia egiten dioen albistearen ondoan, Roldán kasuari buruzko albiste bat aurki dezakegu.

Estatu terrorismoko kasuak PSOEren eskandalu guztiak gogorarazteko eta Gobernuarekin bukatzeko aitzakia dirudite. Ezaugarri hori iritzi artikuluetan nabari daiteke batik bat. Batez ere, Pedro J. Ramírezek eta Melchor Mirallesek idatzitako artikuluetan.

Horren adierazgarri da GALen kideen aurkako lehenengo zigorrak ezarri ziren egunean Pedro J Ramírezek Felipe González akusatuz idatzitako artikulua: "*González se escribe con X*". Bertan ez dira soilik GALen inguruko nondik norakoak kritikatzen; Pedro J. Ramírezek PSOEren Gobernuko ustelkeria kasu eta eskandalu guztien errepasoa egiten du. Gainera, Felipe Gonzálezek eta PSOEren Gobernuak lehenengo Diario 16 egunkariari eta, ondoren, *El Mundo*ri egindako "jazarpena" salatzen du. Diskurtsoaren nolabaiteko pertsonifikazioa dagoela esan daiteke. Ez ginateke guztiz oker ibiliko Pedro J. Ramírezek bere burua biktimatzat hartzen duela esango bagenu. Pedro J. Ramírezek idatzitako piezetan bereziki nartzisismo zantzuak antzeman daitezke; egoera salatu baino bere lanaren balioa aldarrikatzen ari dela dirudi. PSOEren Gobernua kolokan dago eta Pedro J. Ramírezek argi utzi nahi du nori dagokion garaipen hori: *El Mundo* egunkariari eta haren zuzendari den Pedro J. Ramírez kazetari "ausartari".

*El Mundo*ko piezetan ez da horrenbesteko interesa jartzen biktimen sufrimenduan. Haien adierazpenak oso gutxi agertzen dira, helburua delitu horien erruduna bilatzea da. Erruduna PSOE eta, batik bat, Felipe González da. Aztertutako piezen artean iritzi artikuluei erreparatzen badiegu, kazetaritza testuak baino garai horretan Parlamentuan irakur zitezkeen diskurtsoak dirudite. Pedro J. Ramírezek eta Melchor Mirallesek idatzitako zenbait testuk

garaiko PSOEren aurkako oposizioak erabil zitzakeen argudioz josita daude; PSOEren eskandalu guztiak azaleratzen dira eta krisian dagoen Estatu baten egoera aditzera ematen dute.

5.2.2. El Mundo eta PP

*El Mundo*ko zuzendariaren eta garaiko PPko buruzagi Jose María Aznarren arteko harremana ez da ezerezetik sortutako teoria. *El Mundo* egunkariko kode etikoetan PPren balioekin bat zetozen printzipioak jasotzen dira, liberalismo klasiko batetik gertu Espainiako 1812ko konstituzioko balioak oinarri hartuta (*El Mundo* Kode Etikoa, 2025.). Pedro J. Ramírezen eta Aznarren arteko harreman estua ere azaldu genuen. Piezen analisiarekin *El Mundo*ren interes politikoen inguruan eginiko hipotesiak berretsi egin dira eta agerian utzi da egunkariaren interes nagusia PSOE gobernutik kentzea zela. Hala eta guztiz ere, komeni da Atlas.ti bidez egin dugun analisitik ateratako ondorio eta interpretazio horiek ebidentzia gehiagorekin berrestea.

*El Mundo*ko zuzendariaren eta gerora Espainiako presidente izango zen Jose María Aznarren arteko harremanaz hitz egiten dugunean beharrezkoa da hedabidea nondik finantzatzen den aztertzea. *El Mundo*ren finantziazioaren atzean Unidad Editorial argitaletxea dagoela aipatu dugu. Ezaugarri hau ezin daiteke edonola aztertu ezta ezerezean geratu ere.

Unidad Editorialek FAES fundazioaren zenbait ekimenen inguruan informazioa jaso eta horietako zenbaitetan parte hartu du. FAES fundazioa Jose María Aznarrek burututako eta PPren interesak defendatzen dituen erakundea da. Beste hainbat ekintzen artean, FAES fundazioak hitzaldiak antolatzen ditu eta horietan PPko buruzagi edo kide izandakoek hartzen dute parte. Pedro J. Ramírezen eta Jose María Aznarren arteko harreman estuaren seinale dugu duela lau urte, jada Pedro J. Ramírez *El Español* egunkariko zuzendari zenean, Aznarri FAES fundazioko bulegoan eginiko elkarrizketa; elkarrizketak ondorengo titulua jasotzen du: "*Aznar, 25 años después: «España fue una máquina de prosperidad y el PP un referente mundial»*." (El Español, 2021). Elkarrizketa Mariano Rajoyk buruturiko PPren gobernutik PSOEk eta Unidas Podemosek buruturiko gobernura bitarteko aldaketa gertatu berri zenean egin zen. FAES fundazioaren webguneari erreparatzen badiogu, argi eta garbi uzten du Jose María Aznarrek sorturiko erakundea dela, eta nahiz eta, irabazi-asmorik gabeko erakundea dela aldarrikatzen den pentsamendu liberal erreformista elikatzea helburu duen fundaziotzat hartzen du bere burua (FAES Fundazioa, d.g.).

Hori ez ezik, *El Mundo* egunkariak PPrekin duen lotura argiago ikusteko Unidad Editorialek argitaraturiko zenbait artikuluri errepara diezaiekegu. Unidad Editorialen webgunean FAES fundazioak antolaturiko hitzaldien kronikak jasotzen dira eta horien artean *El Mundo*ko zuzendari ezberdinek Jose María Aznarrekin izandako topaketak eta elkarrizketak ikus ditzakegu (Unidad Editorial, 2019).

Baezak *Gerra Sucia* liburuan *El Mundo*ren eta PPren arteko harreman hori ere salatu zuen. Liburuan autoreak garai horretako *El Mundo*ko zuzendari zen Ramírezen rola kritikatzen du, baita PPrekiko zuen gertutasuna ere. Liburuan, lan honetan aipatu dugun ideiari egiten dio erreferentzia: *El Mundo*ren eta Pedro J. Ramírezen helburu bakarra estatu terrorismoko kasuez baliatuta Felipe González boteretik kentzea zen. Baezaren ustez, 90eko hamarkadan PP boterera iristea Pedro J. Ramírezen garaipena izan zen, PSOEren aurka zuen borroka pertsonalak bere fruituak izan baitzituen:

> "*El Mundo* recogiendo siempre lo que dejan los demás y sirviendo siempre los propios intereses de su director. Comprobando ahora con el PP ya en el poder de la Moncloa, como favor recibido por Pedro J. en todos estos años de acoso y derribo contra Felipe González" (Baeza, 1996, 162).

Era berean, Baezak Ramírez PSOEren galeraren sustatzaile nagusi nahi izatea azpimarratzen du eta lehenago aipatu berri dugun berekoikeriari egiten dio erreferentzia:

> "(...) no hay foto, sarao, fiesta, cenáculo, baile, procesión, reunión, presentación, misa, rueda de prensa, bautizo, boda, entierro, o consejo de ministros del PP, que detrás no esté el prolífico Pedro J. Ramírez que de siempre, como niño listo opusdeiano saca «tajo y partido de todas partes» y mucho más ahora con el PP en la moncloa. Y es que Pedro J. quiere ser como dios y estar en todas partes (...) siempre mandando y pontificando lo que dice su periódico" (Baeza, 1996, 162-163).

Baezaren testigantza baliagarria zaigu aztertu ditugun piezetatik egin dugun interpretazioa eta atera ditugun ondorioak beste ebidentziekin berresteko. Gehitu berri dugun aipu berri horretan azaleratu egiten da orain arte Pedro J. Ramirezen eta *El Mundo*ren diskurtsoan identifikatu dugun nartzisismoa. *El Mundo*ren diskurtsoan Gonzálezekin bukatu duen hedabidea dela goraipatzeko beharra ikusten da etengabe: nork azaleratu ditu PSOEren Gobernuaren atzean zeuden ustelkeria eta bidegabekeri guztiak? *El Mundo*k eta Pedro J. Ramírezek. Ez da kasualitatea, aztertu ditugun hiru hedabideetatik presio politikoa kontzeptua gehien agertu zaiguna *El Mundo*n izatea. *González se escribe con X* tituluko piezan, ikus

dezakegu nola Pedro J. Ramírezek kritikatu egiten du PSOEngandik *El Mundo*k jasan dituen presioak estatu terrorismoko zein horrekin erlazionatuta egon zitezkeen ustelkeria kasuak ez argitaratzeko. Besteak beste, ondorengoa bezalako espresioak erabiltzen ditu: "*Puesto que se nos ha negado la indagación directa de la verdad…"* edota "*No deja de ser sarcasmo que quienes más han tratado de condicionar la labor de la justicia (...) tengan el descaro de hacer juicios paralelos a quienes simplemente nos negamos a mirar para otro lado o a fingir estupidez supina*" (Ikus, *EL MUNDO*010).

*El Mundo*k bidali nahi duen mezua argia dirudi: gure lana egiten uzten ez diguten arren, hemen gaude gu Espainia Gobernu honetatik salbatzeko. Lehenengo pertsonaren erabilera nabaria da, pertsonalismoz markaturiko diskurtso baten aurrean gaude. Hedabide propioaren lana goraipatzeko joera nabaria da. *El Mundo*ren diskurtsoa garai horretako PSOEren Gobernuaz nazkatuta dagoen Espainiako sektore batena da, aldaketa bat eskatzen duen sektore batena eta, sektore hori, bat dator PPren diskurtsoarekin. *El Mundo* Espainiara aldaketa ekarriko duen hedabidea bezala aurkezten da. Zuzendariaren lengoaian "gu" eta "haiek" dikotomia nabaritzen da. Alde batetik "gu", *El Mundo* litzateke, demokraziaren eta balio liberalen ordezkari den hedabidea, Gobernu ustel eta ez-demokratiko honen ahuleziak eta bidegabekeriak argitaratzeaz arduratzen dena. Bestetik, "haiek", González eta PSOE, egia kontatzea debekatzen duten pertsona boteretsu eta maltzur horiek.

Dokumentuak-kontzeptuak taulari (Ikus, 3. Eranskina) berriro erreparatzen badiogu, *El Mundo*ko piezekin dezente kointziditzen duten beste kontzeptu bat Independentzia Judizial - Botere Banaketa kontzeptua da. PSOE aginduan egon denean ETArekin loturaren bat eduki zezaken edonoren aurka burututako prozesu irregularrak salatzen dira aztergai ditugun piezen artean eta botere exekutiboak botere judizialean eskua sartu izanaren larritasuna azpimarratzen da: "*El delincuente Barrionuevo era aún el héroe del día y nadie podía soñar que llegaría la hora en que cabría hacer tan majestuoso corte de mangas a la razón de Estado*" (Ikus, *EL MUNDO* 009 pieza). Dena den, esaldi horietan ere antzeman daiteke *El Mundo*k botere judizialaren independentziaren aurkako eraso hori PSOEk burutu duela azpimarratu nahi duela. PSOEk zuzenbide estatuaren oinarrizko printzipioekin bukatu nahi du eta hor dago E*l Mundo* -eta Pedro J. Ramírez-, PSOEren bidegabekeria "argitara emateko". Pedro J. Ramírez bere burua eta *El Mundo* egunkaria zuzenbide estatuaren salbatzailetzat aurkeztu nahi ditu.

5.2.3. El Mundo/Diario 16 eta Ricardo Arqués

Pedro J. Ramírez ez ezik, *El Mundo*ren kasuan berebiziko garrantzia hartzen du Ricardo Arqués kazetariak ere. Arquésen irudia garrantzitsua da estatu terrorismoaren aurkako borroka mediatikoan eta, hedabideen arteko konparaketetan murgildu gabe, bere bilakaera esanguratsua da estatu terrorismoaren inguruko diskurtso mediatikoaren ikuspuntutik, kazetariaren ibilbidea erabat lotuta baitago garai horietan bizi izan ziren tentsio politikoekin eta hedabideek arazo beraren aurrean erakusten zuten jarrerarekin. Arqués Espainian estatu terrorismoko kasuen inguruan informazio gehien argitaratu zuen kazetarietako bat izan zen eta estatu terrorismoaren inguruko ikerketarengatik markatutako ibilbidea izan zuen.

Dena den, Arquésen lana berezia da aztergai dugun lan honetan, azterketarako erabili diren bi hedabideetan lan egin zuelako: *Deia* eta *El Mundo*. Gainera, *Deia*tik *El Mundo*ra (lehenengo *Diario 16*etik pasa ondoren) egindako aldaketa, estatu terrorismoko kasuen inguruan ikertzeko zuen interesak bultzatuta gertatu zen. Arquésen irudia ez dago horren lotuta PSOEren aurkako borroka mediatikoarekin, baizik eta estatu terrorismoaren atzean ikertzeko interesarekin. Dena den, aurrerago sakonduko dugu honen inguruan *Deia* egunkariaren analisian murgiltzen garenean eta Arquésen bilakaera profesionalaz arituko gara.

5.2.4. El Mundo Eginen itxieraren aurrean: prentsa askatasuna

Aipatu berri dugun *El Mundo* egunkariak zuen Euskal Herriko konexioarekin lotuta, esanguratsuak dira oso aztertu dugun *Egin* egunkariaren itxieraren inguruan argitaratu ziren kazetaritza testuak. *Egin* egunkariaren itxiera ikerketaren inflexio puntutzat jarri ez dugun arren, ezinbestekoa da, hartu dugun ikerketa garaiari erreparatuta eta, gerora egingo dugun hedabideen konparaketari dagokionez, prozesuari aipamena egitea. *Egin* egunkariaren itxiera ez da inflexio puntutzat hartu, estatu terrorismoaren analisiaren baitan, hedabide baten itxierak beste testuinguru zehatzago batera eramaten gaituelako (prentsa askatasuna, adierazpen askatasuna, demokraziaren defentsa hedabideen testuinguruan…). *Egin*en itxierak badu garrantzia Gradu Amaierako Lan honetan aztertzen ari garen gai nagusiari dagokionez (Hedabideen Trataera Estatu Terrorismoko Kasuen Inguruan), baina auziak berak eta haren nondik norakoek Gradu Amaierako Lan oso bat egiteko bide emango lukete.

Dena den, esan bezala, konparaketa egite aldera eta hedabideen diskurtsoez ari garenez, interesgarria da ikustea aztertu ditugunen artean zein ikuspuntu adierazi zuten ideologikoki

erabat desberdina zen egunkari baten itxieraz, zer leku eman zitzaion egunkarietan *Egin*en itxierari, zein garrantzi eman zitzaion eta, auziaren inguruan zein iritzi eta hausnarketa plazaratu ziren, ETAren eta estatu terrorismoaren talkaren testuinguruan. Beharbada, estatu terrorismoaren diskurtsoaren azterketaren baitan, *Egin*en itxiera ez da, bere horretan, inflexio puntua, baina aztertzen ari garen hedabideen arteko konparaketari dagokionez eta prentsa askatasunaren ikuspuntutik bada aurrekari interesgarria. Bide ematen du lan honek dituen bi aztergaiak uztartzeko: estatu terrorismoaren trataera eta hedabideak. Hortaz, *Egin*en itxiera, gainerako kasuak bezala, hedabideen diskurtsoa sakonago aztertzeko aitzaki bilakatzen da.

*El Mundo*k sentsibilitate handia erakusten du; egunkari baten itxierak demokraziarentzat eta prentsa askatasunarentzat ekar dezakeen kaltearen ikuspegitik salatzen du egoera. Kode-dokumentuak taulak berretsi egiten du *Egin*en egoerarekiko sentsibilitate hori, prentsa-askatasuna kontzeptua asko agertzen baita *El Mundo*n eta hori *Egin*en itxieraren inguruko piezetatik eratorria da.

Egunkariak argi utzi nahi du ez datorrela bat ez *Egin*en ideologiarekin ezta hori adierazteko erabiltzen dituen metodoekin (ETAren hildakoen aurkako seinalamenduak, ETAren biktimekiko mespretxua, biolentzia sustatzen duten mezu subliminalak…), baina horrek ez duela justifikatzen, zuzenbide estatua oinarri duen demokrazia batean egunkari bat irakurtzea. Garzón epaileak hartutako erabakia errezeloz hartzen den arren, *Egin*en itxieraren harira argitaratutako testuetan ikus daiteke, *El Mundo*k *Egin*en eta *Herri Batasunaren* eta ETAren arteko harremanen errepasoa egiten duela (Ikus, *El Mundo* - 12). *Egin*en itxieraren egunean *El Mundo*k argitaratutako alean, Javier Ortíz kazetariaren zutabea dago. Zutabea *El Mundo*k itxieraren aurrean duen ikuspegia ulertzeko baliagarria zaigu.

Ortiz-ek Garzón epailearen aurkako kritika egiten du eta bere profesionaltasuna zalantzan jartzen du: "*He visto a ese juez cambiar de opinión demasiadas veces en asuntos de demasiada trascendencia pública*". Kritika hori Garzón epaileak GALen aurkako auzietan izan duen rolari egiten dio erreferentzia eta iraganean PSOEren Gobernuaren kide izanari. Ortiz-ek prentsa askatasunaren aldeko aldarrikapena egiten du: "*De momento, lo único que se es que han cerrado un diario, y eso me inquieta (...) Y me inquieta precisamente porque no estoy de acuerdo con la línea editorial de Egin*" (*El Mundo*, 1998). *El Mundo*ren tesia ondorengoa litzateke: Badakigu *Egin*ek ezker abertzalearekin lotura handia duela eta, beharbada, ETArekin lotura izango du, baina horrek ez du justifikatzen egunkari baten itxiera.

5.3. *Egin*en diskurtsoa

*Egin*en diskurtsoaren oinarria definitu beharko bagenu ondorengo esaldia izango litzateke aproposena: *Euskal Herriko mugimendu sozialak zapaltzea helburu duen sistema ustel baten bidegabekeriak azaleratzea*. *Egin*en diskurtsoan estatu terrorismoko biktimen egoera argitzeko benetako borondatea nabari daiteke, baina ez horien biktima izaera aitortze aldera. Euren ildo ideologikoarekin bat ez datorren sistema baten bidegabekeriak azaleratzea da helburua; etsaia edo arerioa seinalatzea helburu duen diskurtso baten aurrean gaude. Arerio hori ez litzateke, *El Mundo*ren kasuan bezala, PSOE izango, edo ez behintzat PSOE soilik, baizik eta Espainiar Estatua eta 78ko erregimenaren zilegitasuna aitortzen duen eta hura zalantzan jartzen ez duen alderdi politiko eta instituzio oro; baita, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta Autonomien Estatutua defendatzen duten alderdi politikoak ere.

5.3.1. "Zapalduen" ahotsa

Lehenago aipatu dugu *Egin*en diskurtsoa ezker abertzaletik gertu egon zela 80ko eta 90eko hamarkadetan eta Euskal Herriko independentziaren aldeko iritzia erakusten zuela. Hortaz, *Egin*en diskurtsoan ez da horrenbeste bilatzen euren biktimatzat hartzen dituztenen eskubideak eta egia aldarrikatzea, baizik eta euskal herritarrak erasotzen eta zapaltzen dituen Estatu eta sistema ustel baten bidegabekeriak salatzea. Salaketa horren baitan ez dago soilik PSOE, baita PP eta Gobernura iristeko aukera duen edozein alderdi politiko. *Egin*en diskurtsoa 78ko erregimenaren eta Autonomien Estatutuaren aurkako manifestua da. Ezker abertzalearen diskurtsoari leial, *Egin*entzat Euskal Herria askatzeko bide bakarra independentzia da.

Aztertutako pieza guztiak gainetik begiratuta, berehala antzeman daiteke Estatuaren bidegabekeriak eta ustelkeriak azaleratzeko nahia. Kasu honetan, ordea, ez da soilik Gobernu edo alderdi politiko jakin baten ustelkeria salatzea bilatzen, helburua Gobernutik haratago joatea da, sistema politiko eta instituzional osoa salatu nahi da. *Egin*ek estatu terrorismoko kasu guztiei ematen die leku (etxeen arakatzea, poliziaren kargak, torturak, bahiketak, manifestazioen aurkako errepresioa, zentsura…). Etxeen arakatzeaz esplizituki hitz egiten duen egunkari bakarra da. Kode-dokumentuak taulari begira arakatze kontzeptua horrenbeste agertzen ez den arren, analisitik antzemandakoaren arabera, kontzeptua presente dago *Egin*ek atxiloketen inguruan jasotzen dituen pieza guztietan zehar, atxiloketa gehienen atzean propietateen arakatzeak gertatzen zirelako. Gainera, *Egin*ek kasuak aurkezteko moduan

erabiltzen duen ordena kronologikoan enfasi handia jartzen du biktimen edo atxilotuen egoeran, gertaeraren kontakizuna haien begietatik azalduta dirudi. Estatu terrorismoko biktima ez dago bigarren lerro batean, lehenengoan baizik, *Egin*ek gorrotatzen duen sistema ustelaren biktimak baitira.

Berebiziko interesa dago Espainiako politikaren eta, bereziki, Terrorismoaren aurkako borrokaren alde iluna erakusteko. Zenbait piezetan, sistemaren ustelkeria noraino iristen den salatu nahian, *Egin*ek estatu terrorismoak Euskal Herria ez diren beste lurraldeetan duen eragina erakusten du; Andaluzian, CNT sindikatuko kide baten aurka GAL erreibindikatuz egindako pintaketen berri ematen da, esaterako (Ikus, *EGIN* - 018 pieza). Sistema ustel eta antidemokratiko honek ahulenak zapaltzen dituela salatzea bilatzen du *Egin*ek eta, zapalduek *Egin*en aurkitzen dute euren sufrimenduaren berri emateko hedabide.

5.3.2. Estatu Terrorismoaren aurka ETAren biolentzia legitimatu

Hedabideak eskaintzen zuen "Hemeroteka" atalean, egunean Euskal Herriko zein Estatuko egunkariek argitaratutako iritzi artikuluak eta editorialak jasotzen ziren. Nahiz eta pieza horiek *Egin*ek aztertutako piezak ez diren, egunkariaren diskurtsoaren inguruko arrasto bat ematen digute. Esanguratsua da, *Egin*ek egunkari bakoitzetik hautatutako iritzi artikulu eta editorialek, gehienetan GALi edo estatu terrorismoko kasuei erreferentzia egiten dietela. Pieza horiek, batik bat *Egin*etik eskuratutako paperezko piezak, analisirako ere erabili izan dira. *Egin*ek egiten duen testu horien aukeraketan intentzionalitate bat dago, beste egunkari batzuek *Egin*ek esaten duena ere -nahiz eta ez duten *Egin*ek bezain tinko eta gogor adierazten- argitaratzen dutela erakusteko.

Hori aipatuta, eta kode-dokumentuak taulari erreparatuta (Ikus, 3. eranskina), *Egin*en diskurtsoan gehienetan dagoen kontzeptua estatu terrorismoa da. Kontzeptua ez da inplizituki erabiltzen, esplizituki baizik, Estatuaren biolentzia seinalatu egiten da.

Egin egunkaria izan zen, eta aztertutako piezetan argi ikusten da, *Batallón Vasco Español* talde terroristaren amaiera eta GALen sorreraren hasiera bitartean abian jarritako *Plan ZEN (Zona Especial Norte)* izeneko Estatuaren estrategiaz modu zuzenean hitz egiten zuen hedabide bakarra. Aztertu diren zenbait piezetan esplizituki plan honi erreferentzia egiten zaio[5].

[5] 1989an jada, *C.E.D.R.I.*-k (*Comité de Encuesta sobre las Violaciones de Derechos Humanos en Europa*), *EL GAL: El terrorismo de Estado en la Europa de las democracias* Plan ZENen sorrera eta helburuak aipatzen zituen.

Hori ez ezik, aztertutako piezen artean Ajuria Enea Ituna bere osotasunean jasotzen duen pieza ikus dezakegu. Ajuriaenea Ituna argitaratzearen arrazoiaren atzean ez dago itun hori babesteko helbururik edota jarrera instituzionala hartzeko asmorik. Helburua, hain zuzen ere, itun horrek estatu terrorismoko biktimak alde batera utzi zituela azpimarratzea zen. Ajuriaenea Ituneko sinatzaileak garai horretan Eusko Legebiltzarraren parte ziren alderdi politiko guztiak izan ziren, Herri Batasuna izan ezik. Herri Batasuna, ezker abertzaleko alderdi politiko nagusia izanik, *Egin* egunkariko ildo ideologikotik gertuen zegoen alderdi politikoa zen. Gainera, *Egin* egunkariko zenbait zuzendari Herri Batasuneko kide izan ziren.

Ajuriaenea Itunean Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroak bizi duten biolentzia egoeratik ateratzeko asmoaz hitz egiten da. Testu erabat instituzionala da eta *Egin*ek ez du egunkari gisa testuan bertan ageri denaz gain ezer gehiago gehitzen. Testutik azpimarratzekoa da biolentziaz hitz egiten denean soilik alde bateko biolentziaz hitz egiten dela. Euskadik bizi duen "biolentzia giroaz" hitz egiten denean, soilik ETAren biolentziaz hitz egiten da. *Egin*en ildo ideologikoa identifikatzen dakien edonori, Ajuriaenea Intunaren atzean dagoen testuingurua jakin gabe, arraroa gerta dakioke estatu terrorismoko kasuez inongo erreparorik gabe hitz egin duen hedabide batek bat batean soilik ETAren biolentziaz hitz egiten duen testu instituzional bat bere osotasunean argitaratzea eta haren atal nagusiak azpimarratzea.

Ajuriaenea Ituna argitaratzeak ez du instituzionalismoz markaturiko diskurtso bat islatzen. *Egin*ek instituzioek estatu terrorismoko biktimekiko duten mespretxua erakutsi nahi du. Pieza horretatik esanguratsuena ez da ETAren biolentziaren aurkako diskurtsoa, baizik eta Estatuko biolentzia sartu ez izana. Pieza hori argitaratuz *Egin*ek ez du itunean kontatzen dena erakutsi nahi, kontatzen ez dena baizik. Lengoaia aztertzea ez da soilik espresuki adierazten dena azpimarratzea, baizik eta ezkutuan dagoena nabarmentzea. *Egin,* Espainiar sistemaren gabeziak eta ustelkeria erakutsi nahi duenez, Ajuriaenea Ituna argitaratzen du Estatuak estatu terrorismoko biktimenganako duen mespretxu hori adierazteko. *Egin*ek pieza hori argitaratzen duenean ondorengoa adierazi nahi dio bere irakurleei: ETAz ari dira hitz egiten, baina beraiek erabiltzen duten biolentziari buruz hitzik ere ez.

Plana "Danborenea Dotrina" ezizenarekin ere ezagutzen zen (garai hartako Ricardo Danborenea Euskadiko Alderdi Sozialistaren agintari Ricardo Damboreneari erreferentzia eginez). Plana Adolfo Suárez presidente ohiaren gertuko funtzionarioek jarri zuten martxan, eta, 1983an, Felipe Gonzálezek Espainiako Segurtasun Zerbitzuei plana errealitate bihurtzea eskatu zien (C.E.D.R.I., 1989, 81).

*Egin*eko batez besteko irakurleak ez du ETAren biolentziari aurre egiteko testu instituzional bat ikusten, estatu terrorismoko biktimak alde batera uzten dituen testu instituzionala baizik. Horregatik, *Egin*en pieza horretan diskurtsoa ez dago hitzen bitartez kontatzen denagatik definituta, baizik eta agertzen ez denagatik. Ajuriaenea itunean ETAren biolentzia aipatzen den bakoitzean aukera bat da *Egin*entzat bere irakurleei ondorengoa galdetzeko: eta beste aldeko biolentzia zer? *Egin*ek argi utzi nahi du testu instituzional horren atzean zerbait falta dela, ez dela gizarte osoaren irudia ageri.

*Egin*en albisteetan fokua estatu terrorismoaren biktiman jartzen da. Haien senideen testigantzek hartzen dute leku gehien testuan zehar eta, hori dela eta, estatu terrorismo kontzeptuak hartzen du leku gehien. Goi karguen edota ministroen adierazpenek ez dute presentzia handirik *Egin*etik eskuratutako piezetan eta, agertzen diren gutxi horietan, adierazpen soilak dira; ezin antzeman Estatuaren prozedura justifikatzeko asmoa antzeman. Testu horretan, *Egin*en helburua bertan ageri ez dena seinalatzea da, baina horretarako ez du behar falta dena azpimarratzea, nahikoa du Ajuriaenea Ituna bere osotasunean argitaratzearekin, gerora, irakurleek euren ondorioak ateratzeko.

Aztertu ditugun *Egin*en piezak ikusi besterik ez da egin behar, *Egin*en diskurtsoan Estatuaren jarrera salatzeko asmoa dagoela ondorioztatzeko. Azpimarratzekoa da biktimen adierazpenak eransten dituztenean adierazpen horietan gehienetan transmititzen den mezua itxaropen faltarena dela, amorruarena, ezer egiterik ez duen kolektibo baten sentimendua. Bestetik, ikus daiteke Espainiako justiziaren aldetik estatu terrorismoko kasuak argitzeko interes falta eta erritmo motela salatzen dela. Lasa eta Zabalaren gorpuen aurkikuntza azaltzen duen albistean (Ikus *EGIN* 005 pieza), ondorengo esaldia aurki dezakegu: “Gorpu horiek Lasa eta Zabalarenak izan zitekeenaren susmoak, berriz, duela hilabete baino ez ziren hasi, Fiskaltzak eta Auzitegi Nazionalak euren lana koordinatzen hasi zirenean”. Esaldi horren atzean egia argitzeko aurrera eramandako prozesuen geldotasuna salatu nahi da. Pieza argitaratu zenean Lasa eta Zabala 10 urte zeramaten desagertuta eta ordura arte ez zen ikerketa lanik egin euren gorpuak aurkitzeko. Hori da, hain zuzen ere, lehenago aipatzen genuen sistemaren gabeziak seinalatu nahi izatearen adierazleetako bat. Esaldi horren bitartez, *Egin*ek estatu terrorismoko biktimek bigarren mailako biktimatzat hartzen direla salatu nahi du: Sistemak biktimak atzean uzten ditu, sistemarentzat biktima bakarrak ETArenak baitira, hala antzeman daiteke Ajuriaenea Itunean eta biolentziaren aurka aurkeztu diren ekimen politikoetan.

*Egin*ek Espainiar Estatuarentzat Euskal Herrian dagoen biolentzia norabide bakarrekoa dela salatzen du. Estatuarentzat biolentzia bakarra ETA da, hori da demokraziari, gizarte zibilaren eta bizikidetzaren aurkako biolentzia bakarra eta zuzenbide estatuaren eta Trantsizioaren izpiritua erasotzen du. Hori dela eta, *Egin*en kritika ez da soilik Estatuaren instituzioen aurka; inplizituki bada ere, 78 erregimena legitimatzen duten hedabideen aurkako diskurtsoa plazaratzen ari da. Egunkariak beste hedabideek aipatzen ez duten errealitateaz hitz egiten duela erakutsi nahi du. *Egin*entzat Estatuak eta erregimen ustel honek euskal herritarren aurka erabiltzen duen biolentzia ezkutatu nahi du eta sistema honi zilegitasuna aitortzen dioten hedabideak horren konplize dira.

*Egin*entzat biolentzia hori ezkutatu nahi izatearen atzean ezker abertzalea ahultzeko estrategia politikoa dago; 78ko erregimenaren instituzio eta alderdi politiko nagusiak eta sistema legitimatzen duten hedabideak estrategia politiko horren parte dira. Estatuaren boterea eta hedabideen eragina ezker abertzale iraultzailearen aurka egiteko estrategia dira. Planteamendu horretatik abiatuta, *Egin*ek Euskal Herriko zein Estatuko beste lurraldeetako mugimendu iraultzaileen aurka erabilitako biolentziaren eta zentsuraren berri ematen du. *Egin*en Estatuak gizarte mugimendu iraultzaileen aurka martxan jarritako estrategiak nagusi dira, baita gizarte mugimendu horiekin lotura izan zezaketen norbanakoen aurka egindakoak ere.

Inplizituki egunkariak sistema ustel eta antidemokratikoaren aurka egitera deitzen du. *Egin*en diskurtsoak jarrera iraultzailea aurkezten du, zapaltzen ari denaren aurka borrokatzeko edozein bide erabiltzera.

Gertaerak aurkezteko moduak eta Euskal Herritik haratago gertatzen denaz hitz egiteak Estatu zapaltzaile eta gizarte zapaldu baten arteko talka defendatzen duen tesia berrindartzen du, irakurleari Estatu zapaltzaile horri aurre egiteko beharra iradokitzen zaio, haren aurka egiteko biolentzia erabiliz beharrezkoa bada.

Ezker abertzalearen diskurtsoari zilegitasuna aitortzen dioen hedabidea denez, Herri Batasuneko buruek eta ordezkariek egindako adierazpenak dira nagusi: arazoa ez da alderdi edo Gobernu zehatza, arazoa sistema bera da, eta sistema horren aurka agertzen den bakarra ezker abertzalea eta ETA dira. *Egin*en aleetako albiste gehienek Estatuak mugimendu iraultzaile zein abertzaleen aurka egindako muntai polizialak jasotzen dituzte eta estatu terrorismoaren krudelkeriaz hitz egiten dute, xehetasun guztien berri emanez.

Estatuaren zilegitasunik gabeko indarkeria horretatik abiatuta, *Egin*entzat 78ko erregimena ez da demokratikoa eta harekin bukatu beharra dago. Hiritarrak zapaltzen dituen erregimen ustel eta ez-demokratiko honi erantzuteko bidea biolentzia dela ondorioztatzen du, Estatuak inpunitate osoz jokatzen baitu euskal herritarron aurka. ETAren biolentziaren justifikazio inplizitua dakar *Egin*en diskurtsoak.

5.4. *El Diario Vascoren* diskurtsoa

*El Diario Vasco*ren piezetan jarrera instituzional batetik hurbil dagoela hauteman daiteke. Dena den, jarrera instituzional hori ez legoke estatu terrorismoaren justifikaziotik gertu. Estatu terrorismoko kasuen analisia dago *El Diario Vasco*ren diskurtsoan eta, gainera, gertakarien kontakizunean biktimen lekukotza ageri da. Aztertutako piezetan biktimen zenbait adierazpen irakur daitezke eta askotan albistearen izenburutzat erabiltzen dira. Hautu horren atzean biktimei lekua emateko keinuren bat antzeman daiteke.

5.4.1. Mareyren kasuarekiko enpatia

Mareyren kasuan maiz jasotzen dute biktimen lekukotza eta hendaiarraren errugabetasun presuntzioari erreferentzia egiten diote. Aukeratutako senideen adierazpenetan "akats" hitzari erreparatu beharrean, Mareyren "lotura politiko ezari" egiten diote erreferentzia. Are gehiago, esaldien formulazioak izpiritu baikorra transmititzen du eta esperantzara iradokitzen duten esaldiak irakur daitezke: "*Los familiares y amigos de Marey están convencidos de que será liberado, por la ausencia de vinculación política del hendayés"* (Ikus, *DV* - 5, pieza). *El Diario Vasco*k sufritzen ari denarekiko enpatia erakusten du. Irakurlearen hausnarketa Mareyren albistea irakurri ondoren honakoa izango litzateke: ez dakit nor den gizon hau, ezta ETArekin lotura duen ala ez, baina familia dauka eta berarengatik sufritzen ari dira. Sufritzen ari denaren humanizazioa bilatzen du egunkariak: pertsona bat da ez "terrorista" edo "ustezko terrorista". Mareyren giza izaera eta inguratzen duten senideena bahiketaren atzean dagoen testuinguru sozial eta politikoari gailentzen zaio.

Garai horretan ETAren biolentzia handia zen eta hedabideetan leku handia hartzen zuen. Hala antzeman daiteke *El Diario Vasco*ren piezetan. ETAren atentatu batek eta estatu terrorismoko kasu batek bat egiten dutenean, ETAren biolentziari leku gehiago ematen zaio Estatuaren biolentziari baino (Ikus, *DV* - 02 pieza).

Mareyren bahiketaren berri izan zen egunetan argitaratutako *El Diario Vasco*ren alean garbi ikusten da desberdintasuna. Marey bahitua jarraitzen zuen egunetan zehar ETAren biolentziak jarraitzen zuen. Tentsio testuinguru hori erabat antzematen da *El Diario Vasco*ren aleetan. Mareyren bahiketa ikertzen ari zen egun berberetan, Errenteriako Pablo Garraza García taxista hil zuen ETAk. Albiste horrek egun horietako *El Diario Vasco*ren azalaren zatirik handiena hartzen zuen eta, Mareyren kasuak, berriz, zati txiki bat, begi bistan antzemanezina (Ikus, *DV* - 01 pieza).

ETAren eta estatu terrorismoaren biolentziak bat egiten zutenean hedabideen jarrera, orokorrean, ETAren atentatuen berri ematera mugatzen zen eta oso leku gutxi eskaintzen zitzaion estatu terrorismoari edo, zenbait kasutan, ia ezer ez. Mareyren kasuan, esaterako, trataera ezin daiteke erabat sakontzat hartu Marey askatu zuten eguneko alera iristen garen arte. Marey aske geratu zeneko *El Diario Vasco*ren azalak bahiketaren inguruko eta bahitu dutenen inguruko informazioa eskaintzen du. Tituluan agertzen ez bada ere, *Grupos Antiterroristas de Liberación* taldea aipatzen da eta haien ideologia eskuin muturrarekin lotzen dute. Mareyren liberazioak ez du egun batzuk lehenago Errenteriko taxistaren heriotzak hartu zuen leku berbera hartzen, baina egun horretako alea irekitzen duen albiste garrantzitsuena da. 1983ko abenduaren 15eko alean 3. eta 4. orrialdeetan erreportaje bat eskaintzen da; Mareyk bizitakoa eta senideen adierazpenak jasotzen dira, biktimaren argazkiekin eta bahiketaren nondik norakoekin batera.

Hori ez ezik, zutabe oso bat eskaintzen zaio. Bertan, GALen egiletasunari egiten zaio erreferentzia. Testuan sigla berri bati buruz hitz egiten da; ustez, aste batzuk lehenago ETAk eraildutako 4 polizien aurka erantzun duen talde armatua dela adierazten da. Une horretan, GAL iritzi publikora ezagutzera eman zen irrati batean GALen kide batek Mareyren aurkako bahiketa eta GAL beraren existentzia aldarrikatu zuelako. GALi eskainitako zutabean *El Diario Vasco*k GALen fundazioaren inguruko informazioa eskaintzen du eta talde terroristak irratian irakurritako adierazpenaren atalak laburtzen ditu. Ondoren, Frantziako poliziaren ikerketari erreferentzia eginez, egunkariak adierazten du GAL eskuin muturrarekin lotuta egongo litzatekeela, atxilotutako Pedro Sánchez frantziar polizia ohia eta eskuin muturrarekin lotura estua zuen pertsona, Segundo Mareyren bahiketan parte hartu baitzuen.

*El Diario Vasco*k bahiketaren inguruan argitaratutako testuetan hendaiarraren errugabetasun presuntzioa balioesten dela esan daiteke; bahiketaren atzean dagoen testuinguru soziopolitikoa aintzat hartzen da eta GALen ekintzaren helburu politikoen berri ematen da.

Egunkariak ETAren biolentzia ez den eta sufrimendua ere eragiten duen beste biolentzia mota bati erreferentzia egiteko eta izena emateko asmoa erakusten du. *El Diario Vasco* ez da Marey seinalatzen ari. Bahiketaren baitan dagoen marko soziopolitikoa erakusten ari da, eta markoa ETAren biolentzia eta haren aurkako borroka denez, ardura handiarekin hitz egiten du Mareyren inguruan. Ez dira pertsonaren inguruko balorazio juridikoak egiten; gertatzen denarekiko eta horren baitan egon daitezkeen interesekiko distantzia mantentzen du *El Diario Vasco*k, baina estatu terrorismoa testuinguruaren baitan justifikatu gabe.

Jarrera horrek talka egiten du, egunkariaren analisian baieztatzen genuen diskurtso instituzionalarekin zeren eta, Mareyren bahiketaren atzean dagoen konnotazio politikoa aintzat hartzeak, hein handi batean, Gobernuaren jarrera zalantzan jartzea da eta 78ko erregimena berresten duten instituzioen funtzionamendua zalantzan jartzea.

Marey Euskal Herriko iparraldean bizi zen arren, eta bahiketaren ikerketa Frantziako instituzioek abiatu zuten arren, espainiar nazionalitatea zuen eta Euskal Herrian jaioa zen, Irun-en hain zuzen ere. Gertaeren gertutasunagatik sentsibilitate berezia antzematen da *El Diario Vasco*ren analisian. Marey Gipuzkoako hiritarra denez, *El Diario Vasco*k gipuzkoar baten bahiketaren ikuspuntutik ematen du gertaeren berri, ez ETAren ustezko kolaboratzaile baten bahiketa baten ikuspuntutik.

Horrek, lehenago *El Diario Vasco*ren kasuan aipatu ez dugun ezaugarri bati balioa ematera eramaten gaitu, hedabidearen identitatea ere markatzen baitu. Jarrera instituzional eta 78ko erregimenaren eta Autonomien Estatuaren sistemaren aldeko postura hori ez ezik, gipuzkoar guztien egunkaritzat aurkezten du bere burua, hala bihurtu baita denboraren poderioz eta Gipuzkoako egunkari irakurriena izaten jarraitzen baitu. *El Diario Vasco* ildo markatua dauka, baina identitatea ere, hortaz, bi ardura egozten dizkio bere buruari eta, hein handi batean, irakurleek ere egotzi diote *El Diario Vasco*ri: gipuzkoarron erreferentziazko egunkaria izatea eta Gipuzkoarron adostasunezko hedabidea izatea, nagusi den sistema eta instituzio demokratikoak berresten dituena.

Mareyren auzia kontatzeko moduan ardura hori antzematen da, gipuzkoar baten sufritzen ari den sufrimendu egoeraren kontakizuna egitea. Horregatik, egunkariak xehetasun guztiak ematen ditu, senideekin kontaktuan jartzen da eta giza alderdia eta alderdi emozionala gailendu egiten dira. Gipuzkoan jaiotako eta lotura politikorik ez duen agure bat bahitu dute. Mareyren irudiak hiritar arrunt baten espresioa da eta hala irudikatzen da imajinario kolektiboan. Horrek beste sentsibilitate bat ematen dio gertaerari eta *El Diario Vasco*ren

diskurtsoan biktimarekiko gertutasuna antzeman daiteke: bahiketaren atzean dagoen testuinguruak garrantzia du (ETAren aurkako borroka), baina bahitu duten pertsona aldez aurretik pertsona da.

*El Diario Vasco*ren kazetariaren lekuan jartzen bagara, eta kazetariaren lana humanizatuz, hedabidearen diskurtsoan biktimarekiko enpatia nabaritzen da. Kode-dokumentuak taularen arabera, errugabetasun-presuntzioa kontzeptua behin baino gehiagotan agertzen da *El Diario Vasco*ren testuetan, batik bat, Mareyren kasuan, hendaiarraren loturak politiko eza frogatzen delako. Mareyren bahiketaren kontakizuna egiten ari den kazetariak bere senide baten bahiketa kontatzen arituko balitz bezala egiten du. Eta, bide batez, irakurleak ere bat egiten du Mareyren eta senideen sufrimenduarekin, bere burua ikusten baitu gertatzen ari den horretan. Mareyren bahiketaren gertaera gizon arrunt batek bizi izandako injustiziaren kontakizuna da. *El Diario Vasco*ren diskurtsoaren intentzioa hori da: datorren egunean egunkaria erosten duen edozein gipuzkoarrak Mareyren sufrimendua noberarena izango balitz bezala sentitzea, bahitu duten eta liberatu duten gizon horretan, euren, anai, osaba, aita edo aitona ikustea.

Mareyren irudiak eta arruntasunak bide ematen du *El Diario Vasco*ren diskurtsoan horren ohikoa -edo pisu bera ez duen- Estatuaren biolentziaz hitz egiteko, beste aldeko biolentziari buruz hitz egiteko, betiere egunkaria ezaugarritzen duen diskurtso sistemikotik gehiegi aldendu gabe. Nahiz eta, biktima Euskal Herrian bizi zen, hendaiarra oso aldenduta zegoen ETArekin eta ezker abertzalearekin zerikusia zuten mugimendu politikoetatik. Gainera, Mareyren adinak, politikatik aldenduta egotearekin batera, estatu terrorismoko gainerako biktimen ohiko profiletik aldentzen zuen. Hortaz, Marey erakargarriagoa gertatzen da *El Diario Vasco*ren diskurtsoarentzat, ez baitu estatu terrorismoaren inguruan gehiegi bustitzea eskatzen eta aukera ematen du egoeraren larritasuna kontatzeko, sistema bera konpromiso batean jarri gabe.

Horren aztoratua den eta Euskal Herriko gazteria inoiz baino politizatua dagoen gizartean, bere burua adostasunezko egunkaritzat aurkezten duen *El Diario Vasco*k estatu terrorismoaz hitz egin nahi badu, erosoagoa zaio politikatik aldenduta dagoen Mareyren inguruan bustitzea, lan honetan ikusten ari garen beste zenbait biktima gazte eta politizatuen inguruan bustitzea baino.

Era berean, testuinguru horretan, errazagoa da *El Diario Vasco*ren batezbesteko irakurlearentzat Mareyren errealitatearekin enpatia sentitzea, eta ez horrenbeste, beste estatu

terrorismoko biktima batzuen egoerarekin. Garai horretan kokatuz, eta *El Diario Vasco*ren publiko objektibora (gipuzkoarra, ideologiari erreparatu gabe) gerturatuz, errazagoa da Mareyren bahiketa gaitzestearen inguruan adostasun orokorra egotea, beste biktima batzuek jasandakoa gaitzesterako garaian baino. Marko politikotik begiratuta, Alianza Popular alderdiaren alde egiten duen garai horretako irakurle gipuzkoar batek errazago sentitzen du enpatia Segundo Mareyekiko, Santiago Brouardekiko baino, esate baterako. Dena den, baieztapen hori ez da modu orokorrean hartu behar, kasu bakoitzak jendearen enpatia mailan eragina duten ezaugarriak dituelako. Mareyren kasuaren inguruko enpatiari buruzko balorazioa *El Diario Vasco*ren analisitik eta kasuaren inguruan argitaratutako piezen azterketatik ikusitakoaren ondorioa da.

5.4.2. Estatu Terrorismoa salatu, baina sistemaren arauak betetzen

Sentsibilitate eta humanizazio hori ez da modu berean antzematen Mikel Zabalzaren inguruan egindako trataeran. Zabalza desagertu zeneko *El Diario Vasco*ren paperezko edizioan ikus dezakegu kasuaren inguruko informazioa eskaintzen duen albistearen ondoan eta, zenbait egunetan, albistearen azpiatalean, euskal preso errefuxiatuen bilaketaren inguruko albisteak argitaratzen direla. Esaterako, 1985eko abenduaren 1ean, *El Diario Vasco*ren alearen 6. orrialdean (Ikus, *DV* - 14 pieza), Mikel Zabalzaren bilaketaren inguruko albistea argitaratzen da eta albistearen barruan azpiatal bat eskaintzen zaio Miguel Ángel Andana Barrena euskal errefuxiatuari. Andanaren albisteak bere horretan ez du loturarik Zabalzaren gertakariarekin eta ez dirudi zentzu handirik duenik bi albisteak modu horretan elkarrenondoan egoteak. Kokapenaren erabakia justifika litzateke, egunkariaren atal hori zehazki ETAkideei buruzko informazioa ematera zuzendua egongo balitz, baina ordura arte -eta aurrerago ere ez- ez zegoen berretsia Mikel Zabalzaren eta ETAren arteko lotura.

Testuingurua antzekoa bada ere, Zabalzaren eta Andanaren egoeraren artean ez dago ezer amankomunean. Albisteen egituraketa horrek irakurlea Zabalzaren errugabetasun presuntzioa zalantzan jartzea eraman dezake. Are gehiago, Zabalzaren desagertzeari eskainia dagoen edukiari erreparatzen badiogu, erreferentzia asko egiten zaizkio Zabalzaren inguruko jendeak ETArekin zuen loturari, horien artean, batik bat, haren lagun eta Guardia Zibilak torturatutako Ion Arretxeri (*El Salto*, 2015).

Trataerak erabateko humanizazio falta aditzera eramaten gaitu, edukian bertan ikusten baita epaileak aste bat desagertuta daraman pertsona baten inguruko ikerketa egun horretan

jarri duela abian eta fokua ez da prozeduran jartzen, baizik eta, Guardia Zibilek Zabalza atxilotzeko plazaratutako frogetan eta argudioetan.

Senideen sumintasunari erreferentzia egiten zaion arren, albistean zehar Zabalza desagertu baino egun batzuk lehenago ETAk egindako atentatu bat aipatzen da eta, nahiz eta, Zabalzaren familiaren abokatuak atentatuaren eta Zabalzaren desagertzearen arteko loturak ezeztatzen duten adierazpenak jasotzen diren, inplizituki orbaizetarra ETArekin loturaren bat izan dezakeela aditzera eman nahi dela dirudi. Albistean zehar ez da Zabalzaren errugabetasuna esplizituki zalantzan jartzen, baina Zabalzaren eta ETAren arteko gertutasuna adierazten duten datuak eta informazioa etengabe aipatzen dira eta Guardia Zibilen testigantzak senideena baino pisu handiagoa hartzen du.

Hurrengo egunetan, Zabalzaren gorpua aurkitzen den arte, *El Diario Vasco*k oso arreta gutxi eskaintzen dio kasuari. Argitaratzen diren albisteek kasuaren inguruko informazio falta aditzera eramaten dute, baina Zabalza ETArekin erlaziona dezaketen erreferentziak egiten jarraitzen dira. Zabalzaren kasuari dagokionez, *El Diario Vasco*k anbiguotasunaren lerroan informatzen du, ez baita orbaizetarra esplizituki erruduntzat hartzen, baina bizitzen ari den testuinguruari (ETAren biolentzia eta haren aurkako borroka) erreferentziak etengabe egiten dira; horrek gaztearen errugabetasunaren aurka jokatzen du. Zabalzaren profila politizatuagoa da. Zabalzak gazte arruntaren irudia transmititzen duen arren, bere burua euskalduntzat hartzen duen pertsona bati buruz hitz egiten ari gara. ELA sindikatuaren kide da eta haren lagun batzuk ETArekiko gertutasuna dute. Langile mugimenduan sartuta dagoen eta euskalduna izateaz harro sentitzen den pertsona da. *El Diario Vasco* anbiguotasunean eta adostasunean mugitzen denez, deserosoagoa zaio irmoki Zabalzarekiko sentsibilitatea adieraztea.

Diskurtsoan biktimaren senideekiko eta Zabalzaren lagunekiko gertutasuna adierazteko borondatea antzeman daiteke, baina Zabalzaren atxiloketaren atzean dagoen biolentziazko testuingurua erreparatzeari utzi gabe. *El Diario Vasco*k ikuspuntu guztiei eman nahi die lekua: Zabalza atxilotu duten guardia zibilak, orbaizetarraren senideak, prozedura kritikatzen duten ordezkari politikoak… Errealitatearen eta une horretan Euskal Herrian bizitzen ari denaren erradiografia erakutsi nahi du, baina gertakarien inguruan busti gabe. Egunkaria, gertatzen ari denaren eta plazaratzen ari diren adierazpen guztien berri ematen du: gertatu dena justifikatzen saiatzen direnak, sistemarekiko eta prozedurarekiko kritikoak direnak, senideen salaketak eta haien abokatuen adierazpenak… Baina adierazpenek ez daramate egunkariaren

sinadura, are gehiago, sarritan ideologikoki urrun dauden beste egunkari batzuk argitaratutako informazioan oinarritzen dira.

Ideia hori berresten duen adibide Mikel Zabalzaren oroimenez garai horretako Euskadiko-Ezkerra alderdi politikoak argitaratutako eskela daukagu. Adostasunezko egunkaritzat aurkezten da *El Diario Vasco* eta ez du arazorik babesten duen sistemarekin kritikoak diren iritziak argitaratzeko, betiere, argitaratzen diren kritika eta aldarrikapen horien egileek sistemari zilegitasuna aitortzen badiote.

Garai horretan, Euskadiko-Ezkerra alderdi politikoa eta haren ordezkari Juan Mari Bandrés oso kritikoak ziren 78 erregimenaren zenbait alorrekin eta, bereziki, Lege Antiterroristarekin eta legeak baimentzen zituen demokraziaren eta zuzenbide estatuaren aurkako praktikekin. Zabalza desagertuta jarraitzen zuenean Euskadiko-Ezkerrako ordezkariak senatuan gogor galdetu zion Barrionuevo Ministroari Zabalzaren kasuaren inguruan eta hausnarketa bat egin zuen Lege Antiterrorista babesten zuen Estatu baten osasun demokratikoaren inguruan; baita lege horri zilegitasuna emateak ekar zitzakeen arriskuez ere. Gainera, Bandrések modu zuzenean Euskal Herrian praktikatzen ari ziren "torturak eta praktika ez-demokratikoak" deskribatu eta salatu zituen (Bandrés, 1985).

Zabalzaren kasuarekin horren kritikoa izan den Euskadiko-Ezkerra alderdi politikoaren eskela argitaratzea *El Diario Vasco*ren adostasunezko diskurtsotik aldentzea dirudi. Euskadiko-Ezkerraren iritzia eta haren buruek egindako adierazpenei lekua ematen zaie, hain zuzen ere, sistemarekin kritikoak izan arren, 78ko erregimenari eta *El Diario Vasco*k babesten duen Autonomien Estatuari zilegitasuna aitortzen diotelako. Zentzu horretan, nahiz eta sistemaren zenbait ezaugarrirekin kritikoa izan, Euskadiko-Ezkerraren diskurtsoak leku erosoa aurkitzen du *El Diario Vasco*ren diskurtsoan, EAJ-PNV-ren eta Autonomien Estatuaren babesle diren gainerako alderdi politikoen diskurtsoek bezala.

Izan ere, Autonomia Erkidegoaren eta Autonomia Estatutuaren marko politikoan, Euskadiko-Ezkerraren jarrera adostasunezko posturatzat aurkezten da. Euskadiko-Ezkerra, nahiz eta hasieran autonomia estutuaren aurkako jarrera kritikoa erakutsi zuen eta gainerako sinatzaileekin estatutuaren garapenari dagokionez desadostasunak izan zituen, beste alderdi politikoekin batera Gernikako Estatutuaren sustatzaileetako bat izan zen (Pérez Calvo eta Corcuera Atienza, 1979, 190.).

Hori dela eta, aipatu berri dugun eskela ez ezik, zentzua du *El Diario Vasco*k Bandrések Lege Antiterroristaren aurka egindako kritikak jasotzea (*El Diario Vasco*, 1985, 6; ikus *DV* - 21 pieza). Egunkariaren diskurtsoaren baitan eta publiko objektiboari begira, zentzuzkoa dirudi une horretan eztabaidagarri izan zen eta Autonomia Estatutuaren aldekoen artean ere kritikatu zen Lege Antiterroristaren gaia mahai gainean jartzea.

Espainia demokrazian sartu berria da, aldaketa garaia da eta Euskadi autogobernuaren biderantz doa, baina, era berean, errealitatea aldakorra da eta Euskal Autonomia Erkidegoa biolentziaz beteriko testuinguruan dago. ETAren indarkeriak eta ezker abertzaleko sektore handi batek aitortzen dion zilegitasunak azken urteetan lortutako adostasun giroa eta lortutako autonomia zapuzten dute. Hortaz, adostasun eta autonomien sistemaren alde dauden hedabideentzat zaila da ezker abertzalearen lerro erradikalean dauden ordezkariei ahots ematea, eraiki den adostasunezko giro horrekin kontrajarriak baitira; ezker abertzaleko muturreko jarreran daudenak deserosoak dira *El Diario Vasco*rentzat.

Euskadiko-Ezkerraren edota EAJren kritikak biltzen dituzten albisteak jasotzea bat dator egunkariak adierazi nahi duenarekin. Aldiz, Herri Batasunaren diskurtsoak ez du lekua hartzen *El Diario Vasco*ren adostasunezko diskurtsoan. Hori dela eta, adostasunezko eta sistemaren aldeko Juan Mari Bandrés senatariaren adierazpenak erosoagoak dira *El Diario Vasco*ren diskurtsoan kokatze aldera; Herri Batasunaren buru den eta lehenengo unetik zapalduaren (Mikel Zabalza) familiaren ondoan egon den Jon Idigoras diputatua, berriz, deserosoa da egunkariaren interes ideologiko eta politikoentzat, adostasun horren aurkako irudia baita.

Bandrés, ezker abertzalearen inguruan koka genezakeen arren, moderazioa eta adostasuna transmititzen du. Idigoras, berriz, iraultzailearen irudia litzateke, ezarrita dagoen ordenaren aurka egiteko prest dagoen pertsona, Euskal Herria zapaltzen duen sistema baten aurka indarkeria erabiltzea zilegitzat hartzen duen pertsona deseroso eta, zenbaitetan -*El Diario Vasco*ren ikuspuntutik- demokraziarentzat arriskutsua. Bandrés adostasuna da, eta Idigoras konfrontazioa. *El Diario Vasco* moderaziotik eta adostasunetik gertu dago. Horregatik, estatu terrorismoaz hitz egiten denean, sistemari zilegitasuna aitortzen dietenen iritziak jasotzen dira soilik, nahiz eta horiek sistemarekin kritikoak izan, baina sistemaren aurka daudenen ideiak oso leku gutxi hartzen dute edo ez dute ia lekurik hartzen.

Herri Batasuna eta ezker abertzalea hedabideetatik baztertzeko praktika hori ez da ezerezetik sortzen eta estrategia politiko bati erantzuten dio; ezker abertzaletik maiz kritikatu

da eta, bide batez, ezker abertzalea beraren arma politiko bilakatu da. Gure ikerketa datatik aldentzen den arren, interesgarria da kontu horren inguruan, 1999an HBko buru Pernando Barrenak egindako adierazpena; HBren aurka "lintxamendu eta isolamendu mediatikoa" zegoela adierazi zuen (Gastaminza, 1999).

Zabalzaren gorpua aurkitu zen eguneko egunkariaren azalean, *El Diario Vasco*k ez bustitzearen alde hartutako jarrera hori berretsi egiten da. Guardia Zibilen, autoritateen eta albisteen agentzien bertsio ofizialei zilegitasuna ematen dela ikusten da. Piezan ondorengo adierazpenak irakur daitezke: "*Esta madrugada, la agencia EFE, citando «fuentes seguras» informó que las primeras impresiones tras la autopsia practicada ayer en Pamplona señalan que Zabalza murió ahogado y que en su cuerpo no se apreciaron señales de violencia*"(*El Diario Vasco,* 1985, 1; Ikus, *DV*- 18 pieza). *Fuentes seguras* hitza komatxoen artean agertzeak bertsio ofiziala zalantzan jarri nahi dela aditzera eman dezake, baina ez da esplizituki zalantzan jartzen iturri ofizialek diotena eta zilegitasuna ematen zaio EFE-k eta Guardia Zibilak adierazitakoari. Bertsio ofizialari men egiteko moduak talka egiten du albistearen alboan argitaratutako Zabalzaren argazkiak transmititzen duen gogortasun eta indarkeriarekin; horregatik, zaila da *El Diario Vasco* biktimekiko sentsibilizazioaren eta haien minarekiko erreparazioaren aldean ala 78ko sistemaren osasun demokratikoa berrestearen aldean dagoen.

*El Diario Vasco*k instituzioek (Eusko Jaurlaritzak, batik bat) eta haien babesle direnek Mikel Zabalzaren familiari eskainitako babesaren berri ematen du, baina ez da agertzen Herri Batasunak orbaizetarraren senideei eskainitako babesa, nahiz eta, abertzaleek presentzia handia izan zuten Zabalzaren alde antolatutako ekimen politiko eta sozialetan.

5.4.3. PSOEren Gobernuaren krisia eta diskurtso aldaketa

Orain arte aipatutakoari garrantzia kendu gabe, ez litzateke guztiz egokia izango *El Diario Vasco* egoerarekiko kritikoa ez dela adieraztea. 80ko eta 90eko hamarkadan gertatu ziren zenbait gertaeraren aurrean Estatuaren jokatzeko modua eta aurrera eramandako prozedura judizialak kritikatzen dituzten piezak aurki ditzakegu.

Egunkariaren piezetan ildo ideologiko guztietako adierazpenak ikus daitezke ("antisistematzat" hartzen direnak izan ezik) eta, horien artean, Barrionuevoren aurkako kritikak irakur ditzakegu (Ikus, *DV* - 25 pieza). 1985eko abenduaren 19an zuzendariari idatzitako gutunen artean, Barrionuevori kritika egiten dioen eta Espainiar Estatuan

errugabetasun presuntzioaz aplikatzeko erabiltzen den neurri bikoitza salatzen duen testua ikus dezakegu, esate baterako. Dikotomia hori *El Diario Vasco*ren diskurtsoan azaleratuta ikus daiteke eta hori kode-dokumentuak taulak ematen dizkigun datuetan berretsi egiten da, errugabetasun presuntzioa eta erruduntasun presuntzioa kontzeptuak asko agertzen baitira.

Piezaren egilea oso kritikoa da indar polizialen barruan dauden zenbait kideekin eta balorazio gogorrak egiten ditu: "(...) *Premiando a torturadores, acomodando a homicidas, ascendiendo a golpistas, felicitando a represores y persiguiendo a quienes piden que la policia sea un servicio público…*" (*El Diario Vasco*, 1985, 2). Piezak sistemaren barruan dauden elementu ustelez hitz egiten du eta Zabalzaren errugabetasun presuntzioaren eta independentzia judizialaren aldeko aldarrikapena egiten du. Nahiz eta, iritzi ez duen *El Diario Vasco*ren sinadura ez duen, egunkaria irakurtzen duen pertsona baten kritikak daramatza. Ildo horretatik, *El Diario Vasco*k, gizartearen ispilu izatea bilatzen du, alegia, kalean eta herriaren gehiengoaren artean dagoen sentimendua adieraztea, baina egunkariaren diskurtso instituzionala alde batera utzi gabe eta muturrekotzat har daitezkeen jarrerekiko distantzia mantenduta.

Beharbada, *El Diario Vasco*k mantendu nahi duen adostasun eta moderazio irudi horrek baldintzatu egiten du, eta zalantzan jar dezake, zenbateraino argia den egunkariak estatu terrorismoaren aurka duen jarrera. Testuinguruak kontraesan baten aurrean jartzen du *El Diario Vasco*ren diskurtsoa; egunkariak ezin ditu ezkutatu instituzioak kritikatzen dituztenen iritziak, panorama politikoaren parte baitira, baina kritika horien berri emateak ezin du irakurlea krisi baten aurrean gaudela pentsatzera eraman, alegia, sistemaren osasun demokratikoa zalantzan jartzera. Horregatik, egunkaria erdibidean geratzen da, baina gertatzen ari dena azpimarratzea ahalbidetzen duen estrategia hartzen du, hau da, Estatuaren eta instituzioen jokatzeko modua kritikatzen du, sistemaren beharra eta ongizatea zalantzan jarri gabe.

GALen lehen epaiketak abian jartzen direnerako *El Diario Vasco*ren aleek diskurtso aldaketa bat dakartzate; testuingurua zeharo desberdina da. GAL dagoeneko ez da existitzen eta hamar urte baino gehiago pasa dira taldearen operazio garrantzitsuenak gertatu zirenetik. Horrez gain, 90eko hamarkadaren hasieratik 1998. urtera bitartean Espainiak aldaketa ugari biziko ditu. Felipe Gonzálezen eta PSOEren Gobernua kolokan dago: ustelkeria kasuak, estatu terrorismoarekin lotura duten ministroak, Gobernuaren aurka geroz eta gogorrago jotzen duen oposizioa…

Gizartearen mesfidantza Gonzálezen Gobernuarekiko erabatekoa da eta, hori, ordura arte haren aurka horren gogor egin ez zuten hedabideetan ere antzematen da. González geroz eta ahulago dago, eta geroz eta babesle gutxiago ditu. PSOEren Gobernuari zilegitasuna aitortu zioten alderdi politikoak geroz eta urrunago daude trantsizio garaian PSOErengan izan zuten adostasun eta laguntasun harreman horretatik.

Euskal Autonomia Erkidegoan Gonzálezen Gobernuarekiko mesfidantza handia da ere, eta iraganean Euskadi mailan -eta Estatu mailan ere- PSOErekin jarrera adeitsua erakutsi zuen EAJ GALen auzia ikertzeko presionatzen ari da. Geroz eta jende gutxiagok sinesten du Gobernuarengan eta Gonzálezen errugabetasunari buruzko zalantzak geroz eta nabarmenagoak dira; Garzónek GALen egituraren buruan marraztutako ixak, inplizituki Gonzálezen sententzia politikoa ekarri du; González boterearen bakardadea bizitzen ari da.

Gizarteak jada ez du beregan sinesten, Legebiltzarrak ez dio zilegitasunik aitortzen eta aldaketa eskatzen du. Testuinguru horretan, Iñaki Gabilondo PSOEtik gertu zegoen kazetariaren eta Felipe Gonzálezen arteko elkarrizketa famatu eta polemikoa gertatuko da. Elkarrizketa horrek aurrekari bat ezarri zuen PSOEren eta hedabideen arteko harremanean; ordura arte, Gonzálezen jokatzeko modua kritikatzera ausartzen ez ziren hedabideek ezin dute jada isilean jarraitu. Hiritarrek azalpenak nahi dituzte eta Gonzálezengandik gertu daudenak ere behartuta daude galdetzera. Elkarrizketa telebista publikoan gertatu zen eta Gabilondok Gonzálezi zuzenean galdetu zion ea GALen atzean bera ote zegoen. Zenbait urte beranduago, *LaSexta* telebistaren *Salvados* programan, Felipe Gonzálezi elkarrizketa horren inguruan galdetu zitzaion eta une horrek berak ekarri zituen "ondorioez" mintzatu zen (*LaSexta*, 2012). Elkarrizketa horretan, PSOEk zenbait hedabide eta kazetariekin (Pedro J. Ramírez, Luis María Anson ABC egunkariko zuzendaria, Melchor Miralles…) izandako borroka mediatikoaz ere mintzatzen da González.

GALen aurkako lehen epaiketak abian jartzen direnean, *El Diario Vasco*ren diskurtsoa zeharo aldatzen da. Zuzenean estatu terrorismoaz hitz egiten da eta zuzenean Gobernuko goi karguak seinalatzen duten testuak irakur ditzakegu (*El Diario Vasco,* 1995, 10; Ikus, *DV* - 30 pieza), "X gizona" terminoa erabiltzen hasten da Gobernuaren inplikazioa salatzeko; kode-dokumentuak taulan "X gizona" kontzeptua maiz agertzen da. Esaldien formulazioek egoeraren salaketa bat egiten ari dela iradokitzen dute, jasotzen diren adierazpenak Gobernuaren aurkakoak dira; esaldietan jada ez da soilik kritika jasotzen, seinalamendu bat jasotzen da: *"Anasagasti: Barrionuevo no es el Señor X, pero es el señor Z"* (*El Diario*

Vasco, 1995, 10). Gainera, salaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkarien aldetik dator, alegia, sistemaren parte diren instituzio demokratikoetatik; Gobernuaren aurkako jarrera ez dator sistemarekin bukatu nahi duten indar politiko iraultzaileetatik, baizik eta, sistema bera legitimatzen eta haren berriztatzea eskatzen dutenen aldetik.

Barrionuevo erruduntzat seinalatzen da; zenbait urte lehenago, seinalamendua ez zen horren zuzena, eta Anasagastik Barrionuevo X gizona ez dela adierazteak, bidea irekitzen du GALen buruan beste norbait dagoela pentsatzera, alegia, buru hori González izan daitekeela pentsatzera. Inplizituki begirada guztiak -*El Diario Vasco*rena ere- PSOEren eta Gonzálezen mugimenduetan daude. Aznarren hautagaitzak geroz eta indar handiagoa hartzen du, baita ordura arte PSOEtik gertu egon ziren indar nazionalisten (EAJ eta CiU) artean ere. Tentsio politiko horren baitan, EAJk ez du zuzenean PSOE seinalatu eta harekin duen adostasunezko harremana zapuztu nahi, baina, aldaketa iristear dagoenez, geroz eta kritikoagoa da Gobernuaren jarrerarekin. Nazionalisten jarrera aldaketa hori ere jasotzen du *El Diario Vasco*k (Ikus, *DV* - 30 pieza).

Nahiz eta, *El Diario Vasco*k ez duen zuzenean X gizona terminoaren eta Gonzálezen arteko lotura egiten, kontziente da gizarte zibilean eta legebiltzarrean Gobernuaren inplikazioaz hitz egiten ari denaz. Hori dela eta, nazionalisten zein ezkerreko alderdi politikoen zenbait adierazpen kritiko ere jasotzen dira. Estatu terrorismoaren arazoa eta Gobernuaren inplikazioa geroz eta presenteago dago *El Diario Vasco*ren diskurtsoan eta, duela zenbait urte ez bezala, kritika eta seinalamendua irmoa da. Estatua krisi baten aurrean dago eta *El Diario Vasco*k tesi hori defendatzen dutenei ahotsa ematen die, iritzi hori ez baitator Autonomien Estatutuaren aurka eta biolentziaren alde dauden horien aldetik, sistemaren parte direnen aldetik baizik. Ezker Batuko Julio Anguitak Gonzálezi egindako seinalamendua irakur dezakegu edota PSE-ren barruan Euskadiko-Ezkerrako sektoreek Gobernuari buruz adierazitako kezka jasotzen duten albisteak ere (Ikus, *DV* - 29 eta *DV* - 33 piezak).

Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan *El Diario Vasco*ri PPvsPSOEvsEAJ borroka interesatzen zaio gehien. Aztertutako piezetan GALen inguruko auzia presente dago Estatuaren boterea lortzeko borrokaren baitan. EAJk erabaki egin behar du zeini eman babesa eta PSOEren alde egiteak geroz eta segurtasun gutxiago ematen du. Egoera politikoa konplexua da eta EAEtik hartzen diren erabakiek Estatua beraren etorkizuna baldintzatuko dute. *El Diario Vasco* klima politiko aldakor horren berriemailetzat aurkezten

den Gipuzkoako hedabidea da, ezaugarritzen duen jarrera instituzionalari leial. Krisi baten aurrean gaude, eta krisi horretatik aterako gaituztenak sistemaren barruan dauden eta euskal instituzioen parte diren ahots kritikoak izango dira. Diskurtso horretan biktimak bigarren lerro batera pasatzen dira; galdera ez da zer gertatuko den estatu terrorismoko biktimekin, baizik eta, zer eragin izango duen gobernatzen gaituzten instituzio demokratikoengan. Biktimak garrantzitsu bilakatzen dira, baldin eta estrategia politikorako armatzat erabil badaitezke. Ez da justiziaz hitz egiten ezta erreparazioaz ere; egiaz hitz egiten da ardura instituzionala zeini egotzi behar zaion jakiteko eta, ondorioz, boterea eskuratzea zeini dagokion erabakitzeko. Boterea lehenengo, biktimak ondoren.

5.4.4. El Diario Vasco Eginen itxieraren aurrean: Zuzenbide Estatua defendatu

GALen auziak aurrera egiten duen heinean, eta PSOEren Gobernuaren erortzearekin batera, *Egin* egunkariaren itxiera gertatzen da. *Egin*en itxiera -eta hala ikus daiteke aztertutako zenbait piezetan- Herri Batasunaren ilegalizazioaren bezperatzat hartzen du ezker abertzaleak.

*Egin*en itxierak ezker abertzaleko sektore erradikalaren aurkako operaziotzat aurkeztu zen. *El Diario Vasco*ren diskurtsoaren baiten "*antisistemen* aurkako operazioa" litzateke. Euren ideiak askatasun osoz, baina gainontzekoenak errespetatu gabe adierazten dutenen aurkako operazioa. 1996ko uztailaren 16an *El Diario Vasco*ren editorialak Garzón epailearen "zintzotasunaren eta justiziarengan konfiantza izatearen alde" egiten du (Ikus, *DV* - 36).

Egunkariak erruduntasun presuntzioa eta errugabetasun presuntzioa dikotomia aurkezten du. Bestetik, *Egin*en itxiera eta haren aurkako akusazioak larritzat ikusten dituen arren, zuzenbide estatuaren eta independentzia judizialaren aldeko aldarrikapena egiten du. *Egin*en itxiera ez da prentsa askatasunaren aurkako ekintzatzat aurkezten eta, Garzón epaileak erabilitako arrazoiak oinarri hartuta, ez da demokraziaren aurkako neurritzat ikusten egunkari baten "behin-behineko" itxiera.

*El Diario Vasco*k Garzón epaileak *Egin*en atzean ETA dagoela baieztatzeko erabilitako argudio eta frogak jasotzen ditu, baita egunkariaren itxiera justifikatzeko erabilitakoak ere. Editorialarekin ez ezik, egun horretan zehar argitaratutako albiste eta erreportajeei erreparatuta, *El Diario Vasco*k Espainiako sistema judizialari zilegitasun osoa aitortzen dioela esan dezakegu. Nahiz eta, *Egin*eko langileek egindako adierazpenen berri ematen den, epaileak esandakoa egiazkotzat hartzen du. Justiziaren erabakiekiko zuhurra den hedabide baten irudia erakutsi nahi du *El Diario Vasco*k. Halaber, badirudi *Egin*en itxierari buruz ez

busti izana justifikatzeko, enfasi handia egiten duela "*cautelar*" hitzan, alegia, bai, egunkari bat itxi dute, baina itxiera ez da behin betikoa, "behin-behinekoa" baizik (Ikus, *DV* - 35 pieza). Diskurtso horrek, buelta ematen dio errugabetasun presuntzioaren esanahi juridikoari. Inplizituki bada ere, *El Diario Vasco*k ondorengoa adierazi nahi du: itxiera behin-behinekoa denez, oraindik ezin da esan egunkari bat itxi denik eta, ondorioz, epaileak egindako akusazioengan konfiantza osoa jarri behar da. Errugabetasun presuntzioa hitzak eskaintzen duen interpretazio askatasunaz baliatuta, instrukzioko epaileak -ez epai-emaileak- esandakoa inplizituki -eta zenbaitetan esplizituki- berresten du. Era berean, *Egin*en itxieraren aurrean aktore politiko eta sozial guztiek plazaratutako iritziak aurkezten dira, baina egunkariaren ildo editoriala mantentzen da (Ikus, *DV* - 35 pieza).

5.5. *Deia*ren diskurtsoa

Deia / Gure Lurraren Deia egunkariaren kasuan, soilik 1996az geroztik argitaratutako aleak eskuratu ahal izan dira, Atzoko Prentsa Digitala artxiboan *Deia*k 1996tik aurrera argitaratutako aleak baitaude bakarrik (Koldo Mitxelena Kulturunea, d.g.).

Hala eta guztiz ere, 1996tik 1998ra bitartean argitaratutako piezetan aztergaiaren analisirako baliagarriak diren piezak aurki daitezke, batik bat, estatu terrorismoaren inguruko diskurtso mediatikoaren eraikuntzari dagokionez, aldaketa prozesu baten aurrean jartzen gaituelako.

1996. urtea aldaketa garaia da. Alderdi Sozialista ahultzen doa, boterea guztiz galtzen duen arte eta GALen aurka urte batzuk lehenago hasitako epaiketek informazio berria ematen dute kasuen inguruan, baita horien atzean egon ziren goi karguen inguruan ere. Testuinguru soziopolitiko horren baitan, Euskal Autonomia Erkidegoan garrantzi handia hartzen du EAJren rolak Estatuko politikan eta Espainiako Gobernuarekin mantentzen dituen erlazioetan. Bai PSOEk, bai PPk EAJrengan aliatu bat ikusten dute eta jeltzaleen bozka ezinbestekoa bilakatzen da Gobernu bat edo beste legitimatzeko.

Horrela, borroka politikoaren atzean estatu terrorismoak garrantzia hartzen du EAJren mugimenduetan, jeltzaleak egia argitzearen alde dauden gainerako mugimenduetara hurbiltzen hasiak baitira. EAJ geroz eta kritikoagoa da PSOEren jarrerarekin eta, beste aldetik, PPren babesa bere interesentzat baliagarria gertatzen den arren, mesfidantzaz hartzen du Aznarren Gobernu berriak GALen ikerketaren aurrean hartzen ari den jarrera. *Deia,*

EAJren diskurtsoaren bozeramaile bilakatzen da eta alderdi politikoaren iritzi aldaketen berri-emaile.

*Deia*k 1996. urtea baino lehen zuen diskurtsoa zein zen aztertzeko piezarik ez daukagunez, ezin dugu -ehuneko ehunean ez behintzat- ondorioztatu *Deia*ren diskurtsoan aldaketa hori antzeman daitekeenik, ez baitaukagu testurik jarrera aldaketa hori frogatzeko. Dena den, badirudi, eta datorren azpiatalean gehiago garatuko dugu horren inguruan, *Deia*k EAJren diskurtsoarekiko konplizitatea erakusten duela eta, EAJren diskurtsoan bai existitu izan zela jarrera aldaketa estatu terrorismoaz modu irmoan hitz egiterakoan, batik bat PSOEren Gobernuaren parte hartzeaz hitz egin behar zenean.

*Deia*k iraganean estatu terrorismoaz hitz egiteko erakutsitako errezeloaren seinale, lehenago *El Mundo* egunkariaz hitz egiterakoan aipatu dugun Ricardo Arquésen bilakaera daukagu. Arqués, *Deia* egunkariko kazetari izan zen eta gerora, *Diario 16* eta *El Mundo* egunkarietara pasa zen, bi egunkariak pertsona berak zuzendutakoak (Pedro J. Ramírez). Teoria eta espekulazio ugari egon dira aldaketaren inguruan, baina horietako batek egunkari aldaketa estatu terrorismoaz hitz egiteko beharretik jaiotzen dela aditzera ematen du. Hori dela eta, arduraz jokatuz, eta benetan postu aldaketa horren arrazoia ehuneko ehunean hori izan zela froga dezakeen ebidentziarik ez dugula jakinik, komenigarria gerta daiteke gogora ekartzea Arquésen lankide izandako Carmen Gurruchaga kazetariak gai honen inguruan egindako adierazpenak.

2012an *Periodista Digital* hedabideari eskainitako elkarrizketa batean, Gurruchagari Arquésen fitxaketaren harira galdetzen zaio eta ondorengoa erantzuten du: “Ricardo Arqués eta Carlos Etxeberri, biak *Deia*ko kazetariak, GALen existentziaren berri izan zuten lehen bi kazetariak izan ziren, baina une jakin batean EAJ eta PSOE akordio batera iritsi ziren. EAJk zin egiten zuen ez zuela GALen inguruan hitz egingo eta trukean, PSOEk ez zuen EAJk txanpon-makinen lizentziekin zuen ustelkeria kasuez hitz egingo” (*Periodista Digital*, 2012). Ondorioz, Gurruchagak azaltzen du “Arquések Pedro J. Ramírezengana jo zuela eta hark *Diario 16*en kontratatu eta GALen inguruko informazioa argitaratzeko bidea ireki zuela”. 1987an Arquések GALen inguruko erreportajea idatzi zuen *Diario 16*en *«Comunicantes del GAL desvelan un depósito de la organización»* tituluarekin (*La Hemeroteca del Buitre*, d.g.). Gerora, Arquések *El Mundo*n lan egiten jarraituko zuen estatu terrorismoaren inguruan informatzen.

Deia egunkariaren inguruko informazio orokorra ematen genuenean, Marta Martín kazetariak Arquési omen eginez idatzitako zutabea aipatzen genuen. Bertan, ez da Arquések *Deia* uztera eraman zuten arrazoiez hitz egiten, baina zutabearen tituluak (*En Deuda con Ricardo Arqués*), bere lana behar bezala aintzat hartu ez zen kazetariaren aldeko omenaldia egiten dela pentsatzera eraman gaitzake (Martín, 2024).

5.5.1. Gure lurraren Deia/EAJren Deia

Lehen esan bezala, aldaketa garaian daude. Gonzálezen Gobernuak ekarritako Espainiaren modernizazioa, jada oso urrun dago 1996an, eta gizarteak mesfidantzaz ikusten du buruzagi sozialista eta haren kide izandakoak. Gizartearen mesfidantza hori -bereziki euskal gizartearen mesfidantza- ez da ezezaguna GALen aurkako epaiketen eta Gobernuan izandako ministroen inguruko inplikazioaz hitz egiten duten albisteak argitaratzen jarraitzen duen *Deia*rentzat. Duela zenbait urte *Deia*rentzat aipaezina zirudien gai hori, egunkariaren tituluak estaltzen ditu: GALek mina egin du Euskadin eta hori kontatu beharra dago, PSOE jada ez dago Gobernuan eta gizarteak egia eskatzen du. Baina, zein da *Deiaren*tzat egia hori argitzeko presio gehien egiten ari den alderdia?

GALen auzipetuen aurkako epaiketak aipatzen dituen *Deia*ren pieza gehienen ondoan EAJko kideren batek auziaren inguruan plazaratutako iritzia jasotzen duen albisteren bat aurki dezakegu. Estatu terrorismoaren inguruan egia bilatzearen alde daudenen artean EAJ buruan dagoela erakutsi nahi da. Jada inork ez du sinesten Gobernuak dioena, jendeak egia exijitzen du eta *Deia*rentzat jendearen eskaeraren lekukoa daramana EAJ da. Jeltzaleak dira Euskal Autonomia Erkidegoan Gobernuak hartutako erabakien aurrean desadostasuna adierazteko bitartekari. Boterea zeini eman jeltzaleen esku dago, haiek erabakitzen dute babesa PSOEri ala PPri eman, alegia, noren esku utzi Estatuaren giltza eta, bide batez, noren esku utzi autogobernuaren etorkizuna.

Deia EAJren bozgorailu mediatikoa da. Alderdi popularraren zein alderdi sozialistaren kideekin dituen gatazkak jasotzen ditu eta, bide batez, jeltzaleek hartuko duten estrategia politikoa ezagutzera ematen du.

1996 baino lehenagoko piezak aztertu beharko genituzke estatu terrorismoaren inguruan informatzerakoan *Deia*k izandako bilakaera aztertzeko. Hala eta guztiz ere, 1996tik aurrera bizi den testuinguru historikoaren eta politikoaren jakitun egonda, informazio dezente

dugu *Deia*ren diskurtsoan GALen atzean dagoen guztia jakiteko interes handia dagoela adierazteko.

PSOE jada ez dago Gobernuan eta sozialistak dagoeneko ez dira baliagarriak EAJren estrategia politikorako eta hori *Deia*ren diskurtsoan antzeman daiteke. Gehiago behar du PSOEk EAJ, EAJk PSOE baino. *Deia* jeltzaleen ideologiarekin bat datorren hedabidea da eta alderdi politikotik datozen iritziak jasotzen ditu batik bat. Estatu terrorismoko kasuen inguruan argitaratzen dituen albiste eta erreportaje gehienak EAJren interesen prismatik kontatzen ditu. 1996 aurretiko piezekin konparatzeko aukerarik ez dagoen arren, *Deia*k EAJrekiko erakusten duen begirunea kontuan hartuta, badirudi *Deia*ren diskurtsoan ere aldaketa bat gertatu dela estatu terrorismoari dagokionez edo, behintzat, GALi buruzko informazioari dagokionez.

GAL dagoeneko ez da sekretu bat, iritzi publikoak berehala egiten du talde terroristaren eta PSOEren arteko lotura, beste aldera begiratzea edo PSOEren Gobernuan konfiantza mantentzea jada ez da zilegi iritzi publikoaren ikuspegitik. PSOEko bi kide epaituak izan dira eta zalantza dago ea González presidente ohia ere ez ote den GALen antolakuntzaren atzean dagoena. EAJk jada ezin du mantendu iraganean alderdi sozialistarekin izandako adostasunezko harremana, ezin baitzaiolako alderdi sozialistari sinetsi edo, dagoeneko EAJren interesentzat ez delako komenigarria alderdi sozialistaren Gobernu ohiaren zilegitasuna defendatzen jarraitzea.

EAEn González eta bere kideen aurkako jarrera erabatekoa da, PSOEk jada ez du 1982an zuen indar politiko eta soziala eta Herri Batasuna indar asko hartzen ari da estatu terrorismoko biktimekiko duen gertutasunari esker. Euskal hiritarrak zapaltzeko talde terrorista bat diru publikoarekin finantzatzeaz akusatu duten Gobernu eta alderdi politiko bati babestea justifikaezina da euskal gizartearentzat, baita iraganean alderdi horrekiko adostasunezko harremana mantentzeak begi onez ikusten zuen EAJko hauteslearentzat ere. PSOE jada ez da aukera posible bat EAJren interesentzat, are gehiago, autogobernuaren egonkortasunerako arrisku bihurtzen da.

EAJren estrategia ondorengoa da: egia jakitearen alde dagoela erakutsi, euskal herritarrekiko duen konpromisoa adieraziz eta Espainiar Estatuaren aurrean aldez aurretik euskaldunon interesak lehenesten dituela adierazi.

*Deia*ren piezetan estrategia hori antzeman daiteke. Estatu terrorismoaren aurrean sistemaren parte diren bi alderdi politiko nagusiekin kritikoa den EAJ erakutsi nahi da, bai PSOEri eta bai PPri kolpeak emateko prest dagoen alderdi politiko baten irudia islatu nahi da, bi alderdi nagusiak kritikatzeko estrategia horren baitan haren aurkari gogorrena eta nagusia den Herri Batasuna defendatu behar baldin badu ere.

Testuinguru horretan *Deia*k estatu terrorismoko biktimekiko nolabaiteko gertutasuna erakusten duen hedabidetzat aurkezten du bere burua. Inflexio puntu baten aurrean gaude Euskal Herriko panorama mediatikoan. Estatu terrorismoa jada ez da existitzen den eta inork edo oso hedabide gutxik aipatu nahi duten errealitatea. Estatu terrorismoa eztabaida publikoan presente dago eta ETAko indarkeriarekin konparatuta bigarren lerro batean jarraitzen duen, benetako bakea lortzeko beharrezkoa ikusten da estatu terrorismoko kasuen atzean non egon den argitzea eta, benetan ordezkari publikoek parte hartu badute, egin dutenarekiko ardura hartzea.

Estatuaren indarkeriaren errekonozimenduaren fase berri batean gaude, Estatuaren biolentziaren existentzia Estatua beraren instituzioen aurrean salatu baita. Estatuaren egitura eta egonkortasuna zalantzan dago. Zuzenbide estatuaren parte hartzea exijitzen du gizarteak, ordura arte Estatuaren botereaz baliatuta demokraziaren eta zuzenbidearen aurkako praktikak erabili dituztenak epaitzeko.

Estatu terrorismoa errealitate bihurtu da, jada ez baita kaleetan, polizia-etxeetan edo legetik at gertatzen ari den zerbait; estatu terrorismoa instituzioetan dago, eta arazo bat da. GALen aurkako prozesu judizialak une kritikoa dakartzate, ez bakarrik PSOErentzat, 78 erregimena eta Autonomien Estatutua aldarrikatu duten alderdi eta mugimendu politiko guztientzat baizik. PSOE ez diren alderdi politiko guztiek gai izan behar dute erakusteko, nahiz eta, haiek ere PSOE parte den sistema horri zilegitasuna aitortzen dioten, haiek ez datozela bat iraganean Gobernuak erabili izan dituen praktikekin eta ez luketela inolaz ere antzeko praktikarik onartuko. GALen aurkako epaiketa ez da PSOEren egonkortasuna noraino iristen den frogatuko duen auzia; GALen aurkako auzia 78ko erregimenaren saio erabakigarria da. Diktaduratik aterako gintuen sistema alternatibotzat aurkeztu zen erregimenaren ongizate demokratikoa dago jokoan.

Hortaz, 90eko hamarkadan, azken urteetan salatu eta argitaratzen joan diren Gobernuko ustelkeria kasuekin batera, estatu terrorismoaz hitz egiten hasteko beharra dago. Espainiako Gobernuan egon direnak ez ezik, Trantsizioaren eta Autonomia Estatutuen

sorreraren parte izan ziren aktore politikoek erantzukizun bat dute gizartearekiko, gizartearen mezua irmoa da: *Trantsizioak eta autonomien sorreratik bultzatutako adostasunezko politika zerbaiterako balio izan duela erakutsi behar diguzue.*

EAJk GALekin zerikusirik ez duela frogatzeko beharra du, Eusko Jaurlaritza eta autogobernua praktika antidemokratiko horietatik urrun dagoela eta euskal instituzioen eta euskal autonomiaren ongizatea bilatze aldera, edozer egiteko prest dagoela Estatuari ardurak exijitzeko, sistemak bere horretan eskaintzen dituen tresnak erabili. *Deia*k jeltzaleen ordezkari nagusiek (Anasagasti, Arzalluz, Imaz…) GALen aurka eta egia argitzearen alde egiten dituzten adierazpen guztiak jasotzen ditu, EAJ euskal gizartearekin eta demokraziarekin dagoela frogatu behar baitu: sistemaren baitan akatsak daude, baina gu sistemaren parte garrantzitsu gara eta ez ditugu akats horiek onartuko.

Gizarteak zerbait egitea eskatzen du eta orain da unea, egia jakin nahi da bere osotasunean eta horrek ekar ditzakeen ondorio guztiekin; euskal instituzioek Aznarrek ordezkatzea espero den Espainiako Gobernu berria presionatu behar dute, aurreko Gobernuaren aurkako zigorra ezin daiteke soilik botere aldaketara mugatu. Hori dela eta, *Deia*k EAJren diskurtsoari leial, jarrera kritikoa erakusten du PPk GALen aurkako ikerketa amaitutzat eman nahi izateari (Ikus, *DEIA* - 01). Urtarrilaren 23ko 1996an, GALen aurkako epaiketak egiara gerturatzen hasi ziren urtean eta Aznar boteretik geroz eta gertuago zegoenean, PPk GALen etapa amaitutzat ematearen beharra adierazi zuen, epaiketak lehenbailehen bukatu eta Espainia beste garai batean sar zedin. Une horretan, PPrentzat GAL iraganeko pasarte iluna da, beste Espainia baten alde egiten dutenei aurrera egiteko oztopoak jartzen dizkiona. Aznarrek beste helburu batzuk ditu; González geroz eta ahulago dago eta Espainiaren lehentasuna PPk proposatzen duen sistema ekonomiko neoliberalerantz jotzea da, iraganean diru publikoarekin egin diren joko zikinen aurrean pribatizazioaren alde apustu egiten duen politika ekonomikoa abian jartzea.

*Deia*k PPren estrategia horren berri ematen du albisteetan eta argi utzi nahi du bai PSOEk, bai PPk ez dutela biktimekiko enpatiarik, bigarren mailako biktimatzat hartzen dituztela, alegia, Espainiako Gobernuari gehiago interesatzen zaizkiola ETAren biktimak estatu terrorismoaren biktimak baino. Halaber, *Deia*ren diskurtsoan, estatu terrorismoaren biktimenganako mespretxuaren aurrean, EAJ haien alde agertzen da: *Espainiako alderdi politikoek bizkarra eman dizuete, baina gure autogobernuak presionatzen jarraituko du egia jakin dadin. Deia*k erakutsi nahi du EAJrentzat eta Euskadiko Gobernuarentzat GALeko

biktimak ez direla bigarren mailakoak, ETAren biktimak bezain garrantzitsuak dira eta justizia merezi dutela.

Bizkarra ematen dien sistema baten aurrean jeltzaleen konplizitatearekin konta dezaketela erakutsi nahi duen diskurtsoa da, estatu terrorismoaren salaketa diskurtsoa EAJren baitan monopolizatu nahi du *Deia*k. Beste ahots kritikoak agertzen diren arren, horiek ez dira garrantzitsuak egunkariarentzat; euskal nazionalismoa politika ustel honen aurrean balio gehigarri bat eskaintzen duela frogatu nahi da. Euskadi eta euskal gizartea lehen lerroan daude eta euskal gizartearen nahia biolentziarekin amaitzea da.

Ildo horretatik, *Deia*rentzat garrantzitsua da PSOEren gainbeheraren berri ematea, baina baita PPren kontraesanen berri ematea ere. Hori dela eta, GALen inguruan PPk izandako jarrera aldaketa salatzeko intentzioa antzeman daiteke zenbait testutan (Ikus, *DEIA* - 01): "*El Presidente del PP añadió a renglón seguido: «tengo mucho más interés en usar todas las medidas para modernizar el país que enzarzarnos en la investigación política sobre los GAL» (El Diario Vasco,* 1996, 12*).*

Horrez gain, Aznarrek PPren kongresuan eginiko adierazpen horiek eskuineko alderdi nazionalistei zuzendutako kritika eta mespretxuarekin batera etorri ziren; EAJ eta CiU "gutxieneko indar politikotzat" hartu zituen. Azken baieztapen hori, GALen ikerketarekiko desinteresarekin batera dira *Deia*k Aznarrek egindako adierazpenetik ateratzen dituen bi ondorio garrantzitsuak eta, bide batez, egunkariak aurkeztutako editorialerako mezuaren muina jasotzen dutenak. Editorialaren titulua ondorengoa da: *"A Aznar ya no le interesa el GAL"*. Baieztapen horretatik irakurleak bata bestearekin harremanduta dauden bi ondorio atera ditzake: 1) Aznarri, boteretik gertuago dagoenetik, ez zaio GALen aurkako ikerketa interesatzen, hortaz, GAL auzia estrategia politikotzat erabili du; 2) Aznarrentzat Estatu Terrrorismoko biktimak ez dira garrantzitsuak, boterea baizik; biktimak bigarren maila batean daude.

Bestalde, editoriala tituluarekin zerikusirik ez duen beste gai batekin hasten da: Euskadiko eta Kataluniako nazionalisten aurka erakutsitako mespretxua. *"El Partido Popular ha cerrado su congreso con una sensación de inminente triunfo electoral que lleva a su líder, Jose María Aznar, a empezar a desdeñar de antemano a quienes supone que no va a atraer. Especialmente, con los nacionalistas vascos o catalanes… "* (*Deia,* 1996, 14). Artikuluak Aznarren jarrera aldaketa salatu nahi duela dirudi, baina, edukia ondo aztertuz gero, ikus daiteke gehiago sakontzen duela PPko buruzagiak eskuineko nazionalisten aurka egindako

adierazpenetan, GALen inguruan izandako iritzi aldaketan baino. PPrentzat GALen biktimak bigarren mailakoak direla erakutsi nahi du *Deia*k, baina, paradoxikoki, PPren jarrera aldaketa Aznarrek nazionalistei egindako mespretxuari erantzuteko erabiltzen duenean, biktimak bigarren lerro batean jartzen ari da. Editorialak ez du bere horretan estatu terrorismoaren gaia jorratzen, hauteskundeen testuinguruan aipatzen baita; alderdi politiko bateko buruak beste alderdi politiko batzuei buruz egindako adierazpenei erantzuteko arma politikotzat erabiltzen da GALen auzia.

Deia kontziente da kalean dagoen giroaz eta GALen inguruan sortzen diren kezkaz; gertatu denarekiko sumintasuna erabatekoa da. GALen epaiketen aurrean gizarte mugimenduek eta zenbait alderdi politikok adierazitako amorrua jasotzeaz arduratzen da egunkaria (Ikus, *DEIA* - 04 pieza). PSOEren Gobernua une kritikoan dago, geroz eta zalantza handiagoa dago kaleetan Gonzálezen zilegitasunaren inguruan eta *Deia*k hori helarazten du: aldaketa eta modernizazioa ekarri zuen Gobernuaren azken egunen aurrean gaude. 1996ko martxoan dira hauteskunde orokorrak eta inkesta gehienek diote PSOEk ez duela irabaziko. Gonzálezek jada ohartu du hauteskundeak galduz gero politika utziko duela eta ez dela berriro aurkeztuko PSOEko hautagai.

*Deia*ren diskurtsoa PPren Gobernuarekin negoziatu beharko dela onartua duen EAJren ikuspegitik helarazia dago. PSOE jada ez da konfiantzazko kidea edo ez behintzat epe motzera begira. Hauteskundeen emaitza jakin arte itxaron beharko den arren, diskurtso aldaketa bat gertatzen ari da estatu terrorismoari buruz informatzerakoan eta, bereziki, PSOEren inplikazioa seinalatzerakoan. Hauteskundeak gertu daude, eta GALen atzean zer dagoen lehentasuna bilakatu da *Deia*rentzat.

Marko politiko hortik abiatuta, biktimek -alderdi politikoen interesagatik bada ere- ikusgarritasun handiagoa hartzen dute. GALen aurkako epaiketa abian dagoen une honetan, beharrezkoa bilakatzen da biktimen egoera transmititzea: nola sentitzen diren, zer behar duten, zer espero duten epaiketaz… Horren adibide dugu 1996ko urtarrilaren 31n Laura Martín García Goenaren alargunari egindako elkarrizketa. Elkarrizketa horretan biktimen sumintasuna eta amorrua transmititu nahi da alde batetik eta, bestetik, sistemako alderdi nagusiekiko (PP eta PSOE) mesfidantza: "*(...) «Confío en la justicia, en que haga todoo lo posible en aclarar lo que ocurrió, pero en los políticos no. Si pienso que Aznar, al menos, no obstruirá la justicia como González»* (Ikus, *DEIA* - 03). Esaldi horrek biktimek PSOEren Gobernuarekiko duten mesfidantza adieraztea bilatzen du. Elkarrizketaren muina Martínen

ondorengo esalditik atera daiteke: *"Pero investigar no cree que lo haga ni el PP ni el PSOE"*. Espainiako bi alderdi politiko nagusiek biktimei bizkarra eman dietela adierazi nahi du esaldi horrek. Mezua argia da: Espainiako Gobernuak ez du egia jakitea nahi eta estatu terrorismoko biktimak bigarren mailakoak dira.

Elkarrizketak ere, ironia erabiliz, PPren kontraesanak azaleratu nahi ditu: *"«Supongo -dice- que el PP debe pensar que si se investiga el GAL hasta sus últimas consecuencias, entonces si González llega a ser oposición pedirá el esclarecimiento de lo ocurrido por la acción del Batallón Vasco Español»"*. Esaldi horrek Aznarrek GALen inguruko ikerketa lehenbailehen amaitu nahi izateari egiten dio erreferentzia. Martín-eri egindako elkarrizketatik baieztapen horiek hautatu izana ez da kasualitatea; Espainiako alderdi politiko nagusiek Estatuaren indar polizialekiko eta Estatuaren biolentzia erabili dutenekiko duten konplizitatea salatu nahi du *Deia*k. EAJk PSOE eta PP neurri berean kritikatzeko duen estrategia politikoarekin bat dator. Hauteskundeak gertu daudenez, jeltzaleek indarra hartu nahi dute. 78 erregimenak eta Autonomien Estatuak irudi atzerakoia transmititzen dute; oso zaila da gobernuburuek sustatutako praktika ez-demokratikoak baimendu dituen sistema batean konfiantza izatea. Testuinguru horretan, Autonomien Estatuaren sustatzaile nagusietako bat izan zen EAJk proposamen bereizgarria egin behar du, gainbeheran dirudien erregimen atzerakoi baten aurrean indarberrituta dirudien mugimendu politikotzat aurkeztu behar du bere burua. Jeltzaleek PP eta PSOE bezalakoak ez direla frogatu nahi dute eta Deiak hori transmititu nahi du.

Piezetan ikus daiteke estrategia politiko hori denboran mantentzen dela, batik bat, GALen auziari buruzko lehenengo sententziak argitaratzen direnean (1998. urtea). Espainiar Estatua eta boterean txandakatzen diren alderdi politikoak krisi batean daudela azpimarratu nahi da. "EL *«CASO MAREY» TENSA LAS RELACIOES PP-PSOE*", "EL *«CASO MAREY» COLOCA BAJO MÍNIMOS LAS RELACIONES PSOE-PP*" bezalako tituluek, gainera, letra larriz agertzeak, Estatu-krisi baten aurrean gaudela aditzera eman nahi dute eta, ez edozein krisi; alderdi-bitasunaren krisiaren aurrean gaude. Trantsizioak ekarri zuen adostasunezko giroa oso urrun dago eta PSOEren eta PPren arteko tentsioa handia da; horrek, Espainia mailan ez ezik, Europa mailan ere eragina izan dezake.

Hori ez ezik, titulu horiekin estatu terrorismoa bi alderdi politiko nagusiek arma politikotzat erabiltzen dutela salatu nahi dute. Garrantzitsuena ez da egia argitzea, baizik eta GALen inguruko epaiketatik argitzen denak zein eragin izango duen aurkari politikoengan.

*Deia*k PPren eta PSOEren hipokresia salatu nahi du, baina Estatu-krisi horren aurrean zerbait egin beharra dago, ikertzen jarraitu behar da egia guztiz argitzeko.

GALen aurkako epaiketak aurrea doazen heinean eta datu berriak argitaratzen diren neurrian, *Deia*k EAJk egoeraren inguruan egiten duen analisiaren berri ematen du eta estatu terrorismoaren atzean egon den guztia argitzeko beharra transmititzen du. Garaiko Euskadi Buru Batzarreko lehendakari Arzalluzek "ETAren aurkako Gerra Zikina onartzeko beharraren" inguruan egindako adierazpenak irakur ditzakegu eta jeltzaleak Espainiako Parlamentuari GALen inguruko ikerketa komisioa irekitzeko egindako eskaera jasotzen da (Ikus, *DEIA* - 15 pieza).

EAJk iraganean gaizki egindakoaren aurrean autokritika egiteko beharra erakutsi nahi du eta, bide batez, testuingurua bera bere proposamen politikoari indarra emateko aukeratzat ikusten du. PPk eta PSOEk euren arteko borroka politikoarekin jarraitzen duten bitartean, beste lurraldeetako indar subiranistek euren gizarteen garapena bilatzen duten proposamenak bilatzen dituzte. Arzalluzen adierazpenek urteetan eraiki den demokrazia defendatu behar dela iradokitzen dute, alegia, gutxi batzuek zapuztutakoa (PSOE, PP, GAL…) ez dezaten beste aukera politiko demokratikoen hautagaitza zalantzan jarri (EAJ edota CiU): Espainiar Estatua krisi batean dago, baina Euskadi eta EAJ horren gainetik daude, demokraziaren babesle dira.

Kode-dokumentuak taularen arabera, Estatu-krisi kontzeptua sustraitze gehien dutenen artean dago eta *Deia*k errealitate hori seinalatzeko duen beharra aditzera ematen du. Hori ez ezik, elkarren artean lotura handia duten zenbait kontzeptu maiz agertzen dira: demokraziaren defentsa, zuzenbide estatua, independentzia judiziala eta salaketa kontzeptuak, esate baterako. *Deia*ren diskurtsoan demokraziaren defentsa zuzenbide estatua eta epaileen independentzia errespetatzearen ikuspegitik egiten da. Estatuaren krisiaren aurrean demokraziak eta justiziak erantzun behar duela exijitzen da; sistema beraren parte den botere judizialak salatu eta ikertu behar du ustelkeria, hark baitu zilegitasun osoa.

5.5.2. Eginen itxiera: EAJ prentsa askatasunaren babesle

Prentsa askatasuna ere sustraitze handia duen beste kontzeptuetako bat da. Demokraziaren aldeko diskurtsoaren baitan, *Egin* egunkariaren itxieraren aurrean *Deia*k prentsa askatasuna aldarrikatzen du. Argi utzi nahi da *Egin*ek ETArekin duen lotura oraindik argitzeke dagoela eta hori frogatzen ez den bitartean, *Egin* egunkaria errugabea dela;

ondorioz, *Egin*en itxiera prentsa askatasunaren, demokraziaren eta zuzenbide estatuaren aurkako erasotzat hartzen da.

Kasu honetan ere, *Deia*ren diskurtsoa jeltzaleek markatutako lerro politikoarekin bat dator. Estatua krisi batean suminduta dago; terrorismoaren aurkako borroka aitzakiatzat hartuta Estatua biolentzia erabiltzen ari dela frogatzen ari da eta ezker abertzaleak geroz eta indar handiagoa hartzen du. Gainera, hauteskunde garaia da eta *Egin*en itxiera ezker abertzalea eta ETA ahultzeko estrategia da. *Deia*k *Egin* itxi zuten egunean argitaratutako aleak argi utzi nahi du EAJ erabat aldentzen dela gehiengo alderdi politikoen iritziaren inguruan eta, aldez aurretik, prentsa askatasunaren eta demokraziaren alde dagoela, nahiz eta, *Egin*en alde egiteak, inplizituki jeltzaleen aurkari politiko Herri Batasunaren adierazpen askatasuna defendatzea dakarren.

*Egin*en itxieraren aurrean ahots kritikoak aurki ditzakegun arren, *Deia*k jasotzen duen *"Las reacciones"* atalean ETA eta Herri Batasunaren arteko loturari dagokionez erabateko adostasuna dagoela ikus dezakegu eta, ondorioz, *Egin* harreman horren ordezkari mediatikotzat hartzen dela. EAJren jarrera, berriz, oso bestelakoa da. *Egin*en itxieratik egun batzuetara, *Deia*k Euskadi Buru Batzarrak *Egin*en itxieraren inguruan egindako txosten juridikoa argitaratzen du bere osotasunean eta itxiera konstituzionalki zilegia den ala ez aztertzen du. Bertan EAJk adierazten du Kode Penalak, zilegi ez diren jarduerak burutzen dituzten pertsona juridikoen aurka egitea baimentzen duen arren, zalantzan dagoela hedabide bat ixtea hartu daitezkeen neurrietako bat ote den (Ikus, *DEIA* - 07 pieza). Gainera, txostenaren berri ematen duen albisteraren titulua ondorengoa da: *"El cierre de Egin no es jurídicamente licito"*. Hortaz, hedabide baten itxieraren aurkako jarrera irmoa da.

*Deia*k adierazi nahi du *Egin*en itxiera zuzenbide estatuaren aurkakoa dela eta gure sistemaren oinarri diren adierazpen askatasunaren eta prentsa askatasunaren balio demokratikoen aurka egiten duela; *Deia*rentzat *Egin*en itxierak ez du zilegitasunik, ez ikuspuntu juridikotik ezta ikuspuntu politikotik ere. Gainera, EAJren txosten juridikoa Herri Batasuneko kideek eta *Egin*eko langileek itxieraren aurka egindako adierazpenekin tartekatzen da; ildo horretatik, *Deia*k ondorengoa adierazi nahi du: terrorismoaren aurkako borroka aitzakiatzat hartuta, Eginen itxiera fokua desbideratzeko eta ezker abertzalea ahultzeko estrategia politikoa da, epaiketa juridiko baten aurrean baino, epaiketa politiko baten aurrean gaude. Diskurtso hori, bat dator aipatu berri dugun EAJren demokraziaren eta adierazpen askatasunaren aldeko aldarrikapenarekin.

6. Zein izan da hedabideen diskurtso orokorra? Konparaketa

*Innerarity*ren pentsamenduarekin bat egitera eraman gaituzte hedabide bakoitzaren analisitik eratorritako ondorioek. Aztertu ditugun hedabideak -salbuespenak salbuespen- garai jakin bateko klima politikoaren isla dira. Guztien diskurtsoaren atzean interes politiko eta ideologikoak nabari dira eta, orokorrean, hedabide guztiek interes horiek bultzatuta jorratzen dute estatu terrorismoaren gaia. Alegia, trataerak ez du espresuki egia argitzea eta biktimek jasandako minaren erreparazioa bilatzen; helburua -hedabide guztietan- gaiarekiko posizionamendu politikoa adieraztea da edota, zenbait kasutan, alderdi politikoren baten estrategia politikoa aurrera eramatea eta estrategia politiko horren berme mediatikoa izatea.

Aztertutako hedabideak garai horretako iritzi publikoaren lekuko dira, bakoitza bere ikuspuntutik. Zenbait kasutan, hedabide bakoitzaren diskurtsoaren atzean biktimen sumintasunarekiko sentsibilizazio maila txikiagoa edo handiagoa nabari daiteke, baina sentsibilizazio maila handiagoa egotea ez da biktimen minarekiko erabateko identifikazioarekin nahastu behar. Biktimekiko gertutasun handiagoa erakusten duten hedabide eta piezetan ere, interes politikoa dago. Ezin daiteke esan biktimen ordezkari soila izatea helburu duen hedabiderik dagoenik. Diskurtsoaren eraikuntzaren baitan biktimen ordezkari bilakatzen diren hedabide horiek ere interes politiko eta ideologiko baten oinarrian dauden printzipioei leial egiten baitute estatu terrorismoko biktimen defentsa hori. Ez dago ideologiaz eta interes politikoez haraindi estatu terrorismoko biktimen defentsa sutsua eta transbertsala egiten duen hedabiderik.

Aztertu ditugun hedabideen artean, *Egin* egunkaria estatu terrorismoko biktimen egoeratik gertuen dagoen egunkaria litzateke eta, hori hala izanik ere, *Egin*en estrategiak, lehenago aipatu dugun bezala, ezker abertzalearen estrategia legitimatzeko nahiari erantzuten dio. Hortaz, hori esanda, egokiagoa litzateke diskurtsoa eta esan berri duguna zentzu hertsienean interpretatuz, *Egin*ek, biktimekiko gertutasuna erakustea baino -eta hala interpreta daiteke egunkariak izandako roletik-, haien sumintasuna ezker abertzalearen estrategia politikoaren baitan kokatu nahi duela adieraztea.

Ildo horretatik, kontuan hartu beharreko beste ezaugarri bat "bigarren mailako biktima" kontzeptuarekin bat datozen esanahien kopurua da. *Egin*etik eskuratu ditugun piezen azterketak aukera ematen du ikusteko hiru hedabideetatik *Egin* egunkaria dela "bigarren mailako biktima" estatusari modu esplizituan erreferentzia gehien egiten dioen egunkaria (Ikus, Kode-Dokumentuak Taula). Izan, ere *El Diario Vasco* da "bigarren mailako biktima"

kontzeptuarekiko sustraitzen handiena izan duen egunkaria, baina *El Diario Vasco*ren kasuan, kontzeptu hori kodetu denean, ez da estatus horri kritika egiten zitzaiola antzeman delako, baizik eta, zenbaitetan, bi aldeetako biolentzia aldi berean gertatzen zenean, *El Diario Vasco*k, analisian aipatu dugun moduan, ETAren biolentziari leku handiagoa ematen zioelako.

Aztertu ditugun hedabideen artean desberdintasunak ikus ditzakegun arren, azterketaren irudi orokorrak interes politikoek bultzatutako diskurtsoen aniztasuna erakusten digu. Desberdintasunak ez dira, espresuki, biktimen egoeraren trataerarekiko antzematen, baizik eta, biktimen egoerarekiko gerturatze horretan nagusitzen diren diskurtso politikoetan baizik. Egunkari bakoitzak estatu terrorismoko kasuen aurrean hartzen duen jarrera, garai jakin batean eta testuinguru jakin batean egunkari horrek zuen diskurtso politikoa aldarrikatzera bideratuta dago. Estatu terrorismoaz hitz egitea eta haren aurrean hartzen den jarrera era batekoa a la bestekoa izatea, diskurtso politiko zehatz bat plazaratu nahi izanaren baitakoa da. Azken helburua, hain zuzen ere, diskurtsoa berrestea da. Estatu terrorismoaren gaian helburua ez da biktimei ahotsa ematea, Diskurtsoaren azken helburua, alegia, irakurlearen begietatik sartzen dena, ez da biktimak bizitzen ari direna, edo ez behintzat, hori bakarrik. Estatu terrorismoaz argi eta garbi hitz egiten duten hedabideek ere, helburu politiko bat dute azken batean. Estatu terrorismoa aitzakia da postura politiko baten aldeko apustua aurkezteko. Estatu terrorismoa arazoa da eta hedabideek planteatzen dutena arazoaren konponbidea. Hortaz, Hedabideak, testuinguruaren baitan, biktimen errealitatetik haraindi egon nahi dute.

Egoera horren baitan, hedabide guztiak batera hartuta gerturatze eta aldentzeak ikus ditzakegu, baina horiek guztiak bakoitzaren atzean dagoen estrategia politikoari erantzuten diote. Hautatu ditugun hedabideak garaiko legebiltzarretako eta iritzi publikoko panorama erakusten dute, hedabideen diskurtsoak aztertu beharrean, egunkari bakoitzaren diskurtsoarekin antzekotasun edo gertutasun handiagoa zuten alderdi politikoen adierazpenak aztertu izan bagenitu antzeko ondoriotara iritsiko ginateke. Baieztapen horrek Innerarityk *Realidad e Irrealidad de los medios de comunicación (*Innerarity, 2018) testuan defendatzen duen tesia berresten du, baina haratago doa: hedabideak ez dira soilik interes orokorrekoak diren gaien zerrenda aurkezten digutenak, interes orokorreko gaien aurrean plazaratzen diren diskurtsoen sortzaile nagusiak ere badira. Eta hori guztia testuinguru historiko eta soziopolitikoarengatik baldintzatuta dago. Egunkariaren ideologiak berak aurretiko jarrera bat aurkezten dio, bai egunkariko langilearei eta egunkariaren irakurleari, alegia, egunkariak duen marko orokorra. Ondoren, testuinguruaren eta panorama soziopolitikoaren baitan gertatzen

diren aldaketen eta gertaeren arabera, egunkariak aurretik ezarri duen marko ideologiko horri hobekien egokitzen den diskurtsoa eraikitzen da.

Analisian esan berri dugun bezala, aztertu diren egunkari guztietatik erabatekoa da *Egin*ek gainerako egunkariekiko dituen desberdintasunak, batik bat, aztertu ditugun piezen artean estatu terrorismoaren gaiari leku gehien ematen dioen egunkaria delako. *Egin*ek ez baitu soilik egunkari jeneralistentzat "mediatikoak" diren kasuez hitz egiten, horren ezagunak ez diren eta beste egunkarietan aurkitu ezin diren kasuez ere hitz egiten baitu; lehen aipatu dugun CNTko langilearen aurka GAL erreibindikatuz egindako pintaketen berri ematen duen albistea, esaterako (Ikus, *EGIN* - 018 pieza). Pieza hori ezin daiteke ikusi gainerako egunkarietan. Pieza hori gainera, esanguratsua da, soilik Euskal Herriko gertakarien berri ematea espero den *Egin* ohiko jarreratik aldentzen baita. Dena den, albiste hori aipatzeak aurreko paragrafoetan aditzera eman duguna baino ez du berresten; *Egin*ek estatu terrorismoaz hitz egiten du zilegitasunik aitortzen ez dioen sistema ustel horren gabeziak azaleratzeko baliagarria zaiolako eta, bide batez, sistema horren aurka edozein bide erabiltzea -biolentzia ere- defendatzen duen diskurtso bat aurkezten digu.

Hala eta guztiz ere, ezin daiteke esan, aztertutako gainerako egunkari guztietan estatu terrorismoaz hitz egiteko interesik ez dagoenik. Aztertu ditugun *Deia*ren piezetan estatu terrorismoaren erabateko salaketa badago eta, *Egin*ek egiten duen modu berean ez bada ere, sistema baten ustelkeriak azpimarratzeko nahia ere antzeman daiteke. Gainera, *Deia*tik ateratako piezen daten atzean dagoen testuinguruari erreparatzen badiogu, egunkariak estatu terrorismoko kasuez hitz egiteko duen interesa garai horretan EAJ duen jarreraren baitan justifikatzen da. Dagoeneko aipatu dugu ezaugarri hori *Deia*ren inguruko analisiaren atalean, eta, esan beharra dago, nahiz eta, *Egin*ek eta *Deia*k interes politiko ezberdinengatik bultzatuta hartzen duten estatu terrorismoaren aurkako diskurtso hori, bien arteko diskurtsoan antzekotasunak antzeman daiteke. Desberdintasuna, behar bada zenbait terminoen erabileran antzeman daiteke. *Egin*en diskurtsoan agresibitate gehiago nabaritzen da, konnotazio iraultzailea baitu, zapalduen ahotsa bilakatzeko asmoa duen diskurtso baten aurrean jartzen gaitu.

*Deia*k berriz, nahiz eta aztertu ditugun piezetan garrantzi handia ematen dioen estatu terrorismoari, gabeziak dituen sistema horren zilegitasuna aitortzen jarraitzen duen alderdi politiko baten ikuspuntutik azaltzen da errealitatea. *Deia*ren diskurtsoan ez da iraultza baten beharra iradokitzen duen mezua nabaritzen, aldaketa bat edo "erreforma" bat planteatzen duen

diskurtsoa da. Ez da sistemaren zilegitasuna zalantzan jartzen, baina onartu egiten da gauza asko gaizki egin direla, EAJk garai horretan defendatzen zuen posturari leial izanik. Ideia hori berretsi egiten da, lehen aipatu dugun bezala, aldaketa horren beharra eta eragindako minaren erreparazioaz hitz egiten denean EAJko ordezkariek egindako adierazpenen bitartez aurkezten delako (Arzalluz, gerra zikinari buruz hitz egiten edota, Anasagasti "X gizona" delakoari erreferentzia eginez). *Egin*en kasuan berriz ez da "erreforma" eskatzen, haustura baizik, sistemarekin akabatzea, *Egin*entzat estatu terrorismoarekin gertatu denak 78 erregimena eta Autonomien Estatutua erabateko gainbeheran dagoela baieztatzen du, ez soilik aldaketen bitartez konpon daitekeen krisi batean. Euskal Herriko hedabideen eta gizartearen ikuspuntutik, esan genezake *Egin*ek eta *Deia*k euskal gizartearen eta, batik bat, euskal abertzaletasunaren txanponaren bi alde irudikatzen dituztela. Batetik, *Egin*ek euskaldunen aurka dagoen Estatu erreakzionario eta zapaltzaile baten aurkako diskurtsoa erakusten du, ezker abertzaletik gertu dagoena; bestetik, *Deia*k euskaldunok gauzak desberdin egiten eta arau demokratikoak eta giza eskubideak errespetatuz egiten ditugula defendatzen duen jarrera nazionalista eta moderatua islatzen duen EAJren postura aurkezten du. Azken batean, bi egunkari horiek izango lirateke garaiko euskal gizartearen gehiengoa ordezkatzen zuten bi diskurtso nagusiak jasotzen zituzten hedabideak, izan ere, arlo politikoan egunkari bakoitzaren homologo izango liratekeenak garaiko euskal indar politiko nagusiak baitziren (EAJ eta HB). Edonola ere, biek estatu terrorismoaz hitz egiten dute eta Euskal Herriko ikuspuntutik aztertzen dute gaia, hau da, Euskal Herriko klima politiko eta sozialaren jakitun izanik. Bi egunkarien diskurtsoan interes orokorreko gaitzat hartzen da estatu terrorismoa, baina batik bat, euskal gizarteari eragiten dioen gaitzat; diskurtsoa Euskal Herriko markora mugatzen da.

Ez da helburu bera nabaritzen, ordea, *El Mundo*ren kasuan. Nahiz eta estatu terrorismoa argitzeko berebiziko interesa erakusten duen, ez du gaia euskal ikusmolde batetik aztertzen, Estatu mailako arazotzat hartzen du. Halaber, *El Mundo*ren diskurtsoan ez da *Egin*en kasuan bezala, sistema ustel baten gabezi nagusietako baten berri emateko nahia antzematen. Are gehiago, ezin daiteke san *El Mundo*ren diskurtsoa *Deia*k planteatzen duen aldaketaren edo erreparazioaren markoan dagoenik. Aldaketa, beharbada, exijitzen da, baina ez da sistema baten aldaketa exijitzen, Gobernu aldaketa baizik. *El Mundo*k estatu terrorismoaren aurkako seinalamendu politiko nagusia egiten du, diskurtsoa alderdi politiko jakin baten aurkako akusazio moduan planteatzen baitu. *Egin*entzat arazoa sistema bera da, *Deia*rentzat arazoa sistemaren parte diren Espainiako alderdi politikoena, *El Mundo*rentzat arazoa PSOE da.

Estatu terrorismoa aitzakia da *El Mundo*ren gustukoa ez den alderdi politikoa eta haren hautagai nagusia espektro politikotik baztertzeko. *El Mundo*k *Egin*ek eta *Deia*k bezala, sistemaren gabeziak eta akatsak seinalatzen ditu, batik bat botere-banaketaren falta salatzen baitu, baina akats eta gabezi horiek Alderdi Sozialistaren baitan gorpuzten ditu. *El Mundo*rentzat sistemaren ardi-beltza eta hortaz, gure instituzio demokratikoak eta zuzenbide estatua arriskuan jartzen dutenak PSOE eta Felipe González dira. Argi dago Pedro J. Ramírezentzat estatu terrorismoa eta haren biktimak gerra politiko baten arma edo jaurtigai nagusia izan zirela, Gonzálezekin akabatzeko erabili zuen kolpe gogorrena. Estatu terrorismoa PSOEren inguruan argitaratutako beste hainbeste gai polemikoetako bat, baina zalantzarik gabe, PSOEren Gobernuarekin bukatzeko gehien erabili zen arma politikoa.

Estatu terrorismoaz hitz egiten duten euskal hedabideekin konparatuta, ordea, *El Mundo*k Estatuaren ikuspegitik aztertzen du gaia, hau da, Espainia osoari kaltetzen dioen arazo baten ikuspegitik, herrialdean aldaketa politikoa ezinbestekoa dela adieraztea helburu duen diskurtso baten aurrean baikaude. Inplizituki ondorengoa adierazi nahi da: PSOE ez den -alegia PP- eta benetan askatasuna, balio demokratikoak, zuzenbide estatua eta botere-banaketa defendatzen duen beste alderdi politiko bat egongo balitz boterean hau ez litzateke horrela gertatuko, PSOE baita egun Espainiako hiritarrok bizi ditugun gaitz guztien errudun nagusia. Nahi hori *El Mundo*k estatu terrorismoko kasuak aurkezten dituen moduan eta egituran antzeman daiteke.

El Mundo da estatu terrorismoko kasuen ondoan PSOEren ustelkeria kasuen berri ematen duten beste hainbat albiste argitaratzen dituen egunkari bakarra. Aztertu ditugun hedabideen artean "bidegabeko eralgitze" kontzeptuari leku gehien ematen dioena da eta, estatu terrorismoaz hitz egiten denean, talde terroristak finantzatzeko diru publikoa erabili izanaren akusazioari gehien eusten den egunkaria.

Aipatu ditugun hiru egunkari horien erabateko kontrako aldean gaiarekiko distantzia gehien mantentzen duten bi hedabideak *El País* eta *El Diario Vasco* izango genituzke.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, *El País*en eta *El Diario Vasco*ren artean antzekotasunak nabariak diren arren (diskurtso instituzionala, ez da bustitzen eta, tarteka, estatu terrorismoa inplizituki justifikatzen du), desberdintasunak ere antzeman daitezkeela.

Desberdintasun horiek diskurtsoa nondik helarazten denaren araberakoak dira, alegia, aditzera eman nahi dena Madriletik ala Euskal Herritik esaten den zeharo desberdina da eta

desberdintasun handi batera eramaten gaitu antzekoak diren *El País*en eta *El Diario Vasco*ren diskurtsoen artean. Bi egunkariek estatu terrorismoaz hitz egiten dute eta haren justifikaziotik edo garrantzi ezetik gertuen dauden bi diskurtsoak dira, analisian ikusi dugun moduan. Estatu terrorismoaz hitz egiten denean, garai horretan gizartea eta azken urteetan eraikitako "sistema demokratikoa" bizitzen ari den biolentziari egiten zaio erreferentzia, alegia, sistema mehatxatzen eta hiritarrak arriskuan jartzen dituen ETAren biolentziari.

Testuinguru horren baitan *El País*en diskurtsoan estatu terrorismoari garrantzia kentzeko edota, zenbaitetan, justifikatzeko nahia antzeman daiteke. Deigarria da oso, Zabalzaren kasuan balio handia ematen zaiela, garai horretan instituzio nagusietako ordezkarien aldetik (ministroak, Gobernuko kideak, etab.) egindako adierazpenei. Garaian nagusi den biolentziari erreparatu nahi zaio batik bat, Trantsizioaren bitartez eraikitako 78 erregimena erasotzen duen sistema eta, bide batez, Espainiara modernizazioa ekarri duen PSOEren eta Felipe Gonzálezen Gobernua mehatxatzen duen ETAren biolentziari eman nahi zaio garrantzia. Estatu terrorismoa, traba bat baino ez da diskurtso horren eraikuntzan, zilegitasuna kentzen baitio Gonzálezen Gobernuak eta 78 erregimenak orain arte lortu izandakoari.

*El País*en diskurtsoa nahasgarria gerta daiteke gertatzen ari dena ulertu nahi duen irakurle batentzat, ez baita egia argitzeko nahi bat nabaritzen. Eztabaidarako bidea irekitzen du: pertsona bat desagertu denean eta torturatu dutenean, edota indar polizialen eskutik pasa ondoren hilda agertzen denean, zein izan beharko litzateke albistearen gakoa? *El País*ek egia argitu nahi du ala gertatu denaren arrazoia bilatzen du? Aztertutako piezek eta haietatik egindako analisiak bigarren galdera iradokitzen du. *El País*en du estatu terrorismo kontzeptuak presentzia gutxien (Ikus, 3. Eranskina) eta "erruduntasun presuntzioa" kontzeptua agertzen da gehienbat. Innerarityk aipatzen duen *Agenda Setting* delakoan, *El País*entzat, estatu terrorismoa ez litzateke gai nagusien zerrendan egongo.

Antzeko zerbait antzeman daiteke *El Diario Vasco*ren kasuan. Zenbait praktika kritikatzeko asmoa atzeman dezakegun -analisiaren atalean aipatu berri dugu Euskadiko-Ezkerraren postura bezalakoak jasotzen diren piezak ere badaudela- arren, sistemaren zilegitasuna zalantzan jar dezaketen adierazpenekiko distantzia mantentzen da. *El Diario Vasco*ren kasuan gaiarekiko interes falta ez da *El País*en bezain nabaria eta ezin daiteke esan estatu terrorismoaren erabateko justifikazioa dagoenik, baina egia da diskurtso instituzionalarekin bat egin nahi duela. Ildo horretatik, estatu terrorismoko kasu batzuei

besteei baino garrantzi handiagoa ematen die. Biktimarekiko sentsibilizazioa nabarmenagoa da biktimaren izaerak eta jarrera politikoak *El Diario Vasco*ren interesekin bat egiten badu; interes horien arabera, biktima horretaz hitz egitea egunkariarentzat erosoa gertatuko da ala ez zaio garrantziarik emango. Alde horretatik, nabaria da Madrilgo *El País* egunkari jeneralistaren eta soilik Gipuzkoan saltzen den *El Diario Vasco*ren arteko diferentzia. Ez da gauza bera gai berari buruz Euskal Herritik ala Madrildik informatzea (*El Mundo vs Deia* eta *Egin*en kasuan ere ikusi dugu). Gipuzkoan egoteak gaia gertutasun handiagoarekin aztertzera eta azaltzera eramaten du *El Diario Vasco*.

Segundo Mareyren kasua tratatzeko modua eta zeharo desberdina da *El País*en eta *El Diario Vasco*n, nahiz eta bi egunkariek ikuspegi instituzional batetik informatzen duten. *El País*ek "akats" hitza erabiltzen duenean inplizituki estatu terrorismoaren justifikazioa bilatzen du. Aldiz, *El Diario Vasco*ren "akats" hitzak familiak eta senideek Marey agertuko dela duten esperantza iradokitzen du.

Diskurtso instituzionalagoa jarraitzen duten egunkarien multzoan, lurraldearen ezaugarriak garrantzi handia hartzen du eta antzeko diskurtsoa izan dezaketen egunkarien artean ñabardurak antzematea ahalbidetzen du. Gertatzen zenaren aurrean Euskal Herrian hartzen zen jarrera eta Madrildik hartzen zen jarrera zeharo desberdinak zirela esan dezakegu.

7. Gibel solasa

Egungo errealitatea albo batera ezin utzirik eta analisitik jaso ditugun hausnarketak gogoan izanda, errealitate politikoaren eta bertan jokoan zeuden interes politikoen arabera jorratu da estatu terrorismoaren gaia. Testuinguruak eta garai horretan nagusi zen biolentzia-klima erabateko eragina izan du gaiaren trataeran, eta diskurtsoari dagokionez desberdintasun handiena ETAren eta Estatuaren biolentziaren arteko talkaren baitan nabaritzen da; bi multzo nagusi aurki ditzakegu: ETAren biolentziaren aurka estatu terrorismoa gerta daitekeen edo justifikatuta dagoen biolentziatzat hartzen duten hedabideak alde batetik, eta, estatu terrorismoa -neurri handiagoan edo txikiagoan- salatzen duten hedabideak bestetik. Era berean, bereizketa horretan anbiguotasunean geratzen diren diskurtsoak antzeman daitezke eta zenbaitetan gaiaren inguruan ez dutela busti nahi dirudi.

Edonola ere, diskurtso guztiek egia jakiteko nahi bati baino gehiago, interes zein estrategia politikoei erantzuten diete. Hala, diskurtso bakoitza, egunkariaren atzean dagoen ildo ideologikoaren arabera, estatu terrorismoarekiko jarrera batean edo bestean gorpuzten da,

baina diskurtso bakoitzaren gailurrean estrategia politiko baten aldarrikapena eta defentsa dago (sistema baten zilegitasuna, gobernu batekiko konfiantza, gobernua aldatzeko beharra, sisteman aldaketak egiteko beharra, sistema suntsitzeko beharra…).

Lan honek hedabideak garai bakoitzaren klima politikoaren ispilu direla berresten du. Alderdi politikoen eta instituzioen diskurtsoa arazoak pairatzen dituztenen beharrei gailentzen zaio. Alegia, gaia garrantzitsua izango da eta interes orokorreko gaia bilakatuko da, baldin eta hedabide bakoitzak ezartzen duen marko ideologikoaren baitan intereseko gaitzat har badaiteke.

Hala ere, estatu terrorismoaz hitz egiteko aitzakia asmo politiko edo ideologikoa bada, ez gara bere horretan interes orokorreko gai bati buruz hitz egiten ari, interes politiko jakin bati erantzuten dioen gai bati buruz baizik. Ondorioz, gaia ez da interes orokorreko ikuspegi batetik tratatzen, interes partikular batetik baizik; gertatutakoa ez da inoiz biktimen eta mina pairatu dutenen ikuspegitik aztertuko, baizik eta eztabaidaren foku izan diren aktore politiko nagusien begietatik.

Aztertu ditugun egunkarien artean badira zenbait espresio, hitz, adierazpen edota diskurtso osatuak. Horiek imajinario kolektiboaren parte izatera pasa eta estatu terrorismoaz hitz egiterakoan herri-erabilerako kontzeptu bilakatu dira. Estatu terrorismoaren inguruan gutxieneko ezagutza duen edonork "X Gizona" kontzeptua Felipe Gonzálezekin lotuko du eta, kasu gehienetan, berehala *El Mundo* eta Pedro J. Ramírez etorriko zaizkio burura. "X Gizona" eskuin liberaletik gertu dagoen kazetari batek bultzatutako ezizena izan arren, ezker alternatiboko mugimenduek PSOEren politikekiko desadostasuna adierazteko erabili izan dute, Julio Anguitaren kasuan ikusi dugun bezala.

Esan daiteke Pedro J. Ramírezek, PSOEren eta Gonzálezen aurka zuen borroka mediatikoaren baitan, bidea urratu duela memoria kolektiboan "X Gizona" kontzeptua zabaltzeko. Gerra politiko eta mediatiko baten baitan sustatzen hasi zen kontzeptua Espainiako historia garai ilunenetako baten Presidente izandakoa definitzeko eta kritikatzeko erabili ohi den ezizen bilakatu da.

Gerra mediatikoak utzitako arrastoa seinalatzen duen adibide dugu duela urte batzuk Pablo Iglesias Unidas Podemos alderdi politikoko buruzagi ohiak Felipe Gonzálezi erreferentzia egiteko erabilitako terminoa: "*Aquel que tiene el pasado manchado de cal viva*" https://www.youtube.com/watch?v=oQ9tEK6uewQ.

Analisirako erabili ditugun kontzeptuen zerrendan gehitu ez dugun arren, *El Mundo* egunkariko pieza batean "*cal viva*" hitza agertzen da, Lasa eta Zabalaren gorpuak aurkitu zirenean zehazki. *El Mundo* egunkariak berak zirrara handia sortu zuen albiste horrekin eta Lasa eta Zabalaren heriotza eta haien gorpuak ezabatzeko erabili ziren metodoak memoria kolektiboaren oroitzapenen parte izatera pasa dira. *Cal Viva, Guerra Sucia* edo *Señor X* hitzak entzuten direnean PSOE eta Felipe González etortzen zaizkigu burura. Hori Pedro J. Ramírezek eta *El Mundo* egunkariak -lehenago, Diario 16 egunkariak- garaiko Gobernuaren aurka burututako gerra mediatikoa irabazi duten seinaletzat interpreta daiteke.

El Mundo egunkariak urte horietan zehar argitaratutako piezek izan zuten oihartzuna ikusita eta, orduz geroztik gertatutako aldaketa politikoei erreparatuta, Pedro J. Ramírezek eta *El Mundo*k memoria kolektiboaren kontaketaren eztabaida irabazi dute. Felipe Gonzálezen eta PSOEren agintaldia defendatzen duen gizarteko sektore handi bat egon daitekeen arren, estatu terrorismoko kasuek utzitako arrastoa eta *El Mundo* bezalako hedabideek kasu horien atzean zegoena argitzeko egindako ekarpena memoria kolektiboaren parte bihurtu dira.

Lanak ez du gaiak memoria kolektiboan izandako eragina aztertu nahi, baina garrantzitsua da aipatu dugunari erreparatzea, zeren eta, ondorengo galderara eramaten gaitu: Non dago, politizazio eta borroka mediatiko guzti honen atzean, estatu terrorismoko biktimen hitza?

Hedabideek estatu terrorismoa tratatzeko modua politikaren "espektakularizazioaren" adibide da. Bi errealitate paralelo sortu dira gai beraren inguruan.

Alde batetik, gaiaren inguruan alderdi politikoek -hedabideen laguntzarekin- gorpuztutako eta eraikitako markoen markoa, diskurtso politiko guztiak biltzen dituena. Bestetik, biktimen errealitatea dugu. Bertan, ez dira soilik estatu terrorismoko biktimak sartzen, ETAren biktimak ere sartzen dira. Bigarren errealitate hori bigarren lekuan geratzen da, ia antzeman ezina da, jendeak ez du ezagutzen.

Berehalakotasuna nagusi da eta tentsio politikoa pizteko espresio eta esanahiak bilatzen dira gaur egungo errealitatean. Jendearen arazoek indarra galtzen dute, ez baitira ondo egokitzen politikaren "espektakularizaziora", arazo horiek atentzioa ematen duten espresioetan eta hitzetan gorpuztu behar baitira hedabideen agendaren parte izateko. Alderdi emozionala puzten duten testuak, tituluak, argazkiak erabili behar dira.

Estatu terrorismoaren baitan, biktimen mina, aurkari politikoa gutxiesteko baliagarria gertatzen ez bada, ez da interesgarria zenbait hedabideentzat. Biktimen minari lekua ematen dioten hedabideek ere, ez dute biktimekiko eta gizartearekiko ardura hartzen, interes politiko jakin batzuei erantzun nahian informatzen dute.

Estatu terrorismoaren gaiaren eta biktimen egoeraren berri eman denean, testigantza eta bizipen hori hedabideen interes politikoentzako baliagarria gerta zitekeenean egin da. Horrek, ETAren biolentziaren nagusitasunarekin batera, estatu terrorismoko biktimak albo batera geratzera eraman du; euren interesak bigarren mailakotzat hartzen ziren. Biktimak erabili egin dituzte. Politizazioa nagusitu egin zaio biktimen minari eta hori aztertu ditugun pieza guztietan antzeman daiteke. Aztertutako piezetan ez da biktimek bizi izandakoaren berri ematen eta, horren berri ematen bada, gertaera bakoitza aldarrikapen politiko bati lotua dago.

Ezin daiteke ukatu gaiaren testuingurua bera politikoa dela eta okerra izango litzateke, estatu terrorismoko biktimen aldarrikapenen atzean konnotazio politikoa duen diskurtsoa dagoela ukatzea, ardura politikoak exijitzea eskatzen duen errealitate batez hitz egiten ari baikara. Dena den, gauza bat da, eskubide politikoak aldarrikatzea eta, beste gauza bat da, hedabideak erabiliz eskubide horien inguruko trataera alderdikoia egitea. Alderdikoitasuna eskubide politikoen aldarrikapenari eta gizarte interesei gailendu zaio eta horrek estatu terrorismoko biktimen izaeraren eta garapen sozialaren eraikuntzan eragina izan du.

Hala eta guztiz ere, tankera honetako lanak baliagarriak dira garai jakin batean gai jakin baten inguruan plazaratu ziren iritzi eta diskurtso guztien ikuspegi orokorra izateko. Lan honen bitartez ez da bilatu estatu terrorismoaren trataeraren baitan hedabide bakoitzak izan duen jarrera justifikatzea, baizik eta, jarrera horiek existitzera eraman duten faktoreen eta gertaeren analisia egitea eta ulertzea. Lan hori gaiak duen pisuaren jakitun izanik egin da eta alderdi emozionalak duen garrantziaz jabeturik. Halaber, aurreko paragrafoetan adierazitakoak, gaiak duen alderdi emozional horrek bultzatuta, hedabideek gaiaren inguruan egin duten trataeraren aurkako salaketa edo kritikatzat har daiteke. Azken batean, analisi horretan ikusi dugu estatu terrorismoko gaiaren baitan alderdi politikoen interesek nagusitasuna hartu dutela.

Hori da estatu terrorismoko biktimak oroitzeko eta haiekiko errespetua gordetzeko modu aproposena: beraiek bizi izan zutena ezagutzen saiatzea eta garai horretan gertatutakoa ulertzeko eta aztertzeko ahalegina egitea, biktimek merezi duten -eta izan ez duten- lekua gogoan izanik.

Bibliografia eta Iturriak

Albin, D. 2019. «Políticos condenados por su relación con el GAL pasaron menos tiempo en la cárcel que los jóvenes de Altsasu». *Público*. Abuztuaren 19a. https://archivo.kaosenlared.net/politicos-condenados-por-su-relacion-con-el-gal-pasaron-menos-tiempo-en-la-carcel-que-los-jovenes-de-altsasu/index.html

Arrazola Ruiz Sara, Mellado-Moreno,Pedro C. 2022. «La construcción de la memoria democrática y la transmisión de su relato a través de la educación». *Revista Propulsión Interdisciplina En Ciencias Sociales Y Humanidades,* 5(2), 102–116 orr. https://ojs.revpropulsion.cl/index.php/revpropulsion/article/view/89/173

Arretxe, Ion. 2015. «Ion Arretxe: "La tortura es muy incómoda, porque su existencia cuestiona el Estado de derecho"». Álvaro Minguitoren elkarrizketa. *El Salto*, abenduaren 11. https://www.elsaltodiario.com/hemeroteca-diagonal/entrevista-ion-arretxe-torturado-intxaurrondo#

Argituz. 2013. «Análisis y recomendaciones sobre el Decreto 107/2012, de 12 de junio, de declaración y reparación de las víctimas de sufrimientos injustos como consecuencia de la vulneración de sus derechos humanos, producida entre los años 1960 y 1978 en el contexto de la violencia de motivación política vivida en la Comunidad Autónoma del País Vasco». *Argituz* Giza Eskubideen Aldeko Elkartea. https://drive.google.com/file/d/1RWHMjSnQyMTXPsaH5N4UK6DdmKJOt1ox/view

Arqués, Ricardo eta Miralles, Melchor. 1989. *Amedo: el Estado contra ETA*, Barcelona, Plaza & Janés-Cambio 16, 1989.

Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación. 2025. «Estudio General de Medios: Diarios». 2025eko irailaren 25ean eskuratuta. https://reporting.aimc.es/index.html#/main/diarios

Baeza López, Álvaro. 1996. *GAL: Crimen de Estado*. Press ABL. 2.º edizioa.

Baeza López, Álvaro. 1996. *Guerra Sucia*. Madril: ABL Press. 2.º edizioa.

Baketik. 2025. «Legazpik bat egiten du frankismoaren krimenen aurkako kereilaren euskal plataformarekin». *Baketik* gizarte zibilaren erakundea. 2025eko irailaren 15ean eskuratua. https://baketik.org/legazpik-bat-egiten-du-frankismoaren-krimenen-aurkako-kereilaren-euskal-plataformarekin-20250521/

Barrionuevo José. 2022. «El exministro José Barrionuevo: "Yo ordené liberar a Segundo Marey"». Miguel Gonzálezen elkarrizketa. *El País*, azaroaren 6a. https://elpais.com/espana/2022-11-06/el-exministro-jose-barrionuevo-yo-ordene-liberar-a-segundo-marey.html

Bayo Eliseo. 1997. *GAL: PUNTO FINAL, Un testimonio inolvidable de lo que hay al otro lado del terror y de la esperanza.* Bartzelona: Plaza & Janés Editores, S.A. 1. edizioa.

Cassany, D. 2006. *Tras las líneas. Sobre la lectura contemporánea.* Bartzelona: Anagrama.
Castells, M. 2009. *Comunicación y poder.* Madril: Alianza.

C.E.D.R.I. (Comité de Encuesta sobre las Violaciones de Derechos Humanos en Europa). 1989. *EL GAL: El terrorismo de Estado en la Europa de las democracias*. Txalaparta.

Cercas, Javier. 2025. El Loco de Dios en el Fin del Mundo. Bartzelona: Penguin Rando House Grupo Editorial, 1.º edizioa.

Couldry, Nick. 2021. «Introducción». Honako lanean: *Medios de Comunicación*, 15-25. Madril: Alianza Editorial.

Covite. d.g. «Mapa del Terror».2025eko irailaren 10ean eskuratua. https://mapadelterror.com/

Covite. 2022. «COVITE ve inaceptables e indignas las palabras de Barrionuevo y cree lamentable que haya quien defienda a los GAL». Azaroaren 8a. https://covite.org/covite-en-los-medios/covite-ve-inaceptables-e-indignas-las-palabras-de-barrionuevo-y-cree-lamentable-que-haya-quien-defienda-a-los-gal/

Deustuko Unibertsitatea. 2022. «Donostiako campuseko ikasleak indarkeriaren biktimekin bildu dira». Azken eguneratzea: 2022ko martxoaren 22a. 2025eko irailaren 15ean eskuratua. https://www.deusto.eus/eu/hasiera/bizi/gaurkotasuna/albisteak/estudiantes-del-campus

-de-san-sebastian-se-reunen-con-victimas-de-la-violencia/noticia?_ga=2.242121218.107251796.1761840972-273161574.1761840972

Egunkaria Aurrera. 2010. «Han pedido la absolución / Ont demandé l'acquittement / They have requested the acquittal / Han demanat l'absolució». Azken eguneratzea: 2010eko otsailaren 10a. 2025eko irailaren 10ean eskuratua. https://egunkaria.info/international/?p=417

El Español. 2021. «Una conversación entre José María Aznar y Pedro J. Ramírez». Martxoaren 3a. https://www.youtube.com/watch?v=vC7sM-Cm3aE

El Mundo. 2001. «Cronología del 'caso Marey', la historia de un secuestro». Azken eguneratzea: 2001eko ekainaren 1. 2025eko apirilaren 24ean eskuratua. https://www.elmundo.es/elmundo/2001/05/31/espana/991332870.html

El Mundo. 2022. «Gobierno, PSE, Bildu, PNV y víctimas cargan contra Barrionuevo por "defender la guerra sucia contra ETA"». Abuztuaren 7a. https://www.elmundo.es/espana/2022/11/07/63691c02fdddfffb118b45d0.html

FAES Fundazioa. d.g. «¿Qué es FAES?». 2025eko apirilaren 10ean eskuratua. https://fundacionfaes.org/que-es-faes/

Gastaminza, Genoveva. 1999. «HB dice sufrir un "linchamiento mediático"». *El País*, urtarrilaren 17a. https://elpais.com/diario/1999/01/17/espana/916527602_850215.html

Gogora. 2022. Begiradak: Euskadin memoriaren gizarte eraikuntzarako oinarri partekatuak. *Gogora,* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua. https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora_dokumentuak/eu_def/Begiradak-Euskadin-memoriaren-oinarri-partekatuak.pdf

González, Felipe. 2012. «Salvados: Si hubiera volado la cúpula de ETA "a lo mejor hubiera habido 200 asesinatos menos"». Jordi Évoleren elkarrizketa. *Salvados (LaSexta),* martxoaren 20a. https://www.youtube.com/watch?v=_KaOPQZgKQI

Gurruchaga, Carmen. 2012. «Carmen Gurruchaga: "Rato no engañó a nadie, es honorable y me molesta que se le quiera linchar"». José Francisco Lamataren elkarrizketa. *Periodista Digital*, uztailaren 25a.

https://www.periodistadigital.com/periodismo/prensa/20120725/carmen-gurruchaga-rato-engano-nadie-honorable-molesta-le-quiera-linchar-noticia-689401018457/?utm_source=chatgpt.com

Innerarity, D. 2018. «Realidad e irrealidad y medios». *Observatorio de Medios*. Bloga. Martxoaren 16a. https://obsmedios5to.blogspot.com/2018/03/texto-realidad-e-irrealidad-de-los.html

La Hemeroteca del Buitre. d.g. «Ricardo Arqués rompe con DEIA y ficha por el DIARIO16 para poder continuar las informaciones sobre los GAL junto a Melchor Miralles». *La Hemeroteca del Buitre*. Bloga. https://lahemerotecadelbuitre.com/piezas/ricardo-arques-rompe-con-deia-y-ficha-por-el-diario16-para-poder-continuar-las-informaciones-sobre-los-gal/

Martín, Marta. 2024. «En deuda con Ricardo Arques». Ekainaren 6a. https://www.deia.eus/opinion/columnistas/2024/06/08/deuda-ricardo-arques-8332609.html

Miralles, Melchor. 2006. *Gal: La historia que sacudió El País*. Madril: La esfera de los libros, 2.

Naiz. 2025. «Alonso (Gogora): "Txiki y Otaegi no luchaban por la libertad, querían imponer su visión"». Abuztuaren 13 a. https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20250813/alonso-gogora-txiki-y-otaegi-no-luchaban-por-la-libertad-querian-imponer-su-vision

Ordoñez Consuelo, Zabala Pili. 2022. «Cuando Consuelo Ordóñez conoció a Pilar Zabala: "El que diga que tú no eres tan víctima como yo es un malnacido"». Pedro Simón-en elkarrizketa. *El Mundo*, azaroaren 27a. https://www.elmundo.es/papel/historias/2022/11/27/6380f09921efa0226d8b459a.html

Ordóñez Consuelo. 2025. «Las víctimas invisibles de los GAL». Urriaren 8a. https://www.elcorreo.com/opinion/tribunas/consuelo-ordonez-victimas-invisibles-gal-20251008000156-nt.html

Ordóñez Consuelo. 2025. «'Txiki' y Otaegi, ni héroes, ni mártires». Abuztuaren 22a. https://www.diariovasco.com/opinion/consuelo-ordonez-txiki-otaegi-heroes-martires-20250822000112-nt.html

Ordóñez, Esteban. 2016. «1. La pinza que nunca existió». *Contexto y Acción*. Maiatzaren 25a. https://ctxt.es/es/20160525/Politica/6235/Pinza-PSOE-Podemos-elecciones.htm

Pena, M. 2024. «Nace 'Egin', "voz de los sin voz" que contó la historia de Euskal Herria durante 21 años». 2024ko irailaren 29a. Naiz. https://www.naiz.eus/es/2024/20240929/nace-egin-voz-de-los-sin-voz-que-conto-la-historia-de-euskal-herria-durante-21-anos

Pérez Calvo, Alberto eta Corcuera Atienza, Francisco Javier. 1979. «En torno al referendum del Estatuto de Autonomía del País Vasco. Notas sobre el subsistema de partidos vascos». *Revista de estudios políticos,* 12, 1979. 179-196, orr. https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1273163

Pérez Jose Antonio. 2021. «Terrorismo y violencia política en el País Vasco». *Marcial Pons*, 1: 319-331. https://www.revistasmarcialpons.es/revistaayer/article/view/774/870

Prisa. 2025. «Quiénes somos». *Prisa* komunikazio taldea. 2025eko otsailaren 20an eskuratua. https://www.prisa.com/es

Ramos, C.: «Los medios de comunicación, agentes constructores de lo real». *Comunicar*, 5, 1995, 108-112 orr.

Ramírez, P. J. 2005. *Mis 100 mejores cartas del director: 25 años en la vida de España (1980-2005)*. Madril: La Esfera de los Libros.

Ramírez, P.J. 2021. *Palabra de director. Las memorias del periodista que nunca ha temido a la verdad.* Madril: Planeta.

Sola Ramón. 2025. «El PSOE de Guerra lo tenía más claro sobre Txiki y Otaegi que el de Gogora, hace 50 años». *Naiz*en argitratua. Abuztuaren 18a. https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20250818/el-psoe-de-guerra-lo-tenia-mas-claro-sobre-txiki-y-otaegi-que-el-de-gogora-hace-50-anos

Unidad Editorial. 2019. «Aznar pide el voto útil». Azaroaren 5a. https://www.unidadeditorial.es/noticia.aspx?id=5145

Informe Semanal. 2011. *1985 - Juan María Bandrés, el "Caso Zabalza" y el ministro del Interior José Barrionuevo*. Bideoa. https://www.youtube.com/watch?v=6vmuVhIw7Uk

Vocento. 2014. «Informe anual 2014». *Vocento* komunikazio taldea. 2025eko irailaren 20an eskuratua. https://www.vocento.com/memorias-anuales/vocento-memoria-2014/perfil-y-enfoque-de-gestion-de-responsabilidad-y-sostenibilidad.html

Zapata, R. eta Sánchez E. 2011. «El diseño de la investigación cualitativa». *Manual de investigación cualitativa en la Ciencia Política* lanetik aterata. Madril: Editorial Tecnos, 2011. 62 – 87 orr.

Zapata-Barrero, R. eta Sánchez-Montijano E. 2011. *Manual de Investigación cualitativa en la ciencia política*. Madril: Tecnos. 29-40 eta 41-61 orr.